

Arantza

Aurkibidea

Udalerria: Arantza

Sarrera



Nafarroako iparraldeko herria, Bortzirietakoa. Herri hauek ditu mugakide: Lesaka, Igantzi, Goizueta, Ituren eta Zubieta. (Argazkia kronika.eus-etik hartua)

- **Biztanleak:** 629
- **Euskaldunak:** %94,8

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **18**
- Zintak: **29**
- Pasarteak: **587**
- Transkribatutakoak: **43**
- Audioak: **43**
- Bideoak: **528**

Proiektuak

- Bortzirietako ahozko ondarea
- Dialektologia-EHU
- Euskal Herriko Ahotsak
- Euskararen biziberritzea Bortzirietan 1970-1990
- Legazpiko ahotsak

Hizlariak



Juan Aginaga Lazkano (1932-2018)

Arantzan sortu zen, Martxepen bordan. Bi gurasoak Arantzakoak zituen.

Joakin Berau Bergara (1933-2013)

Arantzan jaioa 1933an. Gurasoak arantzarrak zituen, eta zazpi senidetan zaharrena da. Eskolan Arantzan ibili zen, baina ez denbora luzez. 12 urterako Berara joan zen morroi, eta 16 urterekin, berriz, Ultzamara. Artzaintza mundua gertutik ezagutu du, gaztetan langintza horretan ibilia da. 18 urte zituela joan zen Gipuzkoara, Brinkolara hain zuzen ere; taberna batean apopilo jarri eta mandazain lanetan hasi zen Deskargan. Mandazain lanetan 11 urtean aritu eta gero, nagusiari erosi zizkion mandoak. Eskoriatzan menditik ikatza jaisten ibilia da hainbat urtean. Legazpiko Goenaga baserriko alabarekin ezkondu zen. Urte batzuk Goenaga baserrian egin eta gero, kalera joan ziren bizitzera: seme bat izan zuten.



Martina Bergara Almandoz (1930-2018)

Arantzan sortu zen, Atanbordan. Guraso biak Arantzakoak zituen.



Norberto Elizondo Bertiz (1918-2012)

Arantzan sortu zen, Larraburuko bordan. Guraso biak Arantzakoak zituen.



Pantaleon Errandonea Untsain (1937-2020)

Arantzan sortu zen, Putzu beltzan. Guraso biak Arantzakoak zituen.

ARN-003 Hizlari ezezaguna (1935)

Ez dugu hizlariaren daturik.

ARN-004 Hizlari ezezaguna (1935)

Ez dugu daturik.

ARN-026 Hizlari ezezaguna

2000. urtean Bortzirietako Euskara Mankomunitateak ahozko tradizioa biltzeko bekaren barruan Arantzan jasotako lekukotza anonimoak.



Inaxi Iparragirre Almandoz (1926)

Arantzan sortu zen. Guraso biak Arantzakoak zituen.



Roman Iparragirre Altamira (1930)

Arantzan sortu zen, Anttonen bordan.



Juanita Larralde Ibarrola (1956)



Koxme Larretxea Burgete (1933)



Patxi Larretxea Lazkano (1959)



Dionixi Lazkano Arrieta (1922-2014)

Arantzan sortu zen, Aroztegiko bordan. Bi gurasoak Arantzakoak zituen. [Cornelio Ubiria](#) senarrarekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Juanita Leiza Zugarramurdi (1931-2014)



Arantzan sortu zen, Etxerrean. Guraso biak Arantzakoak zituen.

Xalbador Madariaga Elizondo (1930)



1930ean Arantzan jaioa, Mutikonborda baserrian; orain Eguzkialdeko Ximonenbordan bizi da. Zazpi senidetan hirugarrena. Gurasoak, bertakoak eta nekazariak. Haurretan etxeko lanetan lagundu ondoren, 16 urtetan ikazkin hasi zen inguruko basoetan; geroago, kontrabandoan eta zuhaitzak botatzen Iratin (Iparraldean) eta Biarno aldean. Ezkondu ondoren Lesakako fabrika hasi zen lanean, erretiroa hartu zuen arte. Gaztetatik herriko festetan koplari eta bertsolari aritu izan da, trikitiaz lagunduta: santaketetan (urtezaharretan eta Errege-bezperan), toberetan, inauterietan, eta beste. Bertsolari-saio eta txapelketetan ere ibilia, sarritan anaia Batixta zenarekin batera (Nafarroako txapeldun izandakoa); aitona ere —gipuzkoarra— bertsolaria zuten.

Joxe Mari Ordoki Almandoz (1923)



Arantzan sortu zen, Aranibarren. Guraso biak Arantzakoak zituen.

Cornelio Ubiria Leiza (1923-2020)



Arantzan sortu zen, Arizpe baserrian. Ama Arantzakoa zuen eta aita Lesakakoa. [Dionixi Lazkano](#) emaztearekin batera egin zitzaion elkarrizketa.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Berara morroi (ARN-001/003)

Mutikotan, Arantzako eskolan ibili zen. Lau anaia eta hiru arreba ziren etxean. Joaquin zaharrena izanda, gazterik joan zen morroi. 12 urte zituela, Berako Eltzaburu baserrira hasi zen morroi lanetan. Morrontzako lanak. Sei-zazpi behi, behorrak eta 130-140 ardi zituzten baserrian. Festetan, bi-hiru egunerako joaten zen etxera.

2. Gaztetatik artzain (ARN-001/004)

Morroi joan aurretik, etxeko ardiekin ibiltzen zen artzain. Berako baserrian 130-140 ardi zeuden. Ardi mota: "mutur gorria". Ardiekin non ibiltzen zen. Baserrian jezten zituen ardiak, eskuz. Ardiak jezten zituen bitartean, baserriko amonak arrosarioa errezatzen zuen. Etxeko nagusiaren iloba batek laguntzen zion ardiak jezten.

3. "Beittie" edo ukuilua (ARN-001/005)

Arantzan ukuiluari "beittie" esaten diote. Ardiak egoten ziren lekua deskribatzen du.

4. Korralea eta "joariak" (ARN-001/006)

Ardiak korralean biltzen zituen jezteko garaian, sendatu behar zituenean, txintxarriren bat jarri behar zienean... Etxe bueltan zebiltzanean, lau bat ardik izaten zuten txintxarria; mendira bidali behar zirenean, ardien erdiei jartzen zien txintxarria. Nafarroan "joari" esaten diote txintxarriari. Zubietan (Nafarroa) erosten zituen "joariak".

5. Ardien markak (ARN-001/007)

Ardiak markatzeko moduak. Artzain bakoitzak bere marka egiten zion ardiari belarrian aitzurrarekin.

6. Ardi-moztea (ARN-001/008)

Ardi-mozten aitzurrarekin aritzen zen, ardiari lau hankak lotuta. Auzokoen edo etxekoen laguntzarekin egiten zuten lan hori. Ardi-mozteko sasoiak: San Fermin aurretuan. Batzuek ilargiari begiratzen zioten ardiei ilea mozteko garaian. Artilea Iruñeko traperoei saltzen zien. Prezioa aipatzen du.

7. Ardi zaharrak eta Frantziako tratulariak (ARN-001/009)

Abuztuan, Ama Birjinak inguruan, ardi zaharrak eta arkumeak apartatu, eta ardi zaharrak Frantziara saltzen zituzten. Tratulariak zaldi gainean ibiltzen ziren baserriz baserri. Ardiak erosi eta mugaraino gurdian eramaten zituzten. Frantzira salduz gero diru gehiago ateratzen zen.

8. Ardien hanketako bainua (ARN-001/010)

Ardiei banan-banan kentzen zizkien "harrotutako kaxkuak" labanarekin. Gero, askak egin zituzten, eta Frantziatik ekarritako likido bat (azido modukoa) uretan nahasi eta hanketan pasatzen zien ardiei. Egunerok, iluntze partean egiten zen lan hori. Mendian zeudenean, berriz, astean behin edo bitan ematen zien hanketako bainua.

9. Ahariei adarrak moztea (ARN-001/011)

Ahariei adarrak nola mozten zizkien azaltzen du.

10. Arkume garaia (ARN-001/012)

Arkume garaia nolakoa izaten zen azaltzen du. Arkumea jaiotzerakoan gaizki bazetorren, bazekiten nola lagundu. Arazoren bat izaten zenean, beterinarioari deitzen zioten.

11. Ardien gaixotasunak (ARN-001/013)

Ardiek izaten dituzten gaixotasunak. "Albo mina" esaten zioten ardiek arnasa hartzeko arazoak zituztenean. Urtean behin, gibela garbitzeko pilula txiki batzuk ematen zizkien ardiei.

12. Ardien jatena (ARN-001/014)

Ardiei jateko zer ematen zieten azaltzen du: belarra, artoa, zahia, baba txikituta, pentsua... Janak zer eragin duen ardiak esnea emateko garaian.

13. Ardi-esnea (ARN-001/015)

Beran, ardi-esne gutxi saltzen zen. Esnearekin gazta egiten zuten. Ultzaman morroi egon zen tokian, ordea, esnea (behi-esnea eta ardi-esnea) Iruñera bildatzen zen. Esnezalea joaten zen egunero baserrira. 40 litroko marmitatan biltzen zen esnea.

14. Gaztak (ARN-001/016)

Berako baserrian gazta egiten zuten ardi-esnearekin. Gaztak aise saltzen ziren.

15. Morrontza: nagusiak eta soldatak (ARN-001/017)

Morroi ibili zen denboran zenbat irabazten zuen. Beran, 12 urterekin, mantenuaren truke aritu zen lanean. Ultzaman, 16 urterekin, hilean 700 pezeta irabazten zituen. Gipuzkoara mandazain joan zenean, 18 urte ingururekin, 800 pezeta irabazten zituen hilean; berehala igo zioten soldata 1.000 pezetara. Ultzamako nagusiari buruzko azalpenak. Morroi bizimoduari buruzko kontuak.

16. Bizikleta erosi (ARN-001/018)

Ultzaman morroi zegoela erosi zuen bizikleta. Hilabeteko soldata kostatu zitzaion.

17. Ultzaman morroi (ARN-001/019)

Ultzaman morroi egon zeneko kontuak. Etxean neskamea zegoen; bolada batean bi ere egon ziren. Neskamearen eginkizunak zein ziren: jana prestatu, gidariarekin mandatuak egitera joan... Nagusiak denda jarri zuen herrian: elikagaiak, umeentzako arropak... saltzen zituen.

18. Ultzamatik Brinkolara (ARN-001/020)

20 urte egiteko zituela, Ultzamatik Brinkolara (Gipuzkoa) joan zen mandazain. Bi lagun zituen Gipuzkoan mandazain lanetan zebiltzanak, eta haien bidez lortu zuen lana. Brinkolako Beheko tabernan apopilo jarri eta mandazain lanetan hasi zen Deskargan. Brinkola Zahar baserrian ere egon zen apopilo.

19. Mandazain (ARN-001/021)

Nagusi batentzat mandazain lanetan 11 urtean aritu eta gero, nagusiari mandoak hartu eta bere kasara hasi zen lanean. Nagusiari buruzko azalpenak. Mandazain lana: mandoekin egurra karriatzen ibiltzen zen basotik Brinkolako estazioara. Nafarroako mutil gazte asko ibiltzen zen basolanean.

20. Egurra nola kargatzen zen (ARN-001/022)

Mandazain lana. Egurra nola eramaten zuen mandoetan: lehenengo, basta eta gantxo batzuetan; azken aldera, arrastaka. Lehen, egurra mendian txikitzen zen; gero, ordea, pinu enborrak arrastaka jaisten ziren basoan behera, eta pistan mozten ziren.

21. Basoak eta egurra (ARN-001/023)

Basolana. Egurra mozteko tresnak: trontza, arodun zerra, aizkora... Egurra zer neurritan mozten zen: metro bat eta erdi, bi metro azpitik. Pagoak eta haritzak botatzen ziren, eta, mendia garbitu ondoren, pinua sartzen zen.

22. Pinua, diru-iturri (ARN-001/024)

Garai batean, egurra diru-iturri ona zen. Pinuak diru asko ematen zuen: kiloa 15 pezetan saltzen zen (bolada batean, 16-17 pezetan ere egon omen zen). Oñtin botatako pinudi bati buruzko kontuak. Gaur egun egoera oso bestelakoa da.

23. "Sua eta ura, belaunetik behera" (ARN-001/025)

Erretako basoetako egurra aprobetxatzen zen. Legazpiko baso batek su hartu zion: 500 pinu inguru erre zitzaizkion. Suaren arriskuez hitz egiten du.

24. Mandoak (ARN-001/026)

Nagusiarentzat lanean aritu zenean, mandazain bakoitzak lau mando erabiltzen zituen (hiru mutil ibiltzen ziren: nagusiak 12 mando zituen). Bere kasara hasi zenean, Joaquinek sei mando eduki zituen. Mando handiak eta onak ziren. Lastoa eta pentsua (baba, garagarra eta oloa, nahasita) ematen zien jateko: egunean, gutxi gorabehera, 10 kilo pentsu jaten zuten. Aste guztian egiten zen lana, jaiegun berezietan salbu.

25. Mandoak ferratzea (ARN-001/027)

Morroi egon zen denboran, Hernaniko ferratzaile batek ferratzen zizkien mandoak. Azken aldera, berak ere ikasi zuen mandoak ferratzen. Nola ferratzen zituen azaltzen du. Mandoen zaintza: zauriak sendatzea.

26. Mandoak gobernatzea (ARN-001/028)

Mandoak nola gobernatzen zituen azaltzen du. Mandoei larruzko burukoak jartzen zizkien.

27. Eskoriatzan ikatza jaisten ibilia (ARN-001/033)

Lau udatan ibili zen ikatza basotik jaisten Eskoriatzan. Ikatza mandoetan nola jaisten zuen azaltzen du. Aragaiko batzuek egiten zuten ikatza. Ikatza zertarako erabiltzen zen.

28. Ikatza eta egurra (ARN-001/035)

Ikatza egurra baino diru-iturri hobea. Ikatza egiteak dituen zailtasunak. Egur-ikatza, hare-ikatza... Artea oso ona da egur-ikatzetarako.

29. Estraperloan ibilia Beran (ARN-001/037)

Beran morroi egon zen denboran, estraperloan ibili zen nagusiak aginduta. Kuadrillan ibiltzen ziren, eta astean hiru-lau bidaia egiten zituzten. Gaueko lana izaten zen. Muga izkinatik bizkarrean ekartzen zuten materiala. Nondik nora ibiltzen ziren azaltzen du. Estraperloko gaiak: iratzargailuak, olioak, sakarina, tabakoa ('Tabaco rubio vasco'), puruak, "botixerrak"...

30. Anai-arrebak. Haur txikien bataioa (ARN-005/002)

17 senide ziren eta Dionixi zen bigarren zaharrena. Haur guztiak etxean izan zituen amak. Anai bat hil zitzaizen bataiatu ondoren eta meza eta guzti egin zioten. Lehen oso agudo bataiatzen ziren haurrak, hil ezkeron linbora joan ez zitezen, zerura joan zitezen.

31. 3 urteko ahizpa hil zitzaizen (ARN-005/004)

Amak pena izugarria hartu zuen eta ez zuen bere oporra ikusi nahi izaten. Anai handienak galdetzen zuen non ote zen M^a Clara, eta amak zeruan zela esaten zuen.

32. Nola moldatzen ziren horrenbeste hurrekin (ARN-005/006)

Etxe handia zuten. 2 hurrek amatxirekin lo egiten zuten adibidez. Dionixik 8 urte zituenean hil zen amatxi. Amatxi agurtzera atera eta pulmonia bikoitza hartu zuen ahizpetako batek, apaizak oliadura eta dena eman zion, baina atera zen. Xaboi gehiegi gastatzen zutela eta, amak errazionatu egiten zien. Denak hazi ziren sano. 5 gela zituzten eta han banatzen ziren binaka, hirusak... lo egiteko. 11 urteetarako ahizpa bat neskame atera zen, 15 urte beste bat ere bai. Ez zuten goserik pasa, gaztaina aunitz izaten zuten. Ilarra eta artoa ere bai. Amatxik egiten zuen eltzaria aunitzetan eta hurrek eramaten zuten ura etxera. Zerriak ere gizentzen zituzten saltzeko. 16 urteetarako beste anai bat atera zen Iratira lanera.

33. Iratiko anaiari gertatutako istorio bat. Kazkabarra babetan (ARN-005/008)

Iratin zeuden babak bazkaltzen zubipe batean. Ekaitza hasi eta baben lapikoa kazkabarrez bete zitzaizen.

34. Aita eta ama ordenatuak ziren etxeko gauzetarako (ARN-005/010)

Aita eta ama orden handikoak ziren, amona ere ona eta asko laguntzen zien. Astero garbitzen zituzten arropak. Bazen arropak jotzen zizkien emazte bat ere. Behin arropendako oihala bidali eta 4rendako egin zituen. Ezin arropa lotuz ibiltzen ziren. Arropa ere aunitz probesten zen batzuetatik bestera. Irunen lehengusuak zituzten eta horiek ere arropa ematen zieten fardeletan. Gurasoak langile zintzoak ziren eta errenta beti pagatzen zuten ongi eta kontribuzioa ere bai. Ardiak bazituzten.

35. Zer elikagai zituzten (ARN-005/012)

Opilak egiten zituen eta aurreko ogiaren puska bat erabiltzen zuen opila harrotzeko. Bakoitzak bere oporra zuen (esnea hartzeko katilu modukoa). Opil hori jaten zuten, ilar gorria, urdai pixka bat... Zerri bat edo bi hitzen zituzten urtero, arrautzak ere izaten zituzten beti... Arrautzak saldu egiten zituzten ere. Olioak 23 sos kostatzen zuen, xaboiak 16. Gaztaina erreak ere jaten zituzten eta ez zuten behin ere goserik pasa izan.

36. Hurrek zer lan egiten zituzten (ARN-005/014)

Ura ekarri iturritik, makilekin. Zerrien jana egiteko ere ura behar zen.

37. Etxea (ARN-005/015)

Etxea errentan zuten, 700 pezeta pagatzen zituzten urtean. Urte batzuk geroago Gobernuak etxea pagatu zien, etxe berria egin zien.

38. Besteak bezalatsu bizi ziren (ARN-005/017)

Besteak bezalatsu bizi ziren, ez zuten deusen faltarik izan. Amak diru kontuak oso ongi eramaten zituen. Kanbio guztiak gordetzen zituen. Aitak terreno batzuk hartu eta lantzen zituen. Alde bakarra izan zen inork ez zuela komunioa zuriz egin, aitak probestu zitekeen arropa nahiago zuen. Etxera heldu eta berehala aldatzen zituzten arropak, berriak zaharreatik, ez hondatzeko. Maistrak esaten zien haien amak orden handia zuela.

39. Eskola (ARN-005/018)

Eskolara neguan joaten ziren 3 hilabetez. Azaroan hasi eta martxora arte, gutxi gora behera. Maistra denak erdaldunak ziren. Irakurtzen eta idazten ikasi zuten. Maisu bakoitzak igual 60 ume zituen. Berriz ere laneko garaia hasten zenean, bakarrik herritar batzuk geratzen ziren eskolan. Baserritako umeak, denak lanera. Ez ziren erdaraz oso ongi moldatzen. Gaztaina erreak eramaten zituzten atsedendian jateko eta herritarrak atzetik izaten zituzten beti, horregatik. Maisuak kasu gehiago egiten zien herritarrei baserritarrei baino. Herrikoak lehen lerroetan esertzen ziren.

40. Gobernuak etxea eman zien (ARN-005/020)

Familia handia zirenez, 17 kide, Gobernuak etxe berria eman zien. Oso familia handiei ematen omen zieten, inguruetan beste inori ez.

41. Auzokoak inbidiatan (ARN-005/022)

Gobernuak etxea eman zietela eta kontra izan zituzten, inbidiatan. Etxea tirokatu zieten, postakin.

42. Etxean argirik ez (ARN-005/024)

Urik ez zuten etxean eta argia ere ez. Dionixik 13 urte zituenean jarri zuten argia etxean. Zentral txiki batzuk egin zituzten 20 etxeendako eta argi apala ematen zuen hark. Askotan salto egiten zuen hark. 5 bonbilla zituzten etxean, merkeago baitziren, hortik gora garestiago zen dezente. Argia goitik beheiti, kortara, pasatzen zuten zulo batetik. Gero garestitu zen argia, batzuk sozio egin ziren gehiago ordainduz eta beste batzuek argia utzi zuten.

43. Herrira joateko farolak (ARN-005/025)

Baserritik herrira ere ez zen argirik eta farolak erabiltzen zituzten. Beste etxe batean abarka zaharren gomei su eman eta horiekin joaten ziren argitzen. Gero linternak heldu ziren. Askotan farola eta letxera eskuetan itzultzen ziren etxera.

44. Arropa garbitu (ARN-005/027)

Arropa iturrian garbitzen zuten, baina agortzen zenean astoarekin joaten ziren putzu batera adibidez. Maindireak garbitzeko kubera bat izaten zuten eta hartan egosten zuten arropa. Errekan ere garbitzen zuten arropa belaunetaraino sartuta. Herriko andre bat hil zen hola, pulmonia hartuta.

45. Herrira oinutsik (ARN-005/029)

Askotan herrira oinutsik joan eta han jartzen zituzten oinetakoak. Bestela abarka zaharrekin joan, dendan sartu eta han aldatzen zituzten oinetakoak, mendian hondatu ez zitezen. Cornelioren ama oinutsik ibiltzen zen arto jorran adibidez. Eskalanpoinak ere izaten ziren, egurrezko eginiko zapata dorpeak.

46. Ukendua (ARN-005/031)

Ukendua egiten dute etxean. Larruko zaurietarako adibidez, oso ona da, berehala garbitu eta lotzen du zauria. Dionixiren amak egiten zuen eta Corneliok ere beti ezagutu izan du ukendua. Sei osagai ezberdin ditu, xaboa, olio, baratxuria, erle argizaria, aretxearen seboa, oiloaren seboa, intxusaren lorea ere zenbaitetan... Intxusa erredurendako erabiltzen zen gehiago.

47. Arantza ateratzeko erremedioa (ARN-005/032)

Aurreko baratxuri ukendua ona zen horretarako ere. Zerri behazuna ere erabiltzen zen arantzak ateratzeko. Harrigarria da ukenduak nola ateratzen zituen arantzak eta arrain hezurak adibidez.

48. Herpesarentzat erremedioa (ARN-005/033)

3 egunetan baraurik egin behar zen erremedio hau. Oilarraren gandorreko odola herpesa dagoen zonaldetik pasa.

49. Erremedio gehiago: Enplastoak handituentzat, ertularentzat,... (ARN-005/035)

Ogi papurrarekin masa egin, ardotan egosi eta hori handituendako erabiltzen zuten. Tipula egosia esnetan ere ona zen handituendako. Ertularendako ere tipula ona zen, hatza ur irakinetan sartu eta atera ere bai.

50. Erlearen ausikiarentzat haritz hostoa, osinarentzat astamenda (ARN-005/037)

Erlearen ausikiarendako ona da haritz hostoa igurtzea azal gainean. Osinarendako astamenda da erremedio ona, hori ere igurtzi behar da. Kukuxuak bidaltzeko ere ona omen da astamenda. Korneliok ez du fede handirik horretan.

51. Erremedioak zotinentzat (ARN-006/001)

Kafesnea hartu eta bonetari buelta eman buruan, 3 zotin izan aitzin. Zotinarendako ere 3 zotin egin aitzin, ur baso bati 9 trago txiki eman.

52. Belarrientzat erremedioak (ARN-006/002)

Epeldutako olioak belarrira bota eta kotoiarekin tapatu. Mamorro zuri batzuk ere frijitzen zituzten oliotan eta horiek belarrian ematen zituzten ere. “Gorotz-mamurruk” deitzen diete.

53. Oilarrak gauez kukurruku eginez gero, sorgina inguruan (ARN-006/004)

Oilarrak kukurruku egiten bazuen gauez, sutara gatz eskukada bat bota behar zen, inguruan omen zebilen sorginaren ipurdia erretzeko.

54. Erremedio gehiago: Gorrinarentzat eta korotxarentzat (ARN-006/006)

Gorrinarendako (saranpion), ohea eta beroa. Korotxendako (tosferina) , erremolatxa gorrien ura egosi eta edan.

55. Sugearen ausikiarentzat erremedioa (ARN-006/008)

Ausiki egin zuen tokian ireki, zupatu eta bota. Sugearen ausikirako ere bazen errezoren bat baina Dionixi eta Corneliok ez zuten ikasi.

56. Tronpesiarentzat erremedioa (ARN-006/010)

Soka bat lotzen zen gerri inguruan. Goizetan mezarako ezkilak jotzean, gaileta bat eta kopa bat moskatel edaten zuten. Bederatzigarren egunean soka moztu eta sutara botatzen zuten gaileten paperarekin.

57. Karitxentzat erremedioa (ARN-006/012)

Sagarra lau parte egin, karitxetan igurtzi, sagarra lotu eta lurperatu, karitxak dituen horrek jakiten ez duen tokian.

58. Karitxendako apoa (ARN-006/014)

Apoarekin karitxak igurtzita joaten omen ziren ere. Behiei jartzen zieten apoa lepoan. Ahoa hil eta idortu arte han eduki behar zuten.

59. Beherakoaren kontrako erremedioa (ARN-006/016)

Belar baten zainak egosi, edan eta horrek kentzen zuten.

60. San Juanarreko ura (ARN-006/018)

Batzuk fede handia diote Sanjuanarreko urari. Karitxak garbitzen zituen ere ur horrek, trapuarekin ongi igurtzi eta trapua han utzi behar zen. Zauri gaixtatuak ere sendatzen omen ditu.

61. Amaraunarekin odola gelditu (ARN-006/019)

Armiarma sarearekin gelditzen zuten odolaren jarioa. Bendari ez zenean ere belar hosto zabal bat erabiltzen zuten.

62. Muskerrak lepora salto egiten zuenean (ARN-006/021)

Muskerrak lepora salto egin eta 12ak jo bitartean ez zen askatzen.

63. Barea altxatzen delarik, zer egin (ARN-006/023)

Barea altxatzen delarik, 3 harriri listu eman, eta lurrean sartu

64. Haur bat neska edo mutil jaioko zen jakiteko (ARN-006/025)

Sardinekin jakiten zen, sutan saltatu egiten zuen edo ez, horren arabera.

65. Urrian arrosarioa (ARN-006/027)

Urrian arrosarioa erreztatzen zuten goizez eta arratsaldez, amonarekin.

66. Su bedeinkatua (ARN-006/028)

Kardatxekin ekartzen zen su bedeinkatua etxera eta urte guztian uzten zen sua piztua. Su zaharra bota egiten zen.

67. San Juan bezpera, sarna fuera... (ARN-006/030)

San Juan bezperan suak saltatzen zituzten eta San Juan bezpera, sarnafuera, gaixtok kanpora onak barrura esaten zuten. Erramuak ere bedeinkatzen ziren egun hortan. Apaiza joaten zen auzoetara San Juan bezperean soroak bedeinkatzera. Cornelioren etxean bazkaltzen zuten.

68. Apaizak soroak konjuratu harrak bidaltzeko (ARN-006/031)

Har gorri batzuk heltzen ziren soroetara eta landareak jaten zituzten zainetik eta apaizak konjuratzen zituen. Ekaitzak ere konjuratzen zituen. Kandela bedeinkatua ere pizten zuten etxeetan.

69. Erramua katu kakak usaina ezkutatzeko erretzen zuten (ARN-006/032)

Erramu erre azukrearekin usain ona botatzen zuen eta etxeko gelei usain txarra kentzeko erabiltzen zuten. Garia ere ereiten zuten etxean, altzariak-eta apaintzeko.

70. Lastairak eta oheak (ARN-006/033)

Lastaira koltxoiaren azpiko ohearen parte bat zen. Oheak ere nolakoak ziren azaltzen dute. Oihal bat zuten aldeetan sapaieraino, zikin ez zitezen.

71. Zeri begiratu jakiteko zer eguraldi egin behar duen. Haizeak (ARN-006/035)

“Arrats gorri, goiz eguraldi” Arratsa gorria bada, goizean eguraldi ona. “Goiz gorri, arrats euri”Goiza gorri bada, arratsaldean euria.. Hegoaizea. Itsasotik heldutako haizeak euria dakar.

72. Animaliak eta aroa (ARN-006/037)

Behorrak eta ardiak menditik jaisten badira, elurra seguru. Behi guztiak alde berera etzaten badira, eguraldia aldatuko da. Katuak muturra igurtzen badu, euria dator. Armiamak zulotik ateratzen badira, ere bai. Idor mamurruk ateratzen badira, lehortea dator. Zizareak ateratzen badira euri asko egingen du. Barraskiloak ere bai. Sugea beroarekin ateratzen da. Ekaitzarekin ere bai.

73. Axeri-bataioa (ARN-006/039)

Ortzadarrari axerrien bataioa deitzen diote.

74. Toberak (ARN-006/041)

Festa handia izaten zen, akordeoiarekin. Bertsoak ere abesten ziren. Pregoi egunean izaten zen. Bazkaria izaten zen eta auzokoak joaten ziren gero kantura.

75. Santakta eguna (ARN-006/042)

Eguberri eta errege bezperan kantuan ateratzen ziren, eskean. Limosna biltzen zuten. Egun ez da egiten.

76. Musika igandetan (ARN-006/044)

Arantzan akordeoia izaten zen igandetan. Ezkondutako bikoteak joaten ziren dantzara. Giltzak zintzilik jarri behar izaten zituzten eta gero hartu.

77. Arantzan sorginak non izaten ziren eta nolakoak ziren (ARN-006/046)

Arruzpin izaten ziren sorginak. Ikaran egoten ziren beti handik pasatzeko. Errekako zuloetan izaten omen ziren. Amatzik beti kredoa errezatzen zuen handik pasatzean. Jendea izaten ziren. Apaizak ebanjelioaren liburu irekita utzi zuen sorgina zein zen jakiteko. Sorginek ezin zioten liburuari begiratu.

78. Apaizak sorginak konjuratu zituen (ARN-006/048)

Orazio bat egin zuen apaizak (Don Miguel), sukarra zuen emakume bati. Ebanjelioa eman eta sukarra joan zitzaion eta sendatu. Sorginkeria kendu omen zitzaion.

79. Haur kanta: Ttinkun-ttinkun (ARN-006/050)

“Ttinkun-ttinkun, mailuaren hotsa, Goierriko atsoaren poza”
Haurra belaun gainean ibiltzeko.

80. Elizan sartzea. Atso bisitak (ARN-006/052)

Haurra izan eta eliza sartu aitzin ezin ziren kalean ibili emazteak. Emazteak teila bat jarri behar zuten buru gainean. Ez dute ezagutu, baina entzun dute. Umea izan eta familia bisitan joaten ziren eta eramaten zuten jateko aunitz. Auzokoak ere joaten ziren.

81. Onddoei buruzko sinismenak (ARN-006/054)

Begiratu ezker ez direla handitzen. Txikiak utzi behar omen dira eta ipurdiak ere bai, berriz jaio daitezten. Ilberrin onddo gehiago ateratzen omen da.

82. Hegazkin bat erori zen Arantzan (ARN-007/001)

Abenduaren 26 batez, goizeko 7ak baino lehenago zarata handi bat entzun zuten. Gero sua ikusten hasi ziren, mezara zihoazenean. “Azken juizioa izanen da hau” esan zuen Inaxik. Apaiza ere harekin apuratu eta meza beranduago hasi zen. Ondotik, hura ikustera joan ziren. Eroritako hegazkin hartan zendu zirenak Arantzara eraman zituzten. Inaxik 12-13 urte zituen orduan.

83. Mondongera izan zen Inaxi (ARN-007/002)

Mondongera izan zen Inaxi. Etxe denetan hiltzen zuten zerria. Familia handiek txerri bat baino gehiago. Batzuek zerri handiak nahi izaten zituzten grasa

saltzeko. Grasa patatk frejitzeko erabiltzen zuten. Oilaskoa erre behar zenean ere ematen zitzaion haretik pixka bat.

84. Ez zen oliorik izaten (ARN-007/003)

Izan zen denboraldi bat oliorik ez zena. Ezta azukrerik ere...

85. Zerria loditzeko zer bazka (ARN-007/004)

Orduan ez zen pentsurik. Patata eta erremolatxa ematen zieten. Arto hirina ere bai. Gero kooperatiba hasi zen. Baserritarrendako aurrerapausoa izan zen. Behien, ardien eta zerrien pentsua zaltzen zuten han.

86. Zerri-hiltzearen bezpera (ARN-007/005)

Zerriak 100 kilo bazituen, 4 kilo tipula prestatu behar ziren. Kilo erdi arroz ere bai. Pipermin pixka bat ere prestatzen zuten, uretan irakinda, estekiei zaporea emateko. Baratxuria eta adoboa ere prestatzen zuten bezperatik.

87. Zerri-hiltze eguna (ARN-007/007)

Zerri hiltzaileak heltzen zirelarik etxera txokolatea hartzen zuten. Gero, hori fuertea zenez, kafea, anisa eta galletak hartzen hasi ziren. Ondoren zerri hiltzeari ekiten zioten. Zerria 4 lagunen artean eutsi eta labana sartzen zioten. Iñaxi mondongera zen eta odola nahasten zuen. Diferentzia handia zen zerria ongi eutsi ala ez, odola ere ongi nahazteko, zerria mugitzen bazen zailago baitzen. Gero zerriari gantxo bat sartzen zioten leptotik. Labana sartu eta ireki egiten zuten. Odolari bueltak eman behar zitzaizkion gogortu ez zedin. Bezperako tipula eta arrozak botatzen zitzaizkion eta buelta gehiago, horrekin hozten zen. Beste batzuek zerria erre egiten zuten. Iratzeekin eta ongi garbitu. Urarekin garbitzen zuten, buelta eman eta barrenak atera. Gibela, gantzak,... gero ohiu egiten zuten "hatozte tripak hartzerako". Trapu batekin hartzen zuten tripa eta etxeko mahai batean urratu egiten zuten. Odolkiak hartzen esteak hartzen zituzten. Errekan garbitzen zituzten eta buelta ematen zieten. Gero ura jarri zuten baserrian eta han garbitzen zituzten. Ozpina eta gatza ere erabiltzen zuten hobe garbitzeko. Tripak urratzen zirenerako beste emakume batek gosaria prestatu behar zuen. Kafea anisarekin. Gibela tipularekin, aurreko urteko solomoak, txistorrak... arraultza frijituekin. Batzuetan zopa ere egiten zuten. Azkenaldian zerri-hiltzaileak ez zuen gosaltzen, pagatu egiten zioten eta kitto. Bukaera bukaeran Iruritan hiltegi hiltzen zuten. Adoboak gatz aski ba ote zuen jakiteko arraultza batekin egiten zuten froga. Adobo hori solomo eta urdaiazpikoari ematen zitzaion. Kontserba egiteko "gazindian" (gatz bezetako kutxa bat) sartzen zuten zerrikia gatzetan.

88. Odolkiak nola egiten ziren (ARN-007/008)

Gatza eta ozpinarekin garbitzen zituzten ongi esteak. Odolkiaren orearen puxka bat zartaginean frijitzen zuten, probatu eta gatz aski ote zuen jakiteko. Hesteko airea atera beharra izaten zen ongi ontzeko. Gero hestearen 4 behatz uzten zituzten bete gabe lehor ez zedin. Beheko suan egozten zuten lehenbizi, gero sukaldean, ura irakiten ari zelarik.

89. Lukainkak egiteko makina (ARN-007/010)

Lukainkaren betekia xehatzeko beti makina txiki batekin egiten zuten. Azkenerako 4 familien artean makina elektriko bat erosi zuten.

90. Kontserbak (ARN-007/012)

Olio eta mantekan sartzen ziren zerri puskak, eltze handi batzuetan. Gero lata batzuetan. Solomoa eta txistorrak sartzen zituzten, lehendik frijitu gabe. Olioaren errezago eskuratu ahal izan zenean hasi ziren puskak olio hutsean sartzen. Lehenago olioaren baratxuri batekin frijitzen zuten eta gero horra sartzen zituzten txistorrak eta... Olio hura ere probestu egiten zen gero.

91. Puskak, presentea (ARN-007/013)

Sahieski pixka bat, hezur-okerra edo palota, gibela, bi odolki, dena barasaria edo aza hosto batekin tapatzen zen. Gero albal papera hasi ziren erabiltzen, baina aza hostoarekin fresko mantentzen zen. Saski txiki batzuetan eramaten zituzten eta sos batzuk ematen zizkieten, eta haiek kontzent sos horiekin.

92. Errezua San Joseri (ARN-007/015)

Goizean goizik errosarioa egiten zen urrirun (urrian), eta errosarioaren ondotik, errezu hau esaten zuten, pulpitotik, goizeko 6etan. Gero siesta egiten zuten, horren goiz jaikita! Errezua esaten du. Igandeko bezperetan ere esaten zuten errezu hori.

93. Prozesioa urrian (ARN-007/016)

Elizatik atera eta buelta txikia egiten zuten eliza kanpotik arrosarioa kantari. Abesten du. Gurasoek esnatzen zituzten errosariora joateko.

94. Egunean zeharreko errezuak (ARN-007/018)

Ez zuten errezu handirik egiten. Lehendabizi gurutze santuari errezu egiten zioten, bestela erori eta min hartuko zuten beldur. Sukaldean sartu eta "Jaungoikoak digula egun on" esaten zuten. Eguerdian angelusaren errezatzen zuten. Hasieran latinez errezatzen zuten (latinez esaten du), baina gero euskaraz hasi ziren: abesten du angelusa euskeraz. Norbait alorrean bazen, eguerdian ezkilak jo, eta errezatzeko gelditu egiten zuten lana. Iñaxik mendiaren beste aldean egiten zuen lana eta handik ez zen ezkilarik aditzen. Gizonek txapela kendu eta errezatzen zuten. Misiolariek erakutsi zieten angelusa euskaraz. Latina ez zuten batere entenditzen, jaungoikoak entenditu behar zuen!!!

95. Misioak (ARN-007/020)

Garizuman etortzen ziren apaizak. Sermoiak egiten zituzten. Gogorrak ziren, jaungoikoak bekatariak kaztigatuko zituela esaten zieten jendeari. Orain jaungoikoak ez omen du kaztigatzen. Pulpitotik aritzen ziren.

96. Erauntsia zegoenean etxeetan zer egiten zen (ARN-007/022)

Ama belaunika jartzen zen, bedeinkatutako kandela piztu eta kirila hartzen zuen. Familia guztia bildu eta erramu pixka bat erretzen zuten. Santa Barbarari eta San Antoniori errezatzen zioten, aita gurea. Tximista eta trumoiaren kontra zen hori, batez ere. Etxe sarreran, San Juan bezperan paratzen zuten Laizarra eta Elorria. Landa erditan ere jartzen zuten.

97. Iñaxiren amak apaiza ikusi zuen konjuroak egiten ekaitzaren kontra (ARN-007/023)

Apaizak goizean goiz jaiki, zerura begiratu eta ze eguraldi eginen zuen jakin omen zezaketen. Iñaxiren amak apaiza ikusi zuen eliza kanpoaldean belauniko ekaitzaren kontra konjuroa eginez.

98. Harrak bidaltzeko zer egin (ARN-007/024)

Baserritar bati arrak sartu zitzaizkion soroan. Pentsatu zuen apaizari bildots bat emanaz defendituko zuela soroa. Apaizak lurrari kisua eta gorotza emateko esan zion eta baserritarrak erantzun zion horren truke bildotsa ez ziola emanen. Apaiza soroak bedeinkatzeko deitzen zuten urtero. Orain ia ez da egiten. Orain San Migel aingerua joaten da eta haren bedeinkazioarekin konformatu behar. Etkez -etxe pasatzen zen apaiza eta bazekien zeinetan hartu bazkaltzekoa.

99. Har txiki gorria (ARN-007/025)

Bazen artoaren zaina zeharkatzen zuen har txiki gorri bat. Hori gertatzen bazen, artoa txartu egiten zen. Har gorri horiek hartu eta Arantzazura eraman zituzten, arkaitzetan behera botatzeko.

100. Errosario garaian urik ez (ARN-007/027)

Aitatxik ur edatera behartzen zituen errosario aurretik, bitartean ezin baitzen edan, bere esanetan. 20 bat minuti egoten ziren errezatzen. Komunio hartzera baraurik joan behar izaten zuten. Konfesioak arratsaldeetan izaten ziren, eskolatik irtenda.

101. Fatimako amabirjina Arantzan (ARN-007/029)

Fatimako amabirjina eraman zuten Arantzara 1950an edo. Herri guztia baraurik joan behar izan zuen meza eta komunioa hartzera. Aurreko astea herria ornitzen eta atontzen eman zuten.

102. Linboa (ARN-007/031)

Haur jaio berriak bataiatu gabe hiltzen baziren hilerrian toki berezian ehorzten zituzten. Hori zen linboa.

103. Purgatorioa (ARN-007/033)

Pekatuaren zorra pagatu arte purgatorioan izaten ziren arima, zeruan sartu gabe. Horretarako errezuak egin behar ziren arima haien zorrak ordaintzeko.

104. Mariaren alabak (ARN-007/035)

14 urte betetzerakoan neskatikoak Mariaren alabaren kongregazioan sartu beharra zuten. Mutilak Luistarretan. Hilabeteko bigarren igandetan kongregazioaren konfesioa eta komunioa izaten zen, bezperen ondotik. Sermoia ere izaten zen amabirjinaren inguruan. Eskapularioa izaten zuten. Jesusen bihotzaren kongregazioa ere izaten zen, ezkondu ondoren.

105. Apaizarentzat ardia (ARN-007/037)

Norbait hiltzen zenean ardia eramaten zuten difuntoaren kutxaren atzean, apaizak jateko. Iñaxiren anaia hiltzerakoan apaizek bazkaria egin zuten ostatuan familiaren kontura. Familiak berriz baserrian bazkaldu zuen (familia

eta auzokoak). Ardi bat hiltzen zuten eta harekin gisadoa egiten zuten. Arroza, garbantzuak ere jaten zituzten. Postrerako natillak.

106. Mendira lanera, ikazkin (ARN-008/001)

15 urtetarako joan zen Joxe Mari mendira lanera. Arantzako mendi batean izan zen lehenbiziko. Egurra xehetu, garraiatu, ikatza egin, bildu, zakuak bete... Ikaztegi plaza nola prestatzen zuten azaltzen du. Pagoarekin egiten zuten ikatza. Borda batean egiten zuten lo, kamañetan. Jateko baba zaharra, ogia eta ardoa. Kamañak egur eta iratzez egiten zituzten. Neguan manta gehiago ipini eta listo. Lo gutxi egiten zuten txondorrek zaindu behar baizituzten gaez ere. Lau lagun baino ez zeuden. Ikatza berako fundizionerako izaten zen. Etxerako ez zuten gordetzen.

107. Eugiko mendietara lanera (ARN-008/003)

Eugi inguruko beste mendi batera joan zen gero lanera. Hango lana garbiagoa zen ez baitziren ikatzarekin ibiltzen. Arpanarekin eta aizkorarekin ibiltzen ziren egurra botatzen. Gero kamioietan kargatzen. Hasieran ez zuten garabiarik eta eskuz kargatzen zuten kamioia, 5-6 lagunen artean. Bikoteka aritzen ziren lanean. 2 lagun arbola botatzen eta beste 2 kimatzen eta egurra leuntzen.

108. Nolakoak ziren txabolak (ARN-008/005)

Txapaz eginak izaten ziren. 20-30 lagun sartzen ziren. Huescan ere aritu zen eta han 99 lagun sartzen ziren. Aldeetan 2 hesi eta gainetik iratzea izaten zuten. Alde bakoitzean , kamañak. “A rantxo” jaten zuten, denak sozio, eltze beretik. Lanean ari zirelarik, erauntsia bazen jateko guztia urez betetzen zitzaien. Batzuetan ardo trago bat eman eta lanean segi.

109. Otorduak mendian (ARN-008/006)

Gosaltzeko, babak, azkaltzeko babak, afaltzeko babak. Ondotik, baba saldarekin eginiko ogi zopa. Litro t'erdi ardo izaten zuten razioa. Baina Joxe Marik ardoa libre izaten zuen. Inoiz ez zuen zegokiona edaten. Bi lagun izaten zituen txabolan esperoan Joxe Mariren ardoa edateko.

110. Igandetan ere lan! (ARN-008/008)

Ordu biak arte egiten zuten lana. Txabolara joan, bazkaldu, siesta pixka bat egin eta arropak garbitzera joan errekarra, bizarra egin... Merendu berezia egiten zuten, haien kontura. Makailua batzuetan, haragi puskaren bat agian. Bi lagun ziren igande arratsaldetan sozio. Haragia eskatzen zuten eta igandean merendatu, afaldu eta asteleheneko afarirako ere gordetzen zuten. Haiek prestatzen zuten merendu hori. Makailua eta haragia, egurra garraiatzen zuten kamioi gidariei eskatzen zieten eramateko.

111. 17 ordu lan (ARN-008/009)

Oihanean 17 ordu lan egin izan ditu segidan Joxe Marik. Egunsentiarekin txabolatik atera eta iluntzearekin sartu. Eritasunen bat bazuten ahal bezala sendatzen zuten. Nagusiak eritua kotxearekin jaisten zuen herrira. Ez zuten segurorik orduan (30 lagunendako 5 seguru, eta horiek denentzako erabili).

112. Iratin zenbat lagun lanean (ARN-008/011)

Mendian batzuk besteengandik urrun lan egiten zuten. Ez da erreza zenbat lagun aritzen ziren lanean esaten. Lanpostu ezberdinak azaltzen ditu: Rantxero bat bazkaria prestatzen zuena, 2 pintxe jatekoa mendira igotzen zietena. Arbola botatzen 14 pareja izaten ziren, bakoitzak bere sailean.

113. Arbola nora bota kalkulatzeko (ARN-008/012)

Lehenbizi arbolari begiratu behar zitzaion, nora eroriko ote zen errezago. Batzuk lurrera erotzen ziren besteak, zintzilik geratu. Hozka zuhaitza bota nahi den aldera egin beharra zaio. Arbola bota eta adarrak kendu, kimatu, 2 metro luzeko ataletan moztu eta kamioietan kargatzen zituzten.

114. Kablea Eugin (ARN-008/013)

Eugin kablea erabiltzen zuten egurra garraiatzeko. 14Mila kilo egur garraiatzen ahal zuen kable horrek. 2,5 kmko luzeera zuen kableak. Arbolak plantxa batzuen gainean kokatzen ziren eta kateekin lotu eta horrela garraiatzen zuten egurra.

115. Arantzan mutil gehienak oihanean (ARN-008/015)

Bizitza latza izan zutela dio Joxe Marik. Arantza mutilik gabe geratu zen, denak baitziren mendian lanean. 11 hilabete pasatzen zituzten etxetik kanpo lanean, 10.000 pezetaren truke. Jendeak uste zuen hori diru asko zela, baina hori irabazteko egin beharreko lana, askoz handiagoa. Orain motozerrarekin batek egiten du lehen 10 gizonek baino lan gehiago.

116. Lehengo neurriak (ARN-008/017)

Laka kutxa txiki bat zen, errobo erdia pixka bat handiagoa, eta erroboa. Erroboak 22 kilo inguru zituan. Horiekin ilarra, artoa, baba, aiorba, gaztaina... neurtzen zen. Sagarrekin adibidez ez zen erabiltzen.

117. Azienda neurtzeko soka (ARN-008/019)

Azienda neurtzeko soka bat izaten zuten. Metro t'erdi edo pixka bat gehiago izaten zuen. Sokak marka batzuk zituen. Horrekin ederki kalkulaten zuten aziendaren pisua, bi biko edo kilo bateko okerra izaten zuten asko jota.

118. Erleak etxean (ARN-008/020)

Beti ezagutu dituzte erleak etxean. Erle mota ezberdinak daude: beltzak, gorriak... Gorriak gorri-gorriak izaten ziren eta besteak nabarragoak. Gorriak gaiztoak izaten ziren eta ausiki egiten zuten. Etxean beltzetarik zituzten. Erle mota ezberdinak izaten dira, erregina, langilea, alferra... langileek erle alferrak hil egiten zituzten. Baziren 4-5 erregina. Hura beste kaja batera pasa eta gainontzeko erleak atzetik joaten zitzaikion.

119. Zenbat erle etxean (ARN-008/022)

17-18 eultze zituzten garai batean, Orain 2rekin aski. Neguan zainketa berezia behar zuten, jatekoa batzuetan... azukrea.

120. Lehenagoko eultzeak (ARN-008/024)

Egur bat lehertu eta adarrak ateratzen zitzaizkion. Hobe izate ziren adar bakoitiak. Ondotik egur hori nola estaltzen zuten azaltzen du, ahien hostoekin. Eultzen tamainak.

121. Eultza bukatu eta erlea sartu (ARN-008/026)

Eultza gorotzarekin eta buztinarekin bustitzen zen kanpotik eta barrutik, ixteko. Ondotik barruan kolonia jarri eta erlea sartu egiten zen.

122. Erlearen umea mugitzeko txistu egiten zen (ARN-008/028)

Erleak umea eultzatik atera eta leiho batean gelditzen bazen, handik bidali behar izaten zen. Askotan zuhaitzen arbolatan jartzen ziren. 4 bat egun leihoan izan eta gero aldegiten zuten. Lehengo zaharrek txistuka biltzen zituzten erleak.

123. Erle bila mendira (ARN-008/029)

Aitak afizio handia zuen erle bila mendira joatekoa. Segituan atzematen zion norabidea erleari. Ura edate ari zirelarik errezago harrapatzen ziren. Erlauntza bat harrapatuz gero, horri seinalea egiten zitzaion, beste inork har ez zezan. Urriari biltzen zuten ezta, ilbeheran, pikortu ez zedin.

124. Ilberria eta ilbehera (ARN-008/030)

Ilberriak eta Ilbeherak garrantzia handia dute. Fagoa ilbeheran botaz gero ez du sua ongi egiten. Haritza berdin. Apar zuri bat ateratzen zaio. Gehienak beraz, ilberrin bota behar dira. Baratzerako ere begiratzen zitzaion ilargiari. Ilarrak doble ematen zuen ilbeheran landatuta, ilberrin baino. Ereiteko ere ilbehera. Zerria hiltzeko ilbehera. Ilea ilberrin moztuta agudoago hazten da.

125. Onddoak eta ilargia (ARN-008/032)

Ilbeheran euria egiten badu, ilberrin ateratzen da onddoa. Onddoak euria behar du eta zortzi bat egun ateratzeko. Hezetasuna eta beroa behar du. Gaztainetan, haritzetan, pinutan... ateratzen dira onddoak., baina gehiena pagoetan eta haritz amerikarretan. Arbolik ez den lekuen gutxi.

126. Onddoen inguruko sinesmenak (ARN-008/034)

Onddoak behin ikusiz gero gehiago hazten ez direla esaten duenik bada. Joxe marik ez du sinisten, ebark ikusi ditu gehiago hazten. Onddoak bapatean ateratzen direla ere esaten dute batzuek, baina Joxemarik ezetz dio.

127. Onddoaren ipurdia lurrean utzi behar da (ARN-008/036)

Onddoaren ipurdia lurrean utzi behar da heldu den urtean berriz han onddoa jaio dadin. Beti egiten dute horrela. Inori ez zaio onddoa non topatu den esaten.

128. Erlea harrapatzeko zer esan behar da? Etxeko norbait hiltzen zenean abisua ematen zieten (ARN-008/038)

Erlea eultze berri batean sartzeko, “bertain, bertain, Maria ederra” estaen zieten. Etxeko nobait hiltzen zenean ere abisatu egiten

zitzaian urteko argizaria egin zezaten. Erleei zuketan egiten zieten. Zakurrei ere bai.

129. Erlearen ausikirako erremedioa (ARN-008/040)

Lurra idorra hartu eta horrekin fuerte igurtzen zuten, zitzadaren tokian. Masma belarra ere erabiltzen zuten, horrek ez zion pikorrari hazten uzten.

130. Erleak ezin ziren saldu (ARN-008/041)

Erleak ezin ziren saldu, zerbait trukean eman bai, baina saldu ez.

131. Eztia nola egiten zen (ARN-008/043)

Lehenbizi erleak hiltzen zituzten botikarekin. Gero erlauntza hartu eta etxera eramaten zuten. 2 makilekin eta trapu baten laguntzaz fuerte estutzen zuten erlauntza. Eztia trapuan behera jaisten zen. Geratzen zen erlauntza estutuari “berexka” deitzen zioten. Horrekin mostilloa egiten zuten zenbaitetan. Etxean ez zuten gordetzen, besteren bati eman edo bota.

132. Argizariarekin zer egiten zen (ARN-008/045)

Argizariarekin kandelak egiten zituzten. Argizaria egurrezko lurrari lustrea emateko ere balio zuen. Erremedioak egiteko ere bai. Etxean ez zuten kandelarik egiten, eta ez daki Arantzan baten batek egiten ote zituen ere.

133. Aranibar etxea (ARN-008/047)

Arantzako lehenengo etxea izan omen zen.

134. 7 urterekin morroi. Eskolara behin joan zen (ARN-008/049)

Biaje bakarra egin zuen eskolara. 100 lagun zituen irakasleak eskolan. Zekienari irakatsi eta ez zeniena bazter uzten zuen. Eskolan ez zuen deus gutxi egin. 7 urtetarako morroi atera zen etxetik. Aita eta ama ezagutzen ez zituela ere geratu zen. Behiak jeizten zituen eta esnea letxeroari eraman. Morroi bizi zen etxe hartan, familiako beste bat bezala bizi zen.

135. Segarekin lanean (ARN-009/001)

Auritzen, Auritz-berrin eta Arantzazun aritu zen 7 urtez segalari gisa. Hilabete, hilabete t'erdi ematen zuten han lanean. 2 lagun aritzen ziren segan. Biak arantzarrak. 6:30etan jaiki, gosaldtu, sega hartu eta martxa. Goiza segan pasa ondotik, bazkalostean belarrari buelta eman eta belarra etxera sartzten zuten. Sokekin zama handiak egin eta hola garraiatzen zuten belarra etxeraino, behiekin, karroan. Arantzazun belarra kabletik jaisten zuten. Nagusi onak tokatu izan zaizkio beti.

136. Eguraldia iragartzeko zeri begiratu (ARN-009/003)

Haizeari begiratu behar zaio. Haizea zein aldera doan, eguraldi bat edo beste eginen du. Haize hegoarekin euri gutxi egiten du. Eguraldiaren aldaketa gerrian nabaritzen du Joxe Marik. Haziendak etxera zihoazen denbora txarra egin behar zuenean, eta mendiruntz denbora ona eginen zuenean.

137. Okilak kantatzen badu, euria. Sugea ateratzen bada, eguraldi ona (ARN-009/005)

Arantzan bazen gizon bat zioena okila beltzak kantatzen bazuen euria segurua zela. Sugeak denbora onarekin baino ez dira ateratzen. Zizareak berriz, euri garaiean ateratzen omen dira. Armiamak ere euriarekin ateratzen omen dira. Inurri saldo aunitz ikusiz gero urte idorra eginen duen seinale.

138. Katua etxean laketzeko (ARN-009/007)

Kanpoko katu bat etxera ekarri eta bertan gera zedin laratzeari 3 buelta eman behar zitzaizkion.

139. Apaizen bedeinkazioa arrak bidaltzeko (ARN-009/009)

San Juanetan bedeinkatzen zituzten apaizek lurrak. Etxez-etxe pasatzen zen apaiza lurrak bedeinkatzen.

140. San Juan eguneko errana (ARN-009/011)

“San Juan xar, San Juan bien, sarna fuera, gaixtoa kanpora, ona barrenera”. San Juan bezperan esaten zuten hori, sua eginda, 3 aldiz salto egin baino lehen.

141. Eskolako kontuak (ARN-010/002)

6 urtetan egin zuen komunioa Juanek eta denbora horretan martxotik maiatza arte ibili zen eskolan dotrina ikasten. Gero neguan joaten ziren eskolara, hilabeteren bat. Neguan 100 bat haur egoten zen eskolan (Juanen adineko 22), maisu bakarrarekin. Maisuak ezin denei erakutsi eta herriko haurren bati esaten zion laguntzeko. Auzoetakoak herrikoen menean zeuden eskolan. Neskak beste eskola batean izaten ziren eta beste 100 bat izanen ziren.

142. Maisu - maistra (ARN-010/003)

Senar emazteak ziren. Maisuak maite izaten zuen ehizara joatea eta orduan maistra bidaltzen zuen mutikoengana eta neskekin jartzen zuen koinata. Maistrak beldurtu egiten zituen mutikoak.

143. Eskolara gutxi joaten ziren (ARN-010/004)

Urtean hilabete batez joaten ziren eskolara. Aitak nahi zuen haurrek ikas zezaten, baina amak ez zion garrantzirik ematen. Amarendako etxean lan egiten bazuten, aski zen. Haurrek ere ez zuten gogo handirik eskolarako. Etxeko lanak egiten ibiltzen ziren umeak. Juan 16 urterekin hasi zen lanean.

144. Zerran lanean (ARN-010/005)

3 anai aritzen ziren zerran. 3 zerralari kuadrilla zeuden eta kompetentzian ibiltzen ziren, zeinek merkeago egin edo zeinek hobe. Materiala zegoen tokian bertan zerratzen zen, mendian. Gero mandoarekin jaitsi. Oholak 10 zentimetrokoak izaten ziren. Etxerako baziren 3 zentimetroko taulak izaten ziren. Ohola handietarik, mandoak 2 edo 3 jaitsi zitzakeen. Nola zerratzen zuten azaltzen du. Plataforma baten gainean zerratzen zuten, 3 lagunuen artean.

145. Egurra mozteko kalkuloak (ARN-010/007)

Eskolan gutxi ibili eta kalkuloak egiteko orduan behartu ziren. Gauetz hasi ziren eskolara joaten. Kubikatzen ikasi nahi zuten eta irakasleak esan zien horretarako lehenbizi numeroak egiten ikasi behar zituztela ongi. Aitarekin ibiliak ziren biderkatzen eta zatitzen eta bazekiten horretan. Egurrak nola neurtzen zituzten azaltzen du.

146. Soldaduska (ARN-010/009)

Soldado joan zen 3 hilabetez. Zertan zekiten galdetu zieten eta Juan-ek kalkukoal egiten zekiela esan. Ez zekien erderaz. Sargentoak herra hartu zion. Erderaz ongi egiten zuen Lesakar bat bazen eta harek azaltzen zien zer egin behar zen. Sargentoa ohartu zen ez zutela nahita egiten eta baretu zen pixka bat. Eskola gutxi eta erdararik ez eta gauza asko keinuengatik ulertzen zituzten. Erdaldunekin nola moldatzen ziren. "Exceso de cupo" tokatu zitzaion eta bakarrik 3 hilabete egon zen.

147. Soldaduskako arropak (ARN-010/011)

Maniobretarako zamarra bat, kapela bat, bota pare bat eman zieten. Etxera joatean haiek entregatu behar zituzten bueltan. Euskara eta gaztelaren arteko kontuak.

148. Soldadutzan denbora gutxi egoteaz pena (ARN-010/012)

Gaztelera ikasteko aukera txikiagoa izan zuen. Mendiko lur eremu batzuekin tira-birak izan zituen Juanek eta gaztelera ez zekienez gaizki paratua atera zen. Gaztelera ikasteko aukera ona izanen zen soldaduska.

149. Gaztelera ez jakiteaz pena. Euskara-Gaztelera kontuak (ARN-010/014)

Juan da senideen artean gaztelera gutxien zekiena. Anaiak soldadu ibili ziren gehiago, Oiartzunen eta Artikutzan izan ziren eta han ere gaztelera egiten zuten... Anai baten semeak gaztelera egiten zion aitari, aita euskaraz erantzun. Aitari iruditzen zitzaion semeak euskaraz egiten ziola.

150. Donezteben eta Beran erderaz (ARN-010/015)

Gutxi joaten ziren Doneztebe eta Berara. Donezteben jendeak euskaraz egiten zuen dezente. Gazteluko lehengusuek, denek zekiten erdaraz, Doneztebera joan baitziren eskolara. Goizueta, Oiz, Ituren eta Arantza izanen ziren herririk euskaldunenak. Igantziri Madrid txikito esaten zioten erdaraz ongi egiten zutelako haien artean.

151. Kontakizuna: Hilzorian eta Jesus esan nahi ez (ARN-010/017)

Gizon bat bazen oso gaizki eta apaiza joan zen oliadura ematera. Oliadura eman eta azken sakramentua hartuta, "Jesus" esan behar zuela gaixoak. Eta gaixoak ezetz. Infernua berotuko zela. Beste lagun batek esan zion apaizari esanaraziko ziola. Zakur batek 6 kume izan zituela bota eta besteak: "Jesus, Jesus, hori ere pasa al da?"

152. Etxalarko gizonak ederrak dira (ARN-010/019)

Etxalarko gizonak ederrak dira, zizarea bezain lodiak eta kakalardoa bezain zuriak.

153. Bost herriak ongi moldatzen ziren. Pikea auzoen artean (ARN-010/021)

Ongi moldatu izan dira Bortzirietako herriak. Izaten zituzten elkarrendako txistek baina besterik ez. Auzoen artean bai izan da pike gehiago, burla egiten zioten elkarri.

154. Neskatan eta mutiletan (ARN-010/022)

Denak ibiltzen ziren kuadrillan. Neskak bezperetara joaten ziren San Jose ermitara. Neskak auzokoekin ibiltzen ziren. Neskak bezperatik itzuli eta akordeoia hasten zen ordurako. Juanek ez zuen dantzarik egiten, ez baitzen hasi, lotsa ematen zion. Arantzan akordeonista asko ziren 4-5, eta txandaka ibiltzen ziren. Neskak hasten ziren dantzan eta gero mutilak biltzen zitzaizkien. Ilunezkilean mutilek neskak laguntzen zituzten etxera, denak ordurako erretiratzeko baitziren. 2 auzoetako neskak elkarrekin ateratzen ziren, dendan arropaz aldatu eta ateratzeko prest! Faborez eskatzen zieten mutilek laguntzen ahal zituzten. Beste dendatik ateratzen ziren beste auzoetakoak, baten batek ezetz esan ezker. Auzo horretako mutilak ez ziren asko haserretzen, baina kanpotarra bazinen bai! Neskak kuadrilla handitan ibiltzen ziren, 30 bat lagun bai! Muxu ematea bekatu mortala zen.

155. Bertso bat: 3 neskatxa (ARN-010/024)

Hiru neskatxa zebiltzan kalean serio, mutilak neskatxari beti amorio, zirri egin diola batek omen dio, multa pagatu dugu hori dela medio”...

156. Apaizek bijilatzen zuten (ARN-010/026)

Apaizek bijilatzen zuten. Ilunezkilarako denek uzten zuten plaza eta bideetan ez zegoen horrenbesteko kontrolirik. Etxeetan, amek ere kontrolatzen zuten, agertu egiten ziren. Neska bat haurdun geratu ezker bekatu handia izaten zen. Behin neska bat haurdun geratu eta neska zahar bati galdetu zioten zer uste zuen: ojala gu ere hola ibili bagina!

157. Arantzan neskazahar aberats dezente. Ama solterak (ARN-010/028)

Arantzan neskazahar aberats geratu ziren. Ez zitzairen iruditzen pobre batekin ezkon zitezkeenik. Ama solterak ere baztertuak geratzen ziren betiko. Ama soltera bat ezkontzen bazen amabirjinari ez zioten ez lorerik ez argirik jartzen apaizak eta elizaren inguruko beste zenbaitzuek.

158. Amak berak umea bataiatu (ARN-010/030)

Amak berak bataiatzen zituen askotan aitarik gabeko haur jaio berriak. Ur bedeinkatua etxean eduki, eta harekin.

159. Musean aritzen zireneko kontuak (ARN-010/032)

Bereiz ibiltzen ziren normalean, baina elkartu ere elkartzen ziren. Herrian elkartzen ziren, musean esaterako. Bokadillo bat edo halako zerbait jokatzeko zuten. Ordaintzeko garaian, bokadillotan edo sosetan, izaten ziren ika-mikak. Ardo-jokoan ere aritzen ziren.

160. Trena eta tranbia egin zireneko bertsoak (ARN-010/034)

Gipuzkoara trena eta tranbia heldu zireneko bertsoak errezitatzen ditu Juanek, aitaren aitarekin ikasiak. Doinua ere kantatzen du.

161. Igeltsero lana Luzaiden. Harea errekatik (ARN-010/036)

Luzaiden lanean zirela, ibai ondotik hartzen zuten igeltsero lanerako harea, eta horretarako taula batzuk jarri zituzten lurrean. Gauzez ez zituzten kentzen eta guardiek esan zieten gauzez kentzeko.

162. Iturgin. Ura etxeetan jarri (ARN-010/038)

1956 artean ez zen urik Arantzako etxeetan, 4etan baino ez. 36 bat etxeetan jarri zuten ura. Bazen herrian beste iturgin bat baina ezin etxe guztietara heldu eta Juani plomua estainatzen irakatsi zion. Orduan hasi zen iturgin. Beste iturginari erosten zion materiala, gero Lesakan.

163. Ura sartu zelarik ze aldaketa izan zen etxeetan (ARN-010/039)

Beste bizi bat heldu zen. Lehen behekaldeetik ekarri behar izaten zuten ura baldeekin. Ez zuten komunarik, behien gorotz artean egiten zituzten beharrak. Ura sartu eta berehala hasi ziren komunak egiten. Dutzak oraindik ere 10-15 urte beranduago eginen ziren seguraski. Egunero dutxatzea arraro egiten zitzairen. Udan, igandeetan arrantzan joaten ziren eta orduan bainatzen ziren.

164. Gorputzaren garbiketa (ARN-010/041)

Oinak balde zabaletan garbitzen zituzten, baina batek erabiltzen zuen baldean han denak. Gero ur hori zerriendako erabiltzen zen. Aurpegia goizetan garbitzen zuten baina ur gutxirekin. Emazteek ile luzeegirik ez zuten izaten. Luzea bazuten bilduta eramaten zuten. Emazteek tarteka garbitzen zuten ilea, xaboiarekin. Lixiba egiten zutelarik, sobratzen zen urarekin garbitzen zuten ilea ere. Baita oinak ere. Zenbait bertso botatzen ditu Juanek. "Mutiko gaixtoek zer dute merezi? Urean beratu eta lixiban egosi".

165. Txirritaren bertsoak ijitoei (ARN-010/042)

Txirritak ijitoei jarritako bertsoak errezitatzen ditu Juanek

166. Txirritaren bertsoak (ARN-011/002)

"Txirritaren beste bertso batzuk errezitatzen ditu Juanek. "Mundu ontako bizi-modua Aste ontan Txirritak jarriak""

167. Gerra ondoa. Goserik ez (ARN-011/004)

Gerra ondoan ez zuten gose handirik pasa. Egiten zituzten gauzak aise saltzen zituzten. Hazten zituzten gauza asko ez zituzten jaten, saltzeko ziren: oilaskoa bestetan bakarrik jaten zuten, arrautzak ere gutxi... Baziren 4 bat trapitxero. Gauza batzuk garesti ziren: olioarengatik 16 duro pagatu izan zituzten, ez dendan, soldaduengandik baizik. Trukea egiten zuten militarrekin, olio arrautzen truke. Olio gutxi gastatzen zuten beraz, normalean urdaiarekin frijitzen zuten. Zerriak hiltzen zituzten, gaztainak biltzen... Kafe gutxi izaten zen ere. Azukre beltza izaten zen,

168. Pasadizoa - “Dos de bragueta, docena completa” (ARN-011/005)

Arantzatik bazihoan bat Endarlatzan beheiti saskia eskuan. Han gelditu zuten zer ote zeraman jakiteko eta horrek esan: “Un zerri buru, dos de morcilla, diez de arraultze, dos de bragueta, docena completa”

169. Trapitxeroak (ARN-011/007)

Trapitxeroek arrautzak pasa zituzketen Endarlatsatik, baina ez nahi adina. Gona azpian eramaten zituzten 6 dozena agian, eta saskian gutxi batzuk, erakusteko. Hura harrapatu zuten. Lesakan bazen esne-saltzaile bat eta hark arrautzak esne barruan sartuta pasatzen zituen. Hura ere harrapatu zuten.

170. Gaztak saltzen ziren. Zerriak ere bai (ARN-011/009)

Ez ziren orain bezalakoak, batzuk onak izaten ziren, baina besteak txarrak. Hala ere egiten zen gazta guztia saldu egiten zen. Urde amak Oiartzunen saltzen zituzten. Oiartzundik artoa ekarri eta zerriak eramaten zituzten. Lukainak ere saltzen zituzten. Zekorrek ere salerosten zituzten, batzuetan deklaratura eta besteetan ez, errekiatzuten baitzituzten.

171. Rekisa (ARN-011/010)

Zuek egiten zenituen gauzetatik estadoari entregatu behar zenion parte bat. Rekiakoak etorri gero ardi erituek eta halakoak ematen zizkieten. Ilarra ere ematen zieten. Ilar horietako batzuk mamorruak jaten zituzten eta horiek ere ematen zizkieten errekiakoei. Jendeak tranpa pixka bat egiten zuen, baina ez zen bijilantzia handirik izaten.

172. Erleak: erle motak (ARN-011/012)

Eultzetan bizi ziren, maiatza aldean hasten ziren betetzen. Badira erle klase ezberdinak. Batzuk poliziak dira eta horiek ausiki egiten dute. Zanganoak edo erle harrak, Santiagotarako agertzen hasten ziren. Abuztu bukaeran poliziek hegala mozten zizkieten erle alferrei eta erlauntzatik bidaltzen zituzten. Erleei buruzko bertso bat ere abesten du.

173. Erleak: erregina (ARN-011/014)

Erreginak ez badu familia aski hil egiten dute eta beste bat jartzen bere lekuan. Erleek ezagutzen dute haien erregina zein den. Bere sendiarekin mugitzen da.

174. Erleak: eultzak (ARN-011/016)

Gaztaina baten enborraren azala zartatu eta gero aienekin betetzen joaten zen ura, inguruan. Erdialdean zabalxeago eta izkinetan estuxeago. Behi kaka ematen zitzaion barrutik eta eguzkitan idortzen uzten zen. Bigarren kapa bat ere ematen zitzaion, eta kanpotik batzuetan igeltsua. Erleak erakartzeko astamenda erabiltzen zen eultzeari usain ona emateko.

175. Erleak: eztia (ARN-011/018)

Erlea ateratzeko ez zuten erlea hiltzen, edo oso gutxitan. Berexka zaharrak kendu behar ziren, bestela gaitza etortzen baitzitzaion eultzeari (har mota bat). Urrian jasotzen zuten eztia. Batzuk mendira joaten ziren erle bila, eta horiek bai sufreakin hiltzen zituzten. Badira eultzean jo eta eskapatzen diren erleak, horiek ez dira bertakoak. Besteak ausiki egitera ateratzen dira.

176. Erle bila mendira (ARN-011/019)

Erreka bazterrean edo iturri txikitan bizi dira gusturago erleak, eguzki aldean. Erlea ikusi eta erlauntza topatzen bazen, arbolaren gerrian gurutze bat egiten zen zuhaitza markatzeko. Hori errespetatu beharra zen.

177. Erleen umea tokiz aldatzeko (ARN-011/021)

Erlauntzan jotzen zuten gogortua ote zegoen ikusteko. Erlauntza zapi batean hartu eta tokiz mugitzen zuten.

178. Erlea deitzeko, bertan Maria (ARN-011/023)

Erlea ez da mukuru joaten, denak joaten dira banaka. Erle bat ikusi eta "Bertan Maria" esan eta erregina geratzen bada, beste denak atzetik etorririko dira ixtantean. Batzuetan erlauntzarekin harrapatzen ahal ziren errez, bestela makil baten laguntzaz sartzen ziren erlauntzean. Erregina erlauntzean bada, denak sartuko dira, baina kanpoan geratu bada, denak aterako dira berriz. Lekua bilatua bazuten lehendik ere martxa egiten dute, ez badute lekurik, geratu.

179. Erleek gidariak izaten dituzte (ARN-011/025)

2-3 erle ibiltzen dira leku bila. Erreginak horiei segitzen die. Antzineko zaharrak lurra tiratzen zieten erleei gidariak hil ezker, besteak han geratzen baitziren. Erleei ere txistu egiten zitzaaien erlauntzan sartzeko.

180. Erleak ausiki egin ezker (ARN-011/026)

Erleak ausiki egin ezker listua eta lurrarekin ore bat egin eta horrekin igurtzen zen azala. Ausiki aunitz izaten bazituen batek, ez ziren handitzen, gorputzak bere defentsak izaten zituen, baina alergiaren bat bazuen lagun horrek, oso txarra izaten zen.

181. Erleak. Sinesmenak (ARN-011/027)

Etxean norbait hiltzen zenean, erleengana joaten zen norbait eta argizaria egiteko eskatzen zitzaaien. Erlauntzan 3 kox-kox jo eta argizaria egiteko eskatzen zieten. Bestetik, erleak ezin ziren saldu. Eztia eta argizaria saltzen ziren, baina erleak ez. Oparitan eman bai. Argizaria nolakoa izaten zen: gogorra eta beraxeagoa.

182. Eztia eskuz egiten zuten eztia. Mostilloa. Argizaria (ARN-011/028)

Berexkak hartu eta eskuz estutzen zituzten eztia ateratzeko. Hura harizko trapu baten gainean jarri eta handik ere estutzen zen, eztia garbitzeko. Geratzen zen berexka hondarrarekin mostilloa egiten zuten. Ogi irinarekin nahasi eta egosten zen. Mostilloa egiterakoan, argizaria gainaldean geratzen zen.

183. Gaztain baikuntza (ARN-011/030)

Gaztain denboran ez zen libre haziendak kanpoan, gaztaina artean ibiltzea. Denuntziatu egiten zuten jendea horregatik. Aziendaren jabea preso eraman eta multa pagatu behar izaten zuen. Auzoan errespetatu egiten ziren eta ez zuten iskanbilarik izan horregatik. San Migeletan izaten zen hori, uzta bukatu arte.

184. Gaztainek martxo arte aguantatzen zuten (ARN-011/031)

Gaztainek martxo arte aguantatzen zuten, baina klase bat sotoan sartzen zen morkotxarekin eta maiatza hondarrera arte aguantatzen zuten horiek.. Bestela zainak ateratzen zitzaizkien eta ez ziren jateko. Mugitu behar izaten ziren, sotoaren hezetasunaren arabera ere zimeldu egiten zirelako. Apirilean buelta ematen zitzaien ikusteko nola zeuden. Maiatzera arte jaten zuten gaztaina.

185. Bertsoa - Arantzako ministro... (ARN-011/033)

Arantzako agintariei jarritako bertsoak.

186. Bertsoa - Mina gorrik jarri diote izena... (ARN-011/035)

Igantziako harrobiari buruzko bertsoak, Iñarburu deituak jarritakoak.

187. Arruzpiko mairu-zuloa (ARN-011/037)

Arkupe handi bat dago arruzpin eta gero beste zulo bat. Han bizi omen ziren mairuak, sorginei deitzen zieten mairu. Arratseko 12etan batek ikusi omen zituen mairuak arropa garbitzen. Bertsoa botatzen du.

188. Lehenagoko neurriak (ARN-011/039)

Besoa: hatzetatik ukondorako neurria zen. 56 zentimetro. 7 oin, 182 zentimetro. Haziendak neurtzeko "cuerda" edo soka bat erabiltzen zen. Gaztainak erroboekin neurtzen ziren. Errobo-erdia eta gaitzurua ere erabiltzen ziren neurri gisa. Beste gauzak pisatzeko liberak 5 libera t'erdi, 2 kilo. Kiloa 12 ontza. Pisu erromatarrak erabiltzen zituzten.

189. Denda-parrokia (ARN-011/041)

Jendeak bere puskak saltzera eta eroztera eramaten zuten tokiari (dendari) parrokia deitzen zioten. Beste dendakoa ateratzen zitzaien bidera esateko ia zertarako beste dendara joaten zen. Konpetentzia handia zuten 4 denden artean. Denden izenak aipatzen ditu.

190. Hamarrenak eta primiziak (ARN-011/043)

Etxe bakoitzeko 100 errobo arto biltzen baziren, 10 errobo elizari eman behar zitzaizkion. Dotrinak esaten zuen.elizgizonei bizitzeko laguntza eman behar zitzaizela.

191. Eliza barreneko antolaketa (ARN-011/045)

Etxe bakoitzak bere eserlekuak zituen, bere hilerrria. Argizaria pizten bazen urte osoan ordaindu behar zen eta gastu dezente egiten zen. Lehenago elizan lurperatzen zuten jendea. Aulkietan esertzen ziren eta han jartzen ziren belauniko ere emazteak.

192. Misioak.Pasadizoa (ARN-011/047)

Kanpoko apaizak misioetara etorri eta sermoia ematen ari eta emazte bat negarrez. Hurrengo egunean berdin. Apaiz bizarduna emaztearengana joan eta ia zergatik egiten ote zuen negar. Emazteak erantzun zion, ahuntza bat galdu zuela zuela gutxi eta bere antza hartzen zola eta horregatik.

193. Astoa eta apaiza, pasadizoa (ARN-011/049)

Lehenago jendea astoarekin joaten zen eta astoek soka hozkatu eta eskapatu egiten ziren batzuetan. Behin gizon bat apaizarekin gurutzatu eta sermoia entzuterako joateko esan zion. Gizonak ezetz, astoa eskapatzen zitzaiola. Apaiza esan zion berak lotuko zuela ongi astoa eta jaungoikoak zainduko zuela. Sermoian ari zen apaiza eta esan zuen, hementxe gure artea da jaungoikoa, eta gizonak orduan. Ederki dago nere astoa orduan!!!! Eta joan zen.

194. Gizonak eta emakumeak elizan (ARN-011/051)

Gizonak ezker aldean kokatzen ziren eta emakumeak eskuinaldetik. Komunioa hartzeko-eta ere berdin, bi lerrotan joaten ziren.

195. Txisteak - Sakramentuak, Joxemari 6. pisutik erori, doble ikusten zuen mozkorra (ARN-011/053)

Mutiko bati konfirmatzeko garaia heldu eta apaizak galdetu zion zenbat sakramentu ote ziren. Lehenago zazpi ziren orain bakarra ere ez, mutikoak erantzun. Aitona oso gaizki zegoen eta esan zuten apaizak azken sakramentua eman ziola eta beraz, jada ez da bakarra ere geratzen! Bestea: Joxemari 6. pisu batetik erori eta apaizak esan zuen zeruen zegoela. Hori duk hori errebotea! Mozkortua etxera joan, eta doble ikusten zuen, etxeetara deika ia emazteren batek senarra faltan zuen...

196. Aita santuaren txistea (ARN-012/001)

Aita santuak gidatzeko gogoia izan eta berak gidatuko zuela esan zion txoferrari. Izugarritzko auto kola egin zuen atzean eta guardiek gelditu. Ikusi aita-santua zela, belauniko jarri eta paso eman dio. Beste guardiak galdetu: nor zen ba? - Jaungoikoa bera behar zuen, aitasantua zuen txofer!!!!

197. Apaiza eta neskatoa. Txistea (ARN-012/003)

Apaizaren opor garaia zen eta auzolanean ekarri behar zioten egurra. Zerbait eman beharko diegu langile hauei. Neskatoak esan zion gazta bazuela eta ogitartekoak eginen zizkiela. Beti badago xebrereren bat eta urrezko burruntzaliak bazituen apaizak eta egun hartan bat faltatu zitzaion. Sukaldean egondako langileak ebatsi ote zuen eta neskatoak esan zion xelebrea bai, baina mutil hura ez zela lapurra. Galdetuko ziola. Galdetu zion eta oraindik ez duzu bilatu? Beraz, oraindik ez duzu zure ohean lorik egin!!!!

198. Txistea. Apaiza ehiztari (ARN-012/005)

Eperrak ehizatzerako lagun batekin joan eta afaltzera gonbidatzen du gizonak apaiza. Han emaztearekin gertatu zena.

199. Apaiza eta urdaiazpikoak. Txistea (ARN-012/006)

Apaizaren urdaiazpikoei buruzko txistea. Bazko eta Erramutarako zirela eta nola ebatsi zizkieten bi xeblek neskatoaren zozokeriaz baliatuta.

200. Txistea. Artzaina eta neskatoa (ARN-012/008)

Neskatiko bat gustora egoten zen artzain batekin baina ez zekien xuxen zergatik. Gurasoek ez zuten nahi neska artzain harekin izaterik, pobreago zelakoan. Neskak hori ezan zion artzainari. Gelako leihoa irekita uzteko eskatu zion artzainak eta gero gerokoak...

201. Arto kontuak (ARN-012/010)

Artoa urria hasieran ipurditik mozten zen eta gero denak bildu. Bihurrekin lotzen ziren gero. Horri mozorroa deitzen zioten. Mazal-astoa ere deitzen zitzaion horri, eta behiei ematen zitzaien. Artoaren parte guztiak probesteko erabiltzen zen hura. Txirrixta lehenago egiten zen. Arto hostoa behiendako zen jateko, lastairak egiteko ere bai. Koltxoi moduko bat zen artoaren xurikinarekin betetzen zena.

202. Hilabeteak euskaraz eta urtaroak (ARN-012/011)

Ilbeltza, Otsaila, Martxoa, Apirila, Maiatza, Garagarrila, Uzta, Abuztua, Buruila, Azaroa eta Abendua. Primabera, uda, udazkena eta negua.

203. Asteko egunak (ARN-012/013)

Asteko eguna bortzirietako euskeraz

204. Kardatxa sua pizteko (ARN-012/015)

Pagoari adarra usteltzen bazaio kardatxa haste zaio ateratzen. Hura egosi, sikatu eta sua egiteko oso ona zen. Egosi gabe ere sua egiten zuen. Brasakin pizten zen hura, baina edozein txisparekin su hartzen zuen hurak. Bazkotan su berria etxera ekartzeko erabiltzen zen kardatxa hura. Su zaharra kanpora ateratzen zen, leihotik.

205. Gauetan sua tapatzen zen (ARN-012/017)

Brasen gainean enbor bat jartzen zen eta gero brasa haiek hautsekin tapatzen ziren. Su hori ez zen gauean itzaliko.

206. Txondorra pizterakoan zer egiten zen. Txondor egitea (ARN-012/018)

Txondorra egiterakoan eta sua barrura sartzerakoan, pala bakoitzari gurutzea egiten zioten. Juan aritu izan da txondorra egiten. Plaza zelaitu, egurrak kokatzen ziren, goian arbaztak, eta egur gero eta txikiagoak. Gaineratik orbela eta gero lurra. Goitik sua botatzen zen eta gero egur xehea bota behar izaten zen noizean behin eta sua zirikatu. Inguruan hainbat zulo izaten zituen txondorrek suak arnas zezan. Laino gisako kea atera behar zuen txondorrek, bestela ez zen ongi. Juanek gaztainarekin egiten zituen txondorrek, baina pagoa eta haritza ere erabiltzen ziren. Pagoa zen egurrik onena. Gaztainak zartakoak egiten ditu. Arotzek maite dute gaztaina.

207. Txirritaren hainbat istorio eta bertso (ARN-012/020)

Txirritak zituen zenbait ateraldi kotatzen ditu Juanek. Zer moduz Txirrita? Ez dakit zergatik egiten didazu bixita! Holako hainbat kontaktzen ditu, baita bertso osoak ere.

208. Kantuak (ARN-012/022)

Txirritaren bertsoez gain bestelako kantuak kantatzen zituzten. Errezitatzen ditu batzuk: "Ez da munduan gizonik...", "Ikusten duzu goizean...", Aitatxirekin ikasi zituen kantu aunitz zeri hiltze garaian. .

209. Bertsoak. Neska haurduna (ARN-012/024)

Haurdun geratu zen neskatxa bati buruzko bertsoak . Arantzan gertatuak behar direla dio.

210. Bertsoak. Neskazarrenak (ARN-012/026)

Neskazarren bertso batzuk

211. Xenpelarren bertsoak (ARN-012/028)

Xenpelarrenak izan behar diren bertso batzuk

212. Bertsoak: aizak mutil mainontzi (ARN-012/030)

Xenpelarren bertso famatuak

213. Xenpelarren bertso gehiago (ARN-012/032)

Lezoko herriari buruz Xenpelarrek botatako bertso batzuk. Beste ezberdin batzuk ere.

214. Apaizaren bertsoak eta gehiago (ARN-012/034)

Bertso sorta handi bat erreztatzen du Juan-ek, apaiz bati buruzkoak eta gehiago.

215. Baserrietan tabikeak jartzen ziren oholekin (ARN-012/036)

Gelan goitik behera langa batzuk jarri eta urritz makilekin egiten ziren hesiak. Gero gainetik kisua eta lurrarekin egiten zen morteroa. 2 aldeetatik eman, eta tabikea egina zegoen. Halako pareta asko egoten zen. Goroldio eta kisurarekin ere egiten ziren, Zubietan adibidez.

216. Txirritaren bertsoak 79 urtetan (ARN-012/038)

79 urte zituenean zeuzkan minez kexatzen zen Txirrita bertso hauetan.

217. Txirritak bertsoak frantsesei (ARN-012/039)

Harrobian lanean ari ziren frantses alfer batzuei Txirritak jarritako bertsoak

218. Elizako erranak (ARN-012/041)

Elizako zenbait erran luze esaten ditu Juanek. Latinez ere erreztatzen du Juanek.

219. Santa Barbararen historia (ARN-012/043)

Suaren defendatzailea zen Santa Barbara era bere historiari buruzko kontu hau. Ekaitza zenean Santa Barbarari erreztatzen zitzaion.

220. Santa Genovevaren historia eta bertsoak (ARN-012/044)

Santa Genoveva santuaren historia kontatzen du Juanek. Berari buruzko bertsoak ere botatzen ditu

221. Igande arratsaldeak (ARN-013/001)

Errosariora joaten ziren edo Novena egiten bazuten, hara ere bai. Gero plazak akordeona egoten zen eta dantzari aritzen ziren. Salvador Madariaga "Iñarburu" izaten zen akordeonista (Leitzarra?). Apaizak gelditzeko esaten zion. Iluntzerako joaten ziren etxera, ilunezkiak jotzen zuenean.

222. Ilunezkila (ARN-013/002)

Ilunezkiarekin emakumeak etxera joaten ziren, gizonak ez. Gizonak akaso ostatura. Neska laguna zuena, neska laguna laguntzera. Emakumeak ez ziren ostatuan sartzen.

223. Eguraldi txarra bazen dantzaldia estalpean (ARN-013/003)

Udalaren azpiko "gorapean" egiten zuten dantzaldia eguraldi txarra bazen. Bestela plazan. Neskak neskekin eta mutilak mutilekin ibiltzen ziren.

224. Arantzako ostaturia (ARN-013/005)

Familiak eramaten zuen Arantzako ostaturia. Juanita jaio zenerako bazen dagoeneko. Ardo eta sifoiak eta zerbeza ematen zituzten gehiena. Bokadilloak ere saltzen zituzten. Bazkariak eta afariak ere prestatzen zituzten. Jendea ez zen orain bezala kanpora jatera ateratzen. Freskagarriak ere bazituzten eta Iruñetik ekartzen zituzten. Egunero izaten zen irekia baina igandetan jende gehiago ibiltzen zen. Gizonak musean aritzen ziren ostatuan. Ostaturia nola zegoen egituraturia kontatzen du.

225. Amak Donostian ere egiten zuen lan (ARN-013/007)

Donostian zerbitzen aritzen zen Juanitaren ama. Handik ekartzen zuen ostaturako behar zutena, baita jakiak ere, eta gero ostaturian lan. Legatza, usoak, ahatea... prestatzen zituen. Usoak nola prestatzen zituzten kontatzen du.

226. Xuri beltzak (ARN-013/008)

Lehen gehiago prestatzen ziren orain ez baita apenas zerririk hiltzen. Nola prestatzen zituzten azaltzen du.

227. Ostaturian katua prestatzen zuten (ARN-013/010)

Gisaturia, bakailua saltsan... prestatzen zuten ostaturian. Baita katua ere! Hil eta egun batzuk utzi behar zen xamurtzen eta gero gisaturia egiten zuten. Zaragozako emakume bati esan zioten untxia zela, eta hurrengo egunean katua zela jakitean: "ai, ai, ai me va a arañar!" Oihuka hasi zen.

228. Sifonaren inguruko istorioa (ARN-013/012)

Etxeko 2 aitona tabernan beste lagun batzuekin eta batzuek ardoa eskatu zuten eta beste batek ardoa sifonarekin. Denei ardoa atera eta baten kexa: "nik sifonarekin eskatu dizut". Zerbitzariak ardoari tragoa eman eta sifona bota zion orduan.

229. Anisa eta euliak (ARN-013/013)

Bazen bazkalondotan ostatura anisa edatera joaten zen bat eta behin 2 euli erori zitzaizkion basoan. Esan zien: "Agarraos las patas que vais de viaje" eta basoa edan zuen euli eta guzti.

230. Aitonak galletak ematen zizkien. Ez zen autorik (ARN-013/014)

Ezkutatutako galletak ematen zizkien aitonak bilobei. Bazkaltzera jaisten zen herrira baina baserrian bizi zen. Oinez joaten zen baserrira ez baitzen autorik. Bere alaba ere lanetik mezara eta berriz lanera ibiltzen zen oinez.

231. Autobusa noiz jarri zuten (ARN-013/016)

Aita gazte zelarik jarri zuten autobusa eta Igantziko bentaraino baino ez zen heltzen hasieran. Gero Donostiraino hasi ziren joaten. Goizeko 7etarako ateratzen zen lehenengoa eta jende asko ibiltzen zen. Herri guztietarako mandatuak egiten zituzten, Donostira heldu eta ez ziren gelditzen. Arraina ere ekartzen zuten. Autorik ez zenez jendean asko erabiltzen zuen autobus hura. Txikia zenez ondo-ondoan joaten ziren eserita. Nolako autobusa zen azaltzen du. Puskak goian eramaten zituzten, asko. Saltzaileak joaten ziren eta saltzekoa autobus gainean eramaten zuten.

232. Anaiak arropak erosten zituen (ARN-013/017)

Dendetara joan eta ezagutzen zuten dagoeneko. Paketeak egin eta ekartzen zituen Arantzara. Gustuko zituztenak saldu eta besteak bueltatu egiten zituen, eta saldutakoak ordaindu.

233. Antiojoen istorioa (ARN-013/018)

Patziku bista begiratzera joan eta betaurrekoak kristalik gabe jarri zituenean: "ederki ikusten dut orain" bota omen zuen! Hura bukatu eta amak segitzeko esan zion Patzikuri. Bista gaizki zuen eta beste emakume bati segika hasi zen.

234. Kontrabandoa autobusean (ARN-013/020)

Ez zen askorik egiten. Autobusa salatu zuten bazuelako mantekilla fresko eramateko kutxa bat eta jendeak uste zuen kontrabandorako zela.

235. "Cerdo menor de edad" (ARN-013/022)

Beste batean zerrikume bat zeramaten autobusaren goiko aldean. Guardiak begiratzen hasi eta zer ote zeramaten galdetu zuten eta batek erantzun: ah, nada, un cerdo menor de edad". Guardiak ere barre egin zuten. Bazekiten Arantzan ez zela kontrabando handirik izaten, baina hala ere beti begiratzen zuten. Billetea ere bakoitzari ematen zieten eta salbokonduktoa behar izaten zuten Nafarroatik Gipuzkoara pasatzeko.

236. Jendea autobusa gainean joaten zen (ARN-013/024)

Feriak zeudenean jendea autobusaren gainaldean joaten zen. Esaterako Lesakako merkatura. Hamabostean behin egiten zuten. Biren lekuan 3 joaten ziren eta sapaian ere joaten ziren batzuk. Autobusak zer bidai egiten zituen azaltzen du. Jendea Lesakako, Igantziko eta Berako festetara joateko ere erabiltzen zuen autobusa. Autobusik ez bazen, oinez. Ezpartin zaharrak zuhaitz batean uzten zituzten eta dantzarako berriak ipintzen zituzten.

237. Herrian fama (ARN-013/026)

Aranztarrak harrikalariak omen dira, baina Juanitak ez daki zergatik. Igantziarrek erdaldun fama, Madrid txikito esaten zioten Igantziri.

238. Emakume kontrabandistak (ARN-013/028)

Juanitaren amona bere amarekin Frantziara joaten ziren bajillak erostera "La chica" izenekoak. Doneztebera eraman behar izaten zuten. Zaldia eta karroa eramaten zuten. Ama zaharrarekin joaten zen, horrela geldituko ez zituztela pentsatuz. Baina guardiek halako malda batean gelditu. Amonak esan zien lautadara heltzean geldituko zutela. Lautadara heltzean gurdien eskuan zigorrarekin jo, animaliei ere bai eta azkar batean alde egin zuten. Doneztebera heldu ziren eta buelta autobusean egin zuten, biak tapatuta eta ez zituzten harrapatu. Amonaren familiak abereak ere pasatzen zituen. Baziren guardia zibilak erosteko adina diru zuenik. Hauek abereak besteen atzean pasatzen zituzten, ordaindu gabe.

239. Kontrabandoan zer pasatzen zuten. Dirua eta trukea. (ARN-013/030)

Puntilla, galtzerdiak, "medias de cristal"... pasatzen zituzten. Dirurik ez zenez, askok kontrabandoan pasatzen zutenarekin ordaintzen zuten. Hala ordaintzen zion batek Juanitaren amari. Ez zen dirurik izaten orain bezala. Ostatuan berriz ordaindu egiten zuten. Dendetan batzuk apuntatzeko eskatu eta hilabete bukaeran ordaintzen zuten. Beste batzuek arraultz edo oilaskoekin ordaintzen zuten, haziendarekin. Jendea fabriketan lanean hasi zenean, orduan asko aldatu zen kontua.

240. Misiolariak eta zapaten istorioa (ARN-013/032)

Misiolariengana joan zen bat konfesatzera eta apaizak esan: "zapatutik zapatura konfesatzen zarela zu? - ez jauna, ni ezpartinekin!" Misiolariak frantziskanoak ziren: Etxeberria eta peñagarikano abizenekoak. Misioetan astebetetz sermoiak ematen zituzten, ostiraletan konfesioak hasten ziren. Bi-hiru urtean behin izaten ziren. Sermoiak oso gogorrak izaten ziren. Dena zen bakatua eta jendea izutua bizi zen orduan.

241. Gerra denbora: Aita San Cristobalen (ARN-013/034)

"Gu gerra denboran ginen rojuk". Eskolan izutuak egoten ziren esaten bzitzieten hilko zituztela. Aita, osaba, koñatua, medikua eta sekretarioa bertotan egiteko elkartzten ziren. Euskaldun eta gorri izateagatik gartzelan sartu zituzten San Cristobalen. Han bazen Arantzako soldado bat eta egunero begiratzen zuen fusilatu ote zituzten. Guardia Zibilak herriko apaizarengana joan zen erreferentzia bila. Apaizak esan zien oso pertsona onak zirela. Apezkikuak ere ongi hitzegin zuen haien gainean eta askatu zituzten. Aita sasoi batean etxetik eskapatzeko prest izan zen.

242. Bandera errepublikarra eta ikurriña (ARN-013/036)

Hiri bat hartzen zutenean mezetara jendea espainiako banderarekin joaten zen oihuka: "animo pues que la victoria es nuestra". Juanitaren senideak (haurrak) errepublikarrarekin edo ikurriñarekin joaten ziren. Arratsaldean alguazila "albintea" etxera joan zitzaizen amari esateko haurrei bandera horiek kendu eta erretzeko.

243. Erremedioak (ARN-013/038)

Pleuresiarendako Verbena belarrarekin egindako tortila jartzen zion amak lehegusuari. Pusa garbitzen zuek horrek. Katarroarendako eta zauriendako ere erabiltzen omen zen enplasto hori. Katarroarendako ere ardo egosia erabiltzen zuten. Zizareendako baratxurien ura.

244. Ohatzera joateko orazioa (ARN-013/040)

Ohera joaten zirenean esaten zuten orazioa botatzen du euskeraz: "Gure jaungoiko maitea, eman diguzu egun on bat pasatzeko grazia..."

245. Agurrak (ARN-014/001)

Ohera joatean edo esnatzean senideak nola agurtzen zituzten.

246. Gurasoekiko ohiturak (ARN-014/003)

Denek bazuten haien toki finkoa sukaldeko mahaiean (orain ere bai) eta aitari errespetu berezia izaten zitzaion, zerbitzeko garaiean. Amarekin aiseago hitzegiten zuten aitarekin baino.

247. Arre arre mandoko - Talotxin (ARN-014/005)

Haurrendako bi abesti horiek abestu egiten ditu Juanitak

248. Zozketa egiteko kantuak (ARN-014/007)

Minttini-manttana eta Gaztainak gora-behera kantuak erabiltzen zituzten zozketak egiteko.

249. Mina kentzeko kantua (ARN-014/009)

"Senda mina, mutxurdina..." Umeak min hartzen zuelarik, mina azkar pasatzeko hori kantatzen zioten.

250. Zimiko berri (ARN-014/011)

Arropa berria estreinatzen zuenean baten batek zimiko egiten zioten "Para que rompas con salud" esaten zuten edo "Zimiko-berri".

251. Lamia kontu bat (ARN-014/013)

Gauaz emakume bat haria egiten ibiltzen zen eta Lamia joaten zitzaion baratxuri zopa eske. Gauero berdin. Egun batez emakumearen senarra geratu zen haria egiten eta zoparen ordeztu, ur irakina bota zion. Sorgina ez zen gehiago itzuli.

252. Urteko bedeinkazioak (ARN-014/015)

Kandelaria egunean kandelak bedeinkatzen ziren. Zerbait pasatzen zenean horiek pizten ziren Jesusen bihotzaren ondoan. Eguraldi txarra zenean ere bai. San Blasetan janak bedeinkatzen ziren, eztarria ongi izateko. San Anton egunean bedeinkatzen ziren haziendak. Pentsua bedeinkatzen zuten eta gero hura haziendari ematen zioten jateko.

253. San Juan bezpera (ARN-014/016)

Suak eta saltoak egiten zituzten. Sanjuanxarreko iturriaren urarekin garbitzen zituzten eurpegiko bikorrak eta trapua han uzten zuten. Horrekin joaten omen

ziren pikorrak. San Juan egunean loreak bedeinkatzen ziren, baita erramu egunean ere. Etxean jartzen zituzten tximistarik ez sartzeko.

254. Errezua (ARN-014/018)

Errezu bat botatzen du Juanitak

255. Gerrako kontuak (ARN-015/001)

Gerra garaian txikia zen eta aitak kontatzen ziona gogoratzen du. Herritik gertu bonba bat bota zuten. Bi anai zaharrago zituen eta horiek soldadu eraman zituzten 18 urte bete zituztenean. Anaia bat mandazaina zen eta segituen jarri zuten mandoa eta karroarekin, frentean ez zen egon beraz. Hilak eramatea tokatu zitzaion. Irun bonbardatu zutenekoa gogoan du. Soldaduek eskaparate hautsietatik gauzak hartzen zituzten. 7 urte eman zituzten soldadu.

256. “Batallón de trabajo” delakoan ibiltzen zirenak (ARN-015/002)

Lesakan eta Irunen ikusi izan zituen errepublikar presoak lanean. Herriko batzuek Iparraldera ihes egiten zuten.

257. Makiak (ARN-015/004)

Makiak izaten ziren Arantza inguruan ere. Mendaur inguruan ikusi zituen, metralletak erabiltzen zituzten. Zenbait baserritan jatekoa ematen zieten, baina guardiak eta soldaduak abisatu zituzten. Denak atxilotu zituzten.

258. Gosea (ARN-015/005)

Irun aldean gose asko pasa zuten. Kamioneta zahar bat ibiltzen zen baserrietatik puskak biltzen, Irun aldekoentzat. Arantza inguruan horrenbeste goserik ez baina miseria handia pasa zuten. Gerra garaian rekisak egin izan zituzten: ardiak, bildotsak...

259. Desertoreak (ARN-015/006)

Anaia batek 3 urte soldadu pasa ondoren iparraldera alde egin nahi izan zuen, desertore. Behin hara modu ilegalean pasata ezin ziren bueltatu. Denbora luzera aukera eman zieten itzultzeko. Aunitz ez ziren etorri. Desertoreak itzultzen baziren kartzelan sartzen zituzten.

260. Eskolara gutxi joaten ziren (ARN-015/007)

Baserrian lan egin behar izaten zuten eta gutxi zihoazen eskolara. Behiak uztarrian eramaten zituzten, goldearekin. Artoa jorratu egiten zuten ere. Eskolara pixka bat joaten ziren, neguan. 14 urtera arte ibili zen eskolan. Ume aunitz egoten zen eskolan gainera. Maisu batendako ume asko ziren eta ezin ongi ikasi. Maisuek ez zekiten euskaraz eta ikasleek gaztelera gutxi. Euskaraz egin ezkerro zigortzen zituzten.

261. Maisuen seme-alabek euskaraz ikasi zuten (ARN-015/008)

Maisuen seme-alabak herriko gazteekin ibiltzen ziren eta euskaraz ikasi zuten. Pilotan ere aritzen ziren.

262. Mendian lanera (ARN-015/009)

15 urterekin Artikutzan hasi zen lanean, urtegia eraikitzen. Masa egiten zuten, karretila eraman... Mendian ere ibili zen arpanarekin zuhaitzak botatzen, ez baitzen motozerrarik. Egur eta ikatz asko behar zen orduan, zentral gutxi eta txikiak baitzeuden. Ez zen plantxa elektrikorik esaterako, sutan berotu behar zen.

263. Oihaneko lana (ARN-015/010)

Egurra bota, txikitu, kamioira igo, ikatza egiteko plazak egin... Egurra bizkarrean garraiatzen zuten. Ikatza egiteko plaza nola egiten zen azaltzen du. Ikatza zertarako erabiltzen zen: fabriketan, autobusendako, kamionendako... Ikatza mandoekin jaisten zuten herrira. 8-10 lagun aritzen ziren txondorrean.

264. Txabolak eta jatekoa (ARN-015/012)

Haiek eginak izaten ziren. Langa, txapa eta hosto idorrekin. Kamañak orbelarekin egiten zituzten. Lo egiteko binaka ipintzen ziren, manta bat udan, eta bi neguan. Sua ere izaten zen. Sukaldaria izaten zen eta zer prestatzen zien jateko: Babak, ilarrak... Urdaiazpikoa, sardin-zaharrak... ere jaten zituzten. Idiei jatekoa eman behar izaten zieten goizeko 4retan.

265. Kontrabandoa (ARN-015/014)

Arropa pasatzen zuten. Nylon-a ere bai. Iparraldetik Etxalar-era pasatzen ziren, handik Sunbillara, Sunbillatik Arantzara. Bide kaxkarrenetatik joaten ziren. Eratsun eta Labaienekoei pasatzen zieten merkantzia. Beste batzuetan Iturendarrei eta berehala autoetan kargatu.

266. Guardiakin komeriak (ARN-015/015)

Guardiak bordetan ezkututzen ziren. Behin borrokaldia izan zuten Guardia Zibil batzuekin. Kontrabandistetako bat zauritu zuten, tiro eginda. Etxalarreko sendagileak sendatu zuen (konfiantzazkoa baitzen).

267. Paketeak kendu zizkietenekoa (ARN-015/017)

Mendian altoa eman eta lasterka hasi ziren aldapan behera. Paketea utzi ezker ez zuten gehiago jarraitzen. 4 pakete galdu zituzten orduan.

268. Seinaleak kontrabandoan (ARN-015/019)

Elkarri abisatzeko seinaleak izaten zituzten. Txistu batzuk eta joare txiki bat ere eramaten zuten.

269. Kontrabandoa: behorrak, jatekoa, bordak... (ARN-015/020)

Behorrak eta zaldiak erabiltzen zituzten paketeak erabateko. Udaletxeko behor batzuek erabiltzen zituzten eta horiekin ez zuten arazorik Guardiakin. Behorrekin errazagoa zen karga eramatea. Kopetakoa ere erabiltzen zuten. Sasoi onean behar zuten lan hori egiteko, horretarako jatekoa garrantzitsua zen. Bordetan lo egiten zuten batzuetan.

270. Zer merkantzia eramaten zuten. Portugesak (ARN-015/021)

Iratzargailuak, piezak, motoreak... horiek fabriketarako ziren. Haria ere bai, arropa egiteko. Arropa josia ere bai. Botikak ere pasatzen zituzten. Alkohola ez. Portugesak ere pasatzen zituzten. Nondik nora egiten zuten bidaia. Harrapatuz gero, Portugalera itzultzen zituzten.

271. Portugesen kasu bat (ARN-015/022)

Oiartzundik Arantzara eramaten zituzten, gauez iparraldera pasatzeko. Guardia Zibilak konturatu ziren hortaz. Guardiiek altoa eman zieten, baina eskapatzea lortu. Herrian agertu ziren portugesak. Portugesak pasa behar zituen mutila desterratu zuren Arantzatik urtebete.

272. Gazteleraz eta euskaraz (ARN-016/002)

Eskolan eta soldaduskan ongi ikasi zuten gazteleraz. Zenbait hitzekin arazoak dituzte euskaraz, esaterako, hilabeteak gazteleraz esaten ditu Koxmek.

273. Soka zeri deitzen zioten (ARN-016/004)

Esaterako, Portugesei iparraldera pasatzen laguntzen zietenean, kuadrilla batek Oiartzunetik Sunbillara eramaten zituen, besteak Sunbillatik iparraldera... Guardiiek harrapatu zizkieten bordak eta txabolak (lotura puntuak). Nola antolatzen zen soka mailaka: nagusiak, peoiak... Nagusien istorioak. Kontuak nola eramaten ziren, herriko telefonistari ere ordaintzen zioten. Espiak ere bazituzten.

274. Lesakako fabrika (ARN-016/006)

1960. urte inguruan Fabrika jarri zuten Lesakan eta han hasi ziren lanean. Orduan bukatu zen kontrabandoa. Hasieran ez zuten askorik kobratzen baina horrekin eta baserriko lanarekin aski izaten zuten. Jende aunitzek lan egiten zuen fabrikan.

275. Dirua zutenek soldaduska gertuago egiten zuten. Soldaduskako peripeziak (ARN-016/007)

Batzuk Iruñera baina dirua zutenek Igantziko bentan egiten zuten soldaduska. Etxera itzultzen ziren egunero. Denborarekin Igantzitik soldaduak bidali eta Koxmeri Madrilen tokatu zitzaion soldaduska egitea. Eskola onekoak ofizinan egoten ziren, gainontzekoek instrukzioa egin behar izaten zuten. Lanean ere aritzen ziren eta gero jan-edanean gastatzen zuten. Soldaduskako lagunak.

276. Alemanen abioia erori zenekoa (ARN-016/008)

Espainiako gerra pasata, gertu erori zen Alemaniarren abioi bat. 7etako mezara zihoazen eta orduan erori zen. Berriz gerra hasi zela pentsatu zuten. Koxmek 14 bat urte izanen zituen. Hegazkina erori zen tokira joan eta alemaniarrei lagundu zieten, bai eta haiek lagundu zieten ordaindu.

277. Kisua (ARN-016/009)

Baserri guztietan egiten ziren kisuak. Harriz kargatu labea eta hura ere erre egiten zuten. Harria samurtua geratzen zen. Baserrietatik joaten ziren erosleak. Etxeak zuritzeko balio zuen, uretan urtua.

278. Zenbat kisulabe Arantzan (ARN-016/011)

la etxe guztietan izatenz ziren kisulabeak. 50 bat. Normalean labe handiak izaten ziren. Lurrarentzako ere ongarria zen. Gizonek bazekiten noiz egin zegoen kisua. Harrobiak ere izaten ziren eta kartutxoekin ateratzen zuten harria. Baserri bakoitzak urte batean egiten zuen kisua (urte bakoitzean 3k edo) eta auzolanean egiten zuten kisua erre. Bazkaria eta afaria egiten zuren egun hartan, ardikiarekin.

279. Inauteriak Arantzan (ARN-016/012)

Gerra ondoren ez zen libre inauteriak egitea. Alkateari eskatzen zioten baimena eta ixil samarrean egiten zituzten. Baserriz baserri ibiltzen ziren akordeonistarekin eta etxeetan jatekoa ematen zieten. Egund batean baserritan ibiltzen ziren eta hurrengoan herrian. Herrian gutxiago biltzen zuten. Arraultzak dendekoeri saldu eta dirua lortzen zuten juergarako. Gaberako bukatu behar zuten festa. Ostatuan dantzan ibiltzen ziren bertako neska zerbitzariarekin.

280. Lehenagoko inauteriak (ARN-016/013)

Baziren danbor eta txistu jotzaileak. Dantza-luzea dantzatzen zuten ere. Gerrarekin amaitu zen hori. Gero ibili ziren dantzan ere, baina ez zuen inork ere erakusten. Orain bai, txikitatik hasten dira. Mozorro zuriak izaten ziren, zuriz jantzita, noski. Zapi gorria, txapela gorria... Mozorro beltzek denetarik jantzen zuten. Jendeari builaka aritzen ziren. Kanpoko herrietatik ere joaten zen jendea.

281. Mozorroei burla (ARN-016/014)

Mozorro cinco, cuarenta y cinco... egurra ematen zieten haurrei. Orain antzekoak dira inauteriak, baina ez dute horrenbeste jotzen. Lehenago ere koloretako jantziak zituzten pertsonaia batzuek. Ze mozerro klase zeuden azaltzen du eta ze gaiztakeriak egiten zituzten.

282. Arantzako bestak (ARN-016/015)

Festa onak izaten ziren. Erreteriko banda eramaten zuten Arantzan jotzera 4 egunez. Jende asko elkartzen zen herrian. Afal aurrean eta afal ostean izaten zen musika. Dantzan ibiltzen ziren plazan. Orain jendeak ez du dantzarik egiten. Oraingo festak nolakoak izaten dira. Beste herritako familia joaten ziren bazkaltzera.

283. Amerikanoren bat etorrita, egun bat gehiago festa (ARN-016/017)

Amerikatik etorritako dirudunen batek egun bat gehiago festa ordaintzen zuen.

284. Apaizen beldur (ARN-016/019)

Apaizei beldu handia izaten zioten. Sermoi ikaragarriak botatzen zituen. Neskaren bat haurdun geratzen bazen, berehala ezkontarazten zituen, goizetik, baina ez zioten lorerik jartzerik uzten. Konfesioa egin ezean buila ederrak egiten zituen apaizak.

285. Apaizak landak bedeinkatu. Sakristaua eta serora (ARN-016/020)

Baserriz baserri landak bedeinkatzen zituzten. Bazkari ederrak ematen zizkieten apaizei horregatik. Sakristaua diru bila joaten zen baserriz baserri. Serorak dirua biltzen zuen elizan. Apaizek arrak bidaltzen omen zituzten errezu aginda.

286. Apaiza ikustean zer (ARN-016/021)

Ave Maria purisima esan behar zitzaion eta txapela kendu. Norbait hiltzear zegoenean eta apaiza ikustera zihoanean, apaizarekin elkartu eta belaunikatu behar izaten zuten.

287. Bazkoz egitea (ARN-016/022)

Dotrina ongi esan behar zuten apaizak txartela emateko. Gero konfesatu. Eta gero komunioa hartu ahal izateko. Arrebak oso ongi zekien dotrina eta berak erakusten zien nebei ongi.

288. Mariaren alabak eta apaizaren zigorrak (ARN-016/023)

Neskak hijas de Maris-en sartzen ziren eta apaizak ez ziren lotuta dantzatzen uzten. Sueltoan bai. Dena zen bekatu mortala. Sermoiak izugarriak izaten ziren. Beldurra izugarria izaten zen. Ilun ezkila jo orduko etxera. Apaizak neskaticoak zigortu egiten zituen, aldarean belauniko jarri eta amabirjinari barkamena eskatu. Mutikoei jo egiten zieten.

289. Eskaleak (ARN-016/024)

Eskale aunitz izaten zen. Limosna ematen zieten. Batzuk lan egiten zuten eltzeak konpontzen. Bordetan lo egiten zuten. Astoarekin eta karroekin ibiltzen ziren. Gero desagertu egin ziren.

290. Arantzako dendak. Baserritarrekin harremana (ARN-017/001)

4 denda zeuden Arantzan eta erdi denda erdi ostatua zen bat. Baserritarrek ez zuten beti dirurik izaten eta orduan adibidez aretxe bat saltzarekin zorra ordaintzen zen orduan. Baserrietan urte guztiko artoa bazegoen salbatuta zeuden. Artoa jo, irina egin eta hirin txarra txerriari ematen zitzaion. Dendakoei saltzen zizkieten oilaskoak edo bildotsak adibidez, ez zituzten berehala ordaintzen. Baserritarrek libreta batean apuntatu behar izaten zuten zein zen dendak zor ziena. Dendetakoak oso ongi bizi ziren hala. Beti geroko uzten zuten zorra.

291. Gaztainak (ARN-017/002)

Gaztaina asko zegoen Arantzan. Aita gaztainak txertatzen ibiltzen zen eta hartara fruitu hobea ematen zuen zuhaitzak. Gaztaina aunitz saltzen zuten. Gaztainen garaian egiten zituzten abarkak, artilezko galtzerdiak, alkandorak... orduan ateratzen zuten diruarekin. Gero gaztaina bukatu zen. Gaitz handi bat bazuen gaztainak baina bestela ere biltzeari utzi zioten. Gaztainak biltzeko 4 errubo erabiltzen zituzten astoarekin. Errubo bakoitza 24 kilo.

292. Pisuak (ARN-017/003)

Pisua ez zen erromatar horietakoa. 2 gantxo zituen, bata makil batean lotzen zen eta bestea zakuan. Horrela zakuak neurgailua tiratzen zuen behera eta

pisua neurtzen zuen. Oso zuzena zen. Dendan baskula zuten. Horrez gain 2 plateretzko pisua ere, orratza erdian eta pisu txikiekin orekatzen zena. Denda batean amarrua egiten zieten. Paper lodia kafearekin batera pisatu eta gero paper puska bat kentzen zieten, baina berdin kobratu.

293. Dendakoak oso ongi bizi ziren baina gero okertu ziren (ARN-017/004)

Amarruekin eta ongi bizi ziren dendakoak, baina bidea okertu zitzairen halako batean. Eskola pixka bat ikasi zenean, (lehenago jendeak ez zuen asko ikasten, lana zela eta), papera bat erabiltzen zuten aldiro baserritarrek kontuak eramateko, ez baitziren dendakoez fidatzen. Astean behin kontuak egin eta orduan hasi zen dendakoen bizia aldatzen. Lanean hasi behar izan zuten orduan, jendea esnatu baitzen.

294. Denden arteko kompetentzia (ARN-017/006)

Bazen denda bat non udaleko kontribuzioak ordaintzen ziren. Denda horretakoek mota guztietako gaztainak erosten zituzten, handiak nahiz txikiak eta ordaintzen zuten diruarekin, baserritarrek kontribuzioa ordaintzen zuten. Beste dendakoak bijilatzen egoten ziren, zeinek saltzen zituen gaztainak beste dendara. Pikea zuten.

295. Albolba (ARN-017/008)

Artoa nola bildu eta zuritzen zuten azaltzen du. Albolba nola prestatzen zuten ere. Dendakoei albolba saltzean izan zuten ika-mika bat ere kontatzen du.

296. Dendakoen izaera maltzurra (ARN-017/010)

Amak pixka bat abandonatua zuen mutiko bat dendara mandatuetara joan eta galdetu zioten: zer Joxe Benito ama etxean da gaur? - Bai. - Banekien etxean zela, aurpegia ez dizu garbitu eta amantala ere zikin ekarri duzu!!! Esan zioten denen aurrean. Dendakoak holako gaiztoak omen ziren. Gazteluko beste mutiko bat dendara joan dirurik gabe eta amak apuntatzeko esan ziola aipatu zien dendakoei. Apuntatu, apuntatu... eta disparatu noiz egin behar digu? Erantzun zioten dendakoek.

297. Aratxea hil arte ezin pagatu (ARN-017/012)

Baziren aratxea hil arte zorrak pagatu ezin zutenak. Aratxea hil eta orduan pagatzen zieten dendakoei, agian dena ere ez, baina zorra bajatzen zuten. Etxe gehienetan ere zerria hiltzen zen. Gaztainerekin hazten zituzten. Zerriak ere saldu egiten ziren, 5-6 zerri, eta diru harekin ere pagatzen ziren kontuak.

298. Erremedioak. Anginak, katarroa, pleuresia... (ARN-017/014)

Anginetarako malbabiskoa. Landarearen zain txuriak irakin, ura iragazi eta gargarak egin horrekin. Ardo egosia ere erabiltzen zen, azukrearekin. Katarroarendako, muxarra izeneko animaliauren urina zartagin batean urtu eta hori bularrean eta bizkarrean ematen zuten. Pleuresiarendako berbena izeneko belarra erabiltzen zuten. Olio pixka batekin zartagin batean erre, xehetu eta arrautzearen zuringoa ere botatzen zitzaion. Tortilla moduko bate egiten zen eta trapu batean biltzen zen eta gerri inguruan jartzen zuten. Medikua bera harritu zen behin berbena enplasto horren eragin onaz. Antton Maizek eskuetan jartzen zituen berbena tortillak eskuak deskantsatzeko. Zaurietarako eta gangrena ekiditeko gangrena belarra erabiltzen zuten, egosi

eta haren ura edateko. Gaztainekin ziztatu, ubeldu eta gangrena belarrarekin osatu zen.

299. Sugeak ausiki ematen bazuen (ARN-017/016)

Etxean ez zuten behin ere egin, baina bazen errezo bat. Lehenbizi ausiki egin zuen tokian ebaki behar zen gurutzea eginda. Zauria urarekin ongi garbitu eta gero aitagurea errezatu aitzinetik gibelera.

300. Ahoko infekzioentzat erremedioa (ARN-017/017)

Disiplatua bazuten ahoa (flemón edo ahoko infekzioa), zera egiten zuten. Ura irakiten jarri lurrezko eltze batean, arto pikor batzuk, erramu hostoa ere bai, eta gogoratzen ez duen beste zerbait. Ondoan jartzen ziren orrazi bat, aitzurrak eta beste zerbait. Dena palangana batean jarri eta ateratzen zuen lurruna arnastu beharra zen.

301. Gangarrilak eta zingirioa (ARN-017/019)

Bildotsei gangarrilak (ganglioak) puzten zaizkie. Pertsoneri ere puzten zaizkie eta bazen errezu moduko bat horiek sendatzeko. Errezua esaten du Martinak. "Gangailak suan zirt-zart" . Esne asko zuten amek izaten zuten zingirioa bularrean, adibidez. Martinak izan zuen zingiria bular batean, esnea hoztu eta gogortu baitziztaion (sukarra ere izan zuen). Ahizpak bularra berotu eta ahoarekin atera zion esne txar hura.

302. Igortz minak (ARN-017/021)

Eskumuturrean mina ematen zuten. Koinatua aritzen zen igortz minak ateratzen. Hagitz min handiak ematen zituen. Eskumuturra igurtzi behar izaten zen fuerte, olioarekin. Sufritzen zen asko, baina kentzen zen. Orain operatu egiten dute.

303. Barizela (astana larria) sendatzeko (ARN-017/023)

Zerrien gorotz idor gainean iraulka ibili eta sendatzen zen astana larri hori.

304. Sanjuanxarreko iturriko ura sarnarentzat eta karitxentzat (ARN-017/025)

Sarnarendako, Sanjuanxarren badira 3 iturri eta 3etatik edan behar zen eta gero ur horrekin sarna den tokian igurtzi, trapu garbi-garbi batekin. Gero trapua han utzi beharra zen. Iloba batek bertako urarekin garbitu zituen karitxak eta denak joan zitzaizkion.

305. Animalientzat txitxainmariak (Izainak edo sangijuelak) (ARN-017/027)

Orain tentsioa esaten zaio, baina lehenago animaliei odol kolpea etortzen zitzaizkion izainak edo txitxainmariak erabiltzen ziren odola zurrupatzeko. Oihalezko zaku batean sartzen ziren eta horrekin gorputzeko parte batean jartzen ziren. Odola tiratzen zuten eta horiekin sendatzen zen orain tentsioa esaten diogu hori. Pertsonekin ere erabiltzen ziren.

306. Ur zorria edan ezkerro, pertsonen pixa (ARN-017/029)

Erreketan izaten dira ur-zorriak izeneko bitxo batzuk. Ura edatean horietako bat edan ezkerro, horiek sabelean hiltzeko pertsonen pixa hartu behar zen, izugarritzko sabeleko mina ematen baitzuten. Honi buruzko pasadizo bat kontatzen du.

307. Erremedioak. Belarriko minarentzato leizarraren ura. Trupesiarentzat errezuak (ARN-017/031)

Leizarraren (fresno) adarra sutan berotu eta halako apar bat ateratzen zitzaion. Hori erabiltzen belarriko mina sendatzeko. Trupesiarekin sabela handitu egiten da eta ezin izaten da jan. Igantziko emazten batek errezuekin sendatzen omen zuen gaitz hori.

308. Erremedioak. Arantza ateratzeko eta zaurientzat. Mingaineko legarrentzat. (ARN-017/033)

Ebakbelarriarekin egiten zen, gaineko azalarekin. Sun ondoan beratzen zen. Ona zen arantzak kanpora tiratu eta zauriak sendatzeko. Mingaineko legarrendako giltza batekin arraskatu egiten ziren. Beheko suko laratzarekin ere igurtzen zuten mingaina, legarra kentzeko.

309. Ertularentzat erremedioa (ARN-017/035)

Hatzeko mina izaten zen ertula, oso mingarria. Ebakbelarra erabiliko ote zen pentsatzen du Martinak. Gero ur irakinetan hatza sartu eta atera.

310. Erremedioak, zizareentzat, kalenturarentzat... (ARN-017/037)

Haur koxkorrek zizareak izaten zituzten batzuetan gorpuzkinetan. Horiek kentzeko zizare belarra egosten zen eta hura edan. Horrekin hiltzen ziren. Kalenturarendako kotoia bustitzen zen alkoholetan, bi besapeetan jarri eta horrek ere aunitz jaisten du tenperatura.

311. Sorginak Arantzan (ARN-018/001)

Antonio izeneko gizon batek zuen sorgin fama. Emaztea zuen, Jexepantonia izenekoa. Gizona hil zenean emazteari eman omen zizkion sorginkeriak. Umeei esaten zieten norbaitek esan ezkerro: Nik utzi nituenak, zuk hartuko dituzu? Ezetz esateko, bestela sorginkeriak pasatzen baitzizkizun. 15 egunero merkatuak izaten ziren Donezteben, Elizondon, Lesakan. Beste gizon batekin joan zen merkatura Antonio sorgina eta bueltan, pixka bat esertzeko eskatu zion. Lokartu zen Antonio eta ez esnatzen, ahospez zegoen. Belea heldu zen eta beste gizona buelta eman zion Antoniori esna zedin. Ahoa ireki zuen batean belea sartu zitzaion ahotik. Hori kontatzen zuen beste gizon hark.

312. Joxepantonia sorgina katu bihurtuta (ARN-018/002)

Martinaren senarra bordaluzekoa zen. Ezkontzeko bezperan, arratsaldean katu bat atera zitzaion bidean. Sorginak behin jo behar dira, bestela gehiago bizkortzen direlako. Beraz, senarrak ostiko handi bat eman eta bideti beheiti bidali zuen katua. Joxepantonia asko joaten zen haien etxera eta biharamunean zerriei bazka emanez erori zela zioen, izterrean ubeldua zuelako, baina Zipriano senarrak uste zuen berak emandako ostikadaren ondorio zela.

313. Ama alabak sorginak (ARN-018/004)

Alaba neskatxa eta ama alarguna, biak sorginak. Neska horrek mutila zuen. Mutila gau batez neskaren etxera joan zen afaltzera abisatu gabe eta ez zuten deus afaltzeko. Lo belarra eman zioten mutilari, zizailuan etzan eta Zaragozara joan ziren hegan "hodei guztien gainetik eta larre guztien gainetik" afatzeko mutiko baten bila. Sorginetako bat tronpatu eta Hodei guztien azpitik eta larre guztiek azpitik" esan eta larrutua itzuli zen. Mutila esnatu eta ez zien mutikoa hitzen utzi eta berak hazi zuen.

314. Emagina eta sorginak (ARN-018/006)

Sunbillako etxe batean sorgin fama zuten. Haurra jaio beharra zen eta emagina joan zen laguntzera. Ohartarazi zioten, fama hori zutela baina ez zitzaiola deus gertatuko eta operari ona izanen zuela trukean. Joan zen beraz. Haurra jaiotzen lagundu eta bukatutakoan urrezko txarrantxa bat eman zioten. Etxera joatekoa zelarik esan zioten bidean mota guztietako musikak entzunen zituela baina behin ere ez atzera begiratzeko. Bide guztia egin zuen atzera begiratu gabe, baina etxeko atera heldu zenean, erdia sartua zen atarian, atzera begiratu eta txarrantxaren erdia desagertu zitzaion.

315. Boz bat mendi erdian (ARN-018/007)

Senarraren atautxiri beste au gertatu zitzaion. Musean ari zen Sunbildarrekin. Aranztar gehiago bazen eta ia joanen ote ziren herrira, berandu baitzen. Partida bukatu nahi eta besteak joan. Bukatu eta lasterka hasi zan herrira buru, baina boza bat entzun zuen: "Gizon, lasterka joaten ahal zara baina ez dituzu lagunak harrapatuko, aurrerago daude dezente". Orduan bai izutu zen! Ez zuen berriz Sunbillako bide hura bakarrik egin behin ere.

316. Lamiak Anibarren (ARN-018/009)

Anibarren senar-emazteak bizi ziren bakarrik. Maria emazteak lihozko haria egiten zuen. Lamia etortzen zitzaion tximinitik beheiti gantza pixka baten eske. Lamiarekin nazkatu eta gau batean senarrak jarri zituen emaztearen jantziak eta zartagin bat bete zuten olio erakinez. Lamia heldu eta esan zion - Hi ez haiz pirrin-pirrin, y porron-porron haiz... Nola duzu izena? Eta gizonak erantzun: "Nehor nire buru" eta olio irakina bota zion eta Lamia garraxi batean alde egin zuen. Gainontzeko lamiengana joan eta galdetu zioten ia zeinek egin zion hura: - "Nehor nere buruk". Lamiak bere buruari egin bazion, zeini eman kulpa?

317. Lami eta sorginen arteko ezberdintasunak (ARN-018/010)

Lamiak zuloetan bizi omen ziren. Sorginak pertsona bat izaten ahal zen sorginkeriekin. Lamiak zibilizatu gabeko jendea izaten ziren. Gauetz ebasten zuten eta hortatik jan. Norbaitek lamiak ikusi zituen ilea orrazten. Harri baten gainean, eguzkitan, batak besteari ilea orrazten. Sorginak pertsona normalak ziren, sorginkeriak hartuak. Animalia bilakatzen ziren batzutan: katu, asto, bele...

318. Argatako neskatxa (ARN-018/012)

Argata baserrian bazen neskatxa hagitz eder bat. Ilea ondulatua zuen... Telebisorik ez zenez, astean behin edo etxe batekoak bestekoekin biltzen ziren, kafea hartzeko, solas egiteko... Ura bukatua zen etxe batean eta apostua egin zuen, baietz subila (ura garraiatzeko ontzia) bakarrik ekarri

12etarako. Etxetik atera eta berehala tximiniatik erori zen subila eta neskaxaren ilea. "Subila eta ilea zuendako, neskaxa guretako", lamiak hartu zuten seguraski eta ez zen gehiago agertu.

319. Antonio txikia (ARN-018/014)

Lehenago baserrietan batasun handia zegoen elkarri laguntzeko. Artoa biltzeko adibidez, beste etxeetako lagunak joaten ziren laguntzera. Antonio, Martinaren anaia oso grazioso zen. Labana txiki eta kamustua zuen lanean aritzeko bezala eta kendu behar ziotela eta halako erantzun irragarria eman zien Antonio txikiak.

320. Antonio sorgindua (ARN-018/015)

Antonioren arreba txikia jai eta 3 emakume joan zitzaizkien bisitan. Antoniok 2 urte zituen eta denek ibili zuten besoetan eta... Emakumeak etxera joan zirenean eta mutikoak arratsaldean "ama" esan behar zuela eta ezin esan. Beste hitz batzuk ere ezin zituen esan. Urrietara joan ziren umeak sendatzeko egiten zuten meza batera. Mutikoari kandela bat eman eta han ziren beste kandela batzuk ere hautsi zituen. Ebanjelioak ematen hasi ziren eta emakume bat ziribuztanka (itzulipurdika) hasi da eta arropa guztiak zikin eta ileak nahastuak eta... sorginkeria omen zuen barnean. Antonio txikia han sendatu zen.

321. Sorginak eta Lamiak nola desagertu ziren (ARN-018/016)

Apaizak edo obispoak konjuratu egin zituen hainbat urteko. Lihoaren hazia oso txikia da eta errubo batean sartzen diren hazi guztien adinako urterako konjuratu zituzten sorginak eta lamiak.

322. Apaizen bedeinkazioa (ARN-018/017)

Apaizek landak bedeinkatzen zituzten. San Migel herrira etortzen zenean, oinez heltzen zen oinez Sunbillatik eta Arantzako apaiza eta zinegotziren bat bide erdira atera eta haiek laguntzen zuten herrira. Gauza bera Igantzitik bazen. Aita udaletxeko kargoa zuten eta joaten ziren San Migelengana seme-alabak eta ziebarekin. San Migelen despedidan meza egiten zen eta landak bedeinkatzen ziren herriari buelta emanda. Haize eta erauntsietatik babesten zuen. San Juan inguruan ere apaiza eta monagilloren bat ibiltzen zen etxez-etxe landak bedeinkatzen. Animaliak ere egun horretan herrira ekartzen ziren bedeinkatuak izan eta gaixotu ez zitezten. Bi apaiz ziren eta Arantzako 4 auzoetan egiten zituzten bedeinkazioak, 2 egunetan. Egun bakoitzean baserri batek ematen zion bazkaria apaizari. Bildotsa edo oilaskoa ematen zioten.

323. Telefonoa Arantzan (ARN-018/019)

Arantzako telefono publiko bakarra Oteizaren dendan zen. Telefonoz deitzen zelarrik jende guztiak aditzen ahal zuen dena. Urmenetaren bitartez, 30 baserrian telefonoa 30 baserrian jarri ezker 750 pezetako deskontua egiten zuten. Dendakoek hori jakin eta Urmenetari erantzun zion inor ez zuela telefonorik nahi Arantzan. Esteban Irigoien apaiza Iruñean egon zenean hura jakin, herrian galdetu eta 60 etxeetan eskatu zuten telefonoa. Herriko etxean ere jarri zuten bat publikoa., estankokoek hartu zuten bere ardura. Telefonista bat zegoen eta ez zen numerorik sakatu beharrik ere. Hori ongi zegoen pertsona zaharrendako. Gero automatikoak jarri zituzten, zuzenean deitzeko etxetik zentralitatik pasa gabe. Horrek 5000 pezeta kostatu zituen.

324. Apaizei oparia bedeinkazioengatik (ARN-018/021)

apaizak etxeetara bedeinkazioak egitera joaten zirelarik, opariren bat egiten zieten. Gehienek gazta bat. Onena irudi zuena apaizarendako izaten ziren. Auzo batek 22 etxe zituen, beraz 22 gazta. Gaztarik ez zuenak oilasko pare bat, edo oilo eder bat, edo arrautzak...eta gainera baserrian bazkaldu.

325. 2 apaizak auzoetara elkarrekin (ARN-018/022)

Esteban Irigoien eta Javier Urrutia apaizak auzoetara biak elkarrekin joaten ziren bedeinkazioak egitera. Beraz ez 2 egunetan, baizik eta 4etan. Sakristaua eta beste lagun batekin ere joaten ziren. 4Rei eman behar izaten zieten bazkaltzen eta gero apaizek pikea izaten zuten musean. Behin gizon bat besterik ez etxean eta Martinari esan zioten Urrutiarekin jokatzeko. Nola egiten zion berak keinu apaizari? Ez zuen nahi baina jokatu zuen. Lotsatuta ez zion aurpegira begiratzen. Apaizak esan zion begiratzeko eta keinu emateko.

326. Sakristauak etxez-etxe eskean (ARN-018/024)

Sakristau eskea egiten zuten sakristauak eta artoa biltzen zuten. Behorreakin pasatzen ziren eta saski batekin artorik onena ematen zitzairen. Batzutan andrearekin ere joaten ziren eta jateko zerbait ere ematen zieten etxean. Hori izaten zen sakristauaren jorjala. Norbait hiltzen zenean edo bataioetan ere laguntzen zuen sakristauak eta horregatik izaten zuen jorjal gisa artoa biltzeko aukera.

327. Ardi eskea (ARN-018/026)

Norbaitek artaldea egin nahi bazuen, ardi eskea egiten zuten eta artantxuak (lehen urteko bildotsak)

328. Baserri aldaira. Bazka eskea (ARN-018/027)

Baserri batzuk hustutzen zirenean familia zenbait Frantziara edo ameriketara joan zirelako, baserri kaxkarragoetan bizi ziren familiak aldaira egiten zuten baserri hartara, maizter. San Martinetan, azaroan. Ezkoingaiak ere etxea behar bazuten eta etxe huts batera joatekoak baziren, bazka eskea egiten zuten, lastoa-eta... behien oheak egiteko.

329. "Minttini-manttana" (ARN-018/029)

Gaztainak zuritu, danbolinean erreta, eta bakoitzak bere egurrezko oporrean jartzen zituzten. Eskuetan gordeta hartu eta besteek zenbat zeuden asmatu behar zuten, kantatuz: "Minttini-manttana, sobera barbara, betea" edo "Zaldun kortin, pipitx kortin, zenbaten artin" eta esku horretan zenbat gaztaina zeuden asmatu beharra zen. Gaztaina diferentzia ordaindu behar zion batak besteari.

330. Toberak (ARN-018/031)

Neska bat espozteko zenean, pregoia egitera heltzen zen apaiza. Neska horren etxean bazkaria egiten zen, pregoi-bazkaria. Ilunabarrean auzoko neska-lagunak txokoloatea hartzera gonidatzen ziren. Geroago mutilak heltzen ziren toberak jotzera akordeonakin eta dantzak izaten ziren. "San Martin de la monja, monja de san Martín, tobera jo dezagun, birjina Mariakin. Oi ai, jantzirik dago, bi almodarekin, nobia izateko nobio jaunakin". Atea ireki eta denak sartzen ziren etxean. Festa egiten zen ondotik. Auzokoek jotzen zituzten toberak. Ez bazen bi auzo ezberdinetako ezkongaiak ezkontzen zirela.

Lutoa bazen ez ziren joaten. Batzutan plazan ateratzen zen merendua, toberak jotzera ez joateko etxera. Alarguna esposten bazen joareak jotzen zizkieten gazteek.

331. Haurrak etxean jaiotzen ziren (ARN-019/001)

Medikurik gabe jaiotzen ziren, etxean. Emaginak izaten ziren laguntzeko. Bere etxeko zenbait emazte izan ziren emaginak. Plazenta (haur-ondokoa) azkar samar kendu behar zen. Emazte bat hala hil zen. Emaginak eramaten zuen haurra bataiatzera. Ama jaio eta ez zuen esnerik izaten berehala eta orduan ura azukrearekin ematen zioten haurrari, maindire puntan bustia.

332. Haurren arropak (ARN-019/003)

Lehenbizi mauka luzeko atorra erabiltzen zuten txikiek. Gero troxak izaten ziren, benda gisako bat, haurra gorputzera pegatua izateko. Pañal bezala oihal lodixeago bat jartzen zuten. Denak garbitu behar ziren, etxeetan ez zen urik izaten,

333. Elizara sartzea (ARN-019/005)

Haurra jaio eta ama etxean izaten zen indarrak hartzen, baina ezin zuen kalera atera elizan sartu bitarte. Ahizparen batek eramaten zuen haurra elizara eta ama ere bai. Apaiza abisatzen zen eta piztutako kandela bat eramaten zen. Elizan sartu aitzin kalera ateratzen baziren teila paratu behar zuten buruan.

334. Auzokoen bisita amari (ARN-019/006)

Parienterik hurbilenak etxera agertzen ziren oiloekin. Izaten zen bisita eguna ere, emazteak joaten ziren "Atso bisita" esaten zitzaion horri. Egun hortarako bazkaria egiten zen, oiloa hil, bildotsa erre...Aguardiente txuria eta aguardiente gorria eramaten zuten, azukrea, txokolatea, tomate latak, ardoa... bakoitzak eramaten zuenaren portzioa azaltzen du. Amari haurra jaio eta berehala oilo salda ematen zioten bizkortzeko, kina ere ematen zioten.

335. Kafea nola egiten zen lehenago (ARN-019/008)

Larazetik zintzilik izaten zen "neskatoa" izeneko aparato bat. 3 pata zituen eta ipurdi bat. Kazua gainean jarri ezker ezin zen irauli. Han egiten zen kafea eta hondarra ez zen botatzen. Bestealdi batzuetarako ere balio zuen. Kafeari buruzko pasadizu bat bere familian. Ez zen kafeari botatzeko aski azukre eta sakarina erabiltzen zuten. Estraperloz ekarria hura ere. 2-3 goilara azukre eta 6-8 sakarina ematen zitzaion kafe katilu handiari. Ogi xigortua egiten zuten kafean bustitzeko. Aguardientea ere edaten zuten kafearekin.

336. Hilabeteen izenak euskaraz (ARN-019/010)

Ilbelta, Otsaila, martxoa, apirila, maiatza, garagarrila, uztaila, abuztua, buruila, urrirua, azaroa eta abendua.

337. Zotal edo xorte egunak eta ilargiaren eragina (ARN-019/011)

Abuztuan izaten ziren, lehen egunak. Egun horiek nolakoak ziren, igual samar egiten zuela abuztua, iraila eta urrian. Zer nolako denbora eginen zuen jakiteko egunak izaten ziren. Aunitzetan eragina omen zuen xorte egun horiek. Ilargiak ere eragina zuen. Gauza asko egin behar izaten ziren ilberan: patata erein, artoa ere bai, egurra botatzeko... Zerria hiltzeko ere ilargiari begiratzen

zitzaion. Ilberan hitzen zen. Ardiei ilea ilberan mozten zioten. Ardiei noiz botatzen zitzaien aharia, ez zen beti libre.

338. Sua ez zen behin ere itzaltzen (ARN-019/013)

Beheko sua izaten zenean ez zen behin ere sua itzaltzen uzten. Brasak biltzen ziren eta hautsarekin tapatzen ziren ongi, palarekin. 3 gurutze egiten zitzaizkion su horri eta pala gainean paratzen zioten. Aita beti jaikitzen zen lehena eta beti pizten zuen berak sua. Hautsa kendu, brasak agertzen ziren eta arbasta batzuekin berehala pizten zen sua. Gero egun txikiagoak eta ondotik handiagoak..

339. Bazkotan su berria eta ur berria (ARN-019/014)

Bazkotan ur bedeinkatu berria ekartzen zen etxera. Arboleak izaten zuten itsasita "kardatsa" izeneko sasi batzuk. Holakoak bildu eta su berria pizten zen arratsaldean. Kardatsa horiekin elizan. Su zaharra atera eta kardatseekin su berria sartzen zen etxera. Oraindik ere Arantzak etxeren batean egiten dute su berriarena.

340. Ogiaren inguruko sinismenak (ARN-019/016)

Ogia lurrera erortzen bazen hartu eta muxu ematen zitzaion. Ogia hasteko ogiari gurutzea egiten zitzaion atzealdean eta muxu ematen zitzaion ere.

341. Gonazpikoa ageria bazuen neskaren batek (ARN-019/018)

Neskaren bati gonazpikoa agertzen bazitzaion gona azpitik, bere mutila beste norbaitekin zebilela esaten zen.

342. Muskerrak lepora jauzi eginez gero (ARN-019/020)

Muskerrak lepora jauzi egin eta ausiki eginez gero, 5 herrietako ezkilak jo arte ez omen zen askatzen.

343. Erbinudea kolpatu ezkerro arroparik maiteena jaten zizun (ARN-019/022)

Beste siniste bat: Erbinudea (comadreja) harriz kolpatu ezkerro arroparik maiteena jaten zizun.

344. Bi pertsonak gauza bera esan ezkerro batera, purgatoriotik anima bat ateratzen zen (ARN-019/024)

Bi pertsonak gauza bera esan ezkerro batera, ostiralez, purgatoriotik anima bat ateratzen zen

345. Difuntoei buruzko sinismenak: Ontza eta erleak (ARN-019/026)

Uste hori bazen, ontzak etxe baten ondoan kukurruku eginez gero, etxe horretan azkar samar norbait hilen zela.. Etxe batean norbait hil ezkerro erleari abisua ematen zitzaion argizaria egin zezaten. Erlauntzak eta erleari buruzko kontu ezberdinak kontatzen ditu: nola geratu arazi, erlauntzak nola prestatu...

346. Argizaria nola egiten zen (ARN-019/027)

Erlauntzatik bereskak hartu, egosi eta oihal batean iragazten zen. Ura kentzen zitzaion, garbitu argizaria eta hozten uzten zen. Txokolatea egiten zuten

dendan argizariak ere egiten zituzten. Norbait hiltzen zelari, urtebetez izaten zen etxeko argizari bat piztuta elizan (lehenago ere elizan ehorzten zen jendea). Etxeko lurrari emateko ere balio zuen argizari hark. Etxeari argizaria nola ematen zioten azaltzen du, gasolinarekin.

347. Haur kantuak (ARN-019/029)

Talo-talo txin hator etxera Juan Martin... kantua kantatzen du. Arre-arre mandoko ere bai.

348. Haur batek min hartzen zuelarik “senda-mina” esaten zitzaion. Erleak ausiki egin ezker “polvo eta listo” (ARN-019/031)

Senda mina, butzurdina, joan da gure haurraren mina! Kantatzen zieten min hartutako haurrei. Erleak ausiki eginez gero listua bota eta lurreko hautsa ematen zen gainean.

349. Hortza erortzean xagu-xaharrari ematen zitzaion (ARN-019/032)

Xagu-xaharriematen zitzaizkion erortzen ziren hortzak: “Xagu xaharra, hortxe duk hortz zaharra, ekarri berria” esaten zuten. Aitak hortzak nola kentzen zizkien kontatzen du, irentsi ez zitzaion.

350. Axeriaren ipuina (ARN-019/034)

Artzainak borda bat zuen mendian. Gauean ardiak itxi, bordan lo egin, jeitzi eta herrira jaisten zuen esnea biharamunean. Artzain batek gaztanbera egiten zuen. Etxolako leihoan jarri eta axeriak jaten. Egun batean axeriari otxoa agertu zitzaion eta beldurtu zen janen zuelakoan. Gaztanberaren berri eman zion jan ez zezan. Egia ez bazen otxoak axeria janen zuela. Biharamunean axeriak gaztanberaren barnekoa jan eta ardi kakaz bete du. Otxoak hori jan eta axeriak ospa. Otxoak azeria edo artzaina jan nahi zituen, tranpa nork egin zion ez baitzekien. Erleak heldu zaizkio otxoari eta errekan hil.

351. Kabartzaiaren ipuina (ARN-019/036)

Kabarra zaintzen zuen jendea, jendea pasatzen zuen ibaiaren alde batetik bestera. Gizon horrek ez zuen diru handirik. Batek pasatu nahi eta esan zion pasa ezker esanen ziola munduko 4 egiarik handienak. Kabartzaiak esateko, eta egia ez baziren putzura botako zuela. Pasatzen hasi eta astoa, ontza eta apaizari buruzko egiak esan zizkion beste lagunak. Ia beste aldean zirenean kabartzaiari buruzko egia bota zion: Galtza zaharrak dituk eta ni bezalakoak pasa ezker, beti ere zaharrak izanen...

352. Beleak ezin du urik edan abuztuan, ipuina (ARN-019/038)

Jesus Nazareten hil zenean, Erromatar batek 2 urtez beheitiko haur guztiak hiltzeko agindua eman zuen. Jesusek milagro bat egin zuen gariarekin eta 2 egunetan ondu zen, norbait hortaz jabetu eta segitzen hasi ziren. Handik San Jose, amabirjina eta Jesus pasatu ote ziren galdetuta, baietz, ogia erein zutenean pasa zirela. Aspaldi zelakoan ez zieten gehiago jarraitu, nahiz eta beleek salatu zituzten. Zubi batetik pasa ziren gero eta jito atso bat bazen han. Jesus nola pasako ote zuten handik, eta atsoak pasako zuela erantzun zuen, beti ere egia esanda. Laguntzeagatik ijitoek ebasteko eskubidea dute bekatu izan gabe. Beleek berriz uzta garaian debekatua dute ura edatea.

353. Jende pobrea (ARN-020/001)

Arantzan Esteban Irigoien apaizak laguntza handia eman zien. Norbertok "jaungoikoa" deitzen zion. Apaizari esker atera omen ziren argitara. Telefonoa ordaindu zuen, eskolak ere moldatu zituen... oso arropa txarrak zituzten, zapatarik ez zuten. 2 ezpartin pare zituzten. Paren bat 22 sosekoa, bestea 18koa. Jende zaharra oinutsik ibiltzen zen. Elizara sartzeko janzen zituzten oinetakoak.

354. Zer arropa erabiltzen zuten (ARN-020/003)

Arropa txarrak erabiltzen zituzten. Galtza motzetan ibiltzen ziren umeak. Arrebak neskame atera ziren gazterik eta etxe horietako umeek erabiltzen ez zuten arropa pasatzen zizkieten.

355. Gazterik etxetik atera zerbitzera (ARN-020/004)

13 urtetarako kanpora atera zen lanera. Beran izan zen, etxera itzuli, baina dirua behar zutenez berriz joan zen kanpora, Frantziara. Hilabetean zilarrezko 8 duro irabazten zituen. Baserrian morroi aritu zen. Esnea banatzen ibiltzen ziren. Haziendari bazka eman, untxiak zaindu... han ikasi zuen bizikletan. Beran ere baserrian aritu zen.

356. Don Matias apaiza (ARN-020/006)

Oso zakarra omen zen. Gauza on bat egin zuen behin. Saran zaldi bat saldu zuen Norbertoren familiak. Baina ez zuten kobratu. Apaizak eskuratu zien zaldiak balio zuen dirua.

357. Bazkoz kunplitzea (ARN-020/008)

Txartel bat hartu behar zen lehenbizi apaizarenean. Dotrina galdetzen zuen apaizak. Behin lagun bat joan zen txartel bila eta apaizak zenbat jainko zeuden galdetu: " - Frantsesez, jinkoa, euskeraz jainkoa, gazteleraz dios eta txartela ematen ez badidazu, Don Matias, adios". Dotrina gaizki esanez gero ez zuen txartelik ematen. Behin komunioa eginda, txartela itzuli beharra zen

358. Baikuntza (ARN-020/010)

Gaztaina denboran guarda bat izaten zen herrian, zerriak eskapatuz gero berriz herrira itzuli eta gaztainak jan ez zituzten. Horri deitzen zitzaion baikuntza.

359. Urri bukaeratik aurrera libre zen zerriak ateratzea. Gaztaina motak (ARN-020/012)

Urri bukaera - azaro hasieratik aitzina libre zen zerriak askatzea. Gaztainak jaten zituzten. Herritarrek ere gaztainei esker bizi ziren neurri handi batean. Gaztaina motak azaltzen ditu: San Migel gaztaina, gaztaina zuria, Lesakarra eta anbutxa.

360. Igandetean emakumeak ilunabarrerako etxera (ARN-020/014)

Igandetean bezperetara joaten ziren. Ilunabarrerako emakumeak etxean behar zuten. Gizonek erronda egiten zuten gauean.

361. San Luiskoak eta Mariaren alabak (ARN-020/016)

Hijas de Maria zeuden bezala, San Luiskoak ere baziren mutikoendako. Domina bat eramaten zuten. Abesten ez bazuten kastigatzen zituzten. Don Matiasek kastigatzen zituen. Martin Irañetarekin heldu zen lasaitasuna. Errosarioa ematen zuen irratitik.

362. Jende asko bizi zen herrian (ARN-020/018)

Irratiz ematen zituzten herriko berriak. Jende asko bizi zen Arantzan. Lehen 3 meza izaten zen Arantzan, eta denetan izaten zen eliza betea. Orain bakarria izaten da eta ia hutsik egoten da, jubilatua bakarrik joaten dira.

363. Arantzako bestak (ARN-020/019)

Musika Lesakatik ekartzen zuten. Mutil koxkorrek pagatzen zieten musikariei. Besta politak izaten ziren. Boladoak (izozki gisako bat) jaten zituzten. Lehengo eta oraingo bestak ezberdinak dira. Dantza asko egiten zuten. Musika izaten zen, afaria, eta ondotik ere musika ordu 2ak arte. Pilota partidak izaten ziren, Arantzarrak Lesakarren kontra. Bertsolariak ere izaten ziren eta udaletxetik aritzen ziren kantuan.

364. Frontoi luzea ezagutu zuen Norbertok (ARN-020/021)

Zaharragoek "luzian" jokatzeko zuten. Forntoi luzean. Botarria izaten zen etxe baten parean. Kendu zuten gero. "Martinxeneko" etxe parean izaten zen luzia.

365. Beste joko batzuk: "Toki" (ARN-020/022)

Ostatutan jokatzeko zuten joko hau. Kutxa baten barnean barilla bat izaten zen eta 10 fitxekin jokatzeko zen. Fitxa haiek jaurti eta zein gehiago barillara hurbilduko apustua egiten zuten.

366. Trinketea (ARN-020/023)

Elizako arkupeetan aritzen ziren zaharrak trinketean. Sare bat jartzen zuten bazterrik-bazter eta pilota handiekin jokatzeko zuten.

367. "Santa Akta" eguna (ARN-020/025)

Eguberri bezperan eta urtezaharrean egiten zuten Santa akta eguna. Kantuan ateratzen ziren "Dios te salve..." Limosna hartzen zuten. Bertsoak kantatzen ditu: "Ai toki oneko alaba, etxeko andre zabala, bidean enteratu naiz limosneroa zerala". Eta beste bat: "Ate honek badu zuloa, hor dago sutondon katua, gero falta izan du xagua, ai etxeko andre, zure limosnarekin bete nahi nuke zakua". Horren truke ardo trago bat eta limosna hartzen zuten. Horrekin parranda pixka bat egiten zuten gero. 5-6 gazte joaten ziren eskean. Gero jende gehiago joaten hasi zen, dirua eskas baitzen. Baserri batetik 2 talde ere pasatzen ahal ziren. Lehen pasatzen zena limosna hobea zuen. Baserrietan eta herrian ibiltzen ziren. Herrian limosna gutxi ematen zuten. Bi egunetan egiten zen, lehengo usadio zaharrari jarraikiz. Iparraldean nola kantatzen zuten gogoratzen du Norbertok.

368. Arantzako inauteak (ARN-020/026)

Bi egun izaten ziren. Zortzikoa dantzatzen zuten gazteek eta zaharrek (zaharrenari zahar dantza deitzen zioten). Inauteetako azken egunean dantzatzen zuten zaharrek. Orain gazteek pasatzen dute ongi eta diru asko biltzen dute. Lehen arraultzak baino beste limosnarik ez zen. "Puska,

puska” ohiukatzen zuten, eskean. Beran berriz “Xinger arrautze, xinger arrautze, bat ez bada beste”. Mutikoak joaten ziren binaka bilduak. “Mozor txikiak” esaten zieten. 15-16 urtera artekoei esaten zieten hala. Gaztetan mozorro zuriak eta beltzak izaten ziren. Aurpegia tapatuta ibiltzen ziren eta ahalik eta zakarren jantzita. Hurrei segika ibiltzen ziren baina eliza atarian libre ziren haurrak. Beste batzuk koloreetako arropaz jantzten ziren eta kriskitinak eramaten zituzten. Mozor-zuriak zuriz jantzita ibiltzen ziren. Neskak inauterietan atera zirenekoa kontatzen du. Batzuei inpresioa eman zien. Mozorro zuriak dantzan ibiltzen ziren.

369. Gazteak bestak antolatzekeo elkartzen ziren (ARN-020/028)

Bai inauteak eta bai bestak antolatzekeo gaztean udaletxean elkartzen ziren. Udalak ere ematen zuen diru pixka bat antolakuntzarako.

370. Ezkontza eguneko ohiturak (ARN-020/030)

Norbait ezkontzen zenean dolareetako ardoa” banatzen zieten herrikoei. Toberak ere izaten ziren. Ezkongaei abesten zizkieten. Norbertok pixka bat abesten du. Normalean banketea emaztegaiaren etxean izaten zen eta toberak ere han izaten ziren.

371. Soldadu garaiak (ARN-020/032)

Evaristo Mitxelena akordeonista bere kintoa izen zen. Burgosera eraman zituzten eta Evaristo akordeoia jotzen joan zen autobus gainean. Iruñetik ere saltoka ibili ziren. Burgosera joateko manta bat eta bi sardina lata eman zizkieten. Trenez joan ziren Burgosera. Gerra ondoan soldadu bizia oso txarra zen. Zorriak baino ez zituzten. Fusilamenduak egitera ere bidali zuten Norberto. Bizkaitar abertzale bat fusilatzea egokitu zitzaion. Tiroa gora egiten zuten baina Guardia Zibilak ondoan zituzten pistolarekin. Haiek tiro egin eta soldaduak koartelera sartzen zituzten. Guardiak oso zorrotzak izaten ziren eta diziplina handia izaten zen koartelean. Burgosetik Santanderrera bidali zituzten. Han hobe izan ziren. Gero Santillana del Mar-en.

372. Gerratik libratu zen (ARN-020/034)

Paperen esperoan zen. Frentera destinatuz zuten, baina paperak behar zen garaian ez zirenez heldu, Elizondoko beste mutil bat joan zen bere ordeaz. Soldadu egon zen Burgosen, baina ez gerran. 2 anai izan zituen gerran. Koinatua ere bai, hura hil zuten. Lapurreta handiak izan ziren gerra garaian.

373. Anaien arabera gerratik libratu (ARN-020/035)

Beste 2 anai zaharrago gerrara bazihoazen hirugarren anaia libre zen. Baina gurasoek esan behar izaten zuten. Beste bi anaiak lanean ari ziren eta Norberto destinatuz zuten. Baina paperak garaian heldu ez zirenez, libratu zen. Izaten ziren ere bando ezberdinetan aritzen ziren senideak ere. Norbertoren 2 koinatu Frantzian egon ziren gordeta. Elkar ezin-ikusi handia izan zen Arantzán. Arantzako 4 lagun eraman zituzten San Cristobalera preso.

374. Batallón de Trabajadores (ARN-020/037)

Basarri bertsolariak bertsoak jarri zituen "Batallón de trabajadores" direlakoetan aritzen zirenei, bera barne. "Oiartzun, Aritxulegi, San antón ta Lesaka, jarri gaituzte hirunaka eta beraka". Bertako errepidea egiten izan baitziren. Lesakan karretera egiten aritzen zirenak ikusi zituen Norbertok lanean.

375. Koinatua batallón de trabajadores-en. (ARN-021/001)

Bizi txarra izan zuen bere koinatuak han. Jateko gutxi, arropa gutxi, pikotza...Errepidea egiten izaten zituzten eta lan gogorra zen hura. Halako kanpai denda batzuetan egiten zuten lo.

376. Konboia gerra garaian (ARN-021/003)

Lesakatik Oiartzunera joaten ziren behor batekin konboian. Oiartzunera kargatuta joaten ziren. Irin zaku batzuk zeramatzaten gainean eta tirokatuak izan ziren eta irinez zurituta bukatu zuten. Konboiarekin jatekoa eramaten zieten frentean zirenei.

377. Gerrako presoak (ARN-021/004)

Erreketek presoak hartzen zituzten. Eskuko hatzetik lotu eta soka batean eramaten zituzten 15 bat Oiartzundik Lesakara.

378. Manifestazioak egiten ziren herrian gerra garaian (ARN-021/006)

Manifestazioak egiten zituzten herri bat hartzen zen bakoitzean, eta abesten zuten: "Anima pues, anima pues, santa victoria nuestra es". Norbertok ez zuen horrelakoetan parte hartzen, bi anai baitzituen gerran. Herrian ez zen giro onik eta masoiak zirela esaten zieten.

379. Pelaiok (ARN-021/007)

Mutil koxkorrak jazten ziren Pelaiok. Militarrez jantzi eta desfilez ibiltzen ziren. Herrian 15-16 izanen ziren.

380. Arantzan ongi izateko erreketek izan behar zen. Gerran hildakoak (ARN-021/009)

Txapela gorria jantzi behar izaten zen Arantzan ongi bizitzeko, Erreketeen alde egin, alegia. Norbertok 3 senide zituen gerran eta horregatik ezin zen Erreketeen alde jarri. Arantzar asko izan ziren gerran. 14 hilak. Nicolás Etxeberria izan zen lehenbizikoa. Beste batzuen izenak ere gogoratzen ditu. Koinatuak esan zion gerra ondotik, oraindik ere hasteko zegoela gerra, orduan heldu baitziren ezinikusi handienak. Gerran hil edo zauritutakoen familiei pentsio zerbait ematen zieten.

381. Burgosen 8 euskaldun soldadu (ARN-021/011)

Burgosen 8 lagun euskaldu zeuden eta euskeraz egiten zuten. Tenientea joan zitzaian espainolez ez ote zekiten galdezka. Ezetz. Soldaduetako batek tenienteari galdetu zion euskeraz ia berak ba ote zekien eta arresto bikoitza jarri zion. Ilea moztu zieten eta 8 eguneko zigorra izan zuten, azulejoak garbitzen.

382. Erori zen hegazkin alemaniarra (ARN-021/013)

Eguberri egunez, meza garaian, hegazkin bat ikusi zuten bueltaka eta mendia jo zuen. 10 lagun hil ziren. Alemaniarrak ziren eta ziotenez, Hendaian izan zuten parranda pixka bat eta deskuidatu ziren ondotik. Gero behiekin eraman zuten hegazkina arrastaka Arantzara. Gorpuak altxatzera alemanak etorri ziren Arantzara.

383. Herriko kartzela eta ostatua. Ezkontza ostatuan (ARN-021/014)

Ostatua Herriko Etxeko bigarren pisuan egoten zen. Kartzela azpi-azpian. Ostatu ederra zen eta Norbertok han egin zuen ezkontzako bazkaria, udalari baimena eskatuta. Haiek prestatu zuten jatekoa: txekorra. Edaria Lesakatik ekarri zuten: Koñaka, anisa, ardoa... Arraina falta izan zitzaien egun hartan. Jateko: Menestra eta txekorra. Koroa eta dantzariak izan zituzten ezkontzan.

384. Amerikanoak eta bestak (ARN-021/016)

Ameriketara zegoen inor herrira bueltatu eta egun bat gehiago besta ordaintzen zuen.

385. Bestetako bazkaria (ARN-021/018)

Oiloa hil, egosi, salda egin, eta oiloa menestra egiteko probesten zen. Gisatua gero.

386. Mendi mutilen besta errege bezperan (ARN-021/019)

Errege bezperan mendian aritzen ziren mutilek besta egiten zuten herrian. Noiz hasi ziren ez du ongi gogoratzen. Bazkaria egiten hasi ziren. Aitzaki horrekin jende aunitz biltzen zen.

387. Kisua (ARN-021/021)

Kislari asko izaten zen herrian. Etxe bakoitzak zuen bere kisulabea kasik. Lan asko eskatzen zuen kisua egiteak. Ia ez da kusi gehiagorik egiten. Egurra erosten zuten eta puskatu. Kisua ona zen ilarra eta patatarendako, mamorroak hiltzeko. Kisua labean nola erretzen zuten azaltzen du. Kaikuak garbitzeko erabiltzen zen kisua besteak beste.

388. Kaikuak eta oporrak (ARN-021/023)

Kaikua esnea ibiltzeko izaten zen eta oporrak esnea bertatik edateko. Oporrak markatuak izaten ziren norberarendako.

389. Errautsak zeinatu gauean. Su berria (ARN-021/025)

Gauean sua itzaltzean, errautsak zeinatu egiten zituzten. Errezu bat ere egiten omen zuten baina Norbertok ez du gogoan. Brasak errautsarekin tapatzen ziren eta hurrengo egunean oraindik ere gorri zeuden su berria pizteko. Sua urtero berritzen zuten. Elizatik ekartzen zen su berria. Su zaharra etxetik ateratzen zen eta su bedeinkatua sartu.

390. Azeriak ehizatzen ziren (ARN-021/027)

Azeriek oiloak jaten zituzten, beraz, jendeak azeriak ehizatzen zituen. Alkatearengana eraman eta belarran koxka bat egiten zion. Gero herritik paseatzen zen azeria eta eskean ibiltzen ziren.

391. Asteko mandatuak: ardoa, txokolatea, olioa... (ARN-021/028)

Amak ogia, botila bat ardo, txokolatea eta litro bat olio ekartzen zuen etxera. Olio goilararekin zerbitzen zen, ez gastatzeko. Patatak lehenbizi egosten zituzten eta ondotik frijitu, oliorik ez txupatzeko. Gerra ondotik ez zen olio gehiago.

392. Kontrabandoa: pasadizo bat (ARN-021/030)

Mandoekin pasatzen ziren Frantziatik Espainiara. Horietako batean txistuka ari ziren kontrabando lagunen artean eta altoa eman zieten Guardia Zibilek. Korrika hasi ziren eta Guardiak tiroka. Baserri batean ezkutatu ziren. Han gaua pasa eta goiz aldera mugitu ziren. Itzuli handiago egin behar izan zuten hurrengo egunean.

393. Kontrabandoa: biderik luzeena eta ordainsaria (ARN-021/032)

Arantzatik ilunabarrean atera eta Erreterira goizeko 9etarako edo heltzen ziren. Gosaria ematen zieten. Lo pixka bat egin eta etxera. 25 duro pagatzen zen biae hura. Baziren 16 eta 17 duroko bidaiak ere. Batzuetan bueltako bidean lo hartzen zuten. Lanean ibiltzen ziren eta gero gauez kontrabandoan. Geroazienda hasi zen dirua ematen.

394. Peoi lana (ARN-021/034)

Peoi ibiltzeagatik 2 pezeta ordaintzen zuten egun guztiko lana. San Juango zubia egiten ibili zirenean, egun guztia lanean pasa 2 opil eta sardina batzuen truke eta ofizialeari 2 pezeta ordaintzen zizkioten. Jendeak diru pixka bat behar izaten zuen bizitzeko.

395. Apaiza eta induljentziak (ARN-021/036)

Garizuman bijiliarik egiten ez zuenak bula ordaintzen ahal zuen. Bula ordaindu eta bijilia egiten zuenak indulgentzia izaten zuen. Hamarrenak ere ordaindu behar izaten ziren.

396. Herrien fama (ARN-021/037)

Aranztarrak harrikalariak, Igantziarrak txuloak, Goizuetarrak zapoak, Lesakarrak orgullosoak (Madrid txikito esaten zioten Lesakari). Etxalar, Beratar eta Sunbildarrei buruzko esaerarik ez daki.

397. Hurrei esaten zitzaizkien kontuak (ARN-021/039)

Haur jaio berriak errekan harrapatzen zituztela esaten zuten zenbait zaharrek. Sorgin kontuak ere kontatzen zituzten. Bidera ateratzen ziren. Lamiak ere izaten ziren.

398. Lapurrak (ARN-021/041)

Aitak mendian lan egiten zuen. Afaria egin zuten gau batean gizon bat atera zitzaion bidera eta dirua emateko. Aitak ezetz eta korrika heldu behar izan zuen etxera. Atea itxi eta ez zegoen besterik. Guardia Zibilek pistola eta eskopeta bat eman zioten Norbertoren aitari, badaezpada.

399. Eltzetzuak (ARN-021/043)

Lehen Eltzetzu aunitz zegoen (ez zen Guardia Zibilaren berdina). Mendiak kontrolatzen zituzten.

400. Ijitoak (ARN-021/044)

Ijito asko egoten zen eta oiloak ebasten zituzten, eskean joaten zirenean. Alfer fama zuten baina biziak ziren.

401. San Juan bezperan sua (ARN-021/045)

Iratzea eta egur pixka bat erretzen zen eta gainean salto eguten zuten. Sarna fuera oihukatzen zuten. San Pedro eta Korpus egunean ez zuten lanik egiten. Lanak bezperatik egin behar izaten zituzten. Zortziurrenean goizetik lana eta arratsaldean besta. Akordeoia izaten zen.

402. Juanita jostuna (ARN-022/001)

Etkez etxe ibiltzen zen jendeak hautsita zituen arropak konpontzen. Petatxoak jartzen zizkien hautsita zeuden galtza, maindire eta halakoei... sos batzuen truke. Josteko makina buruan eramaten zuen etkez etxe.

403. Emakumeen lanak (ARN-022/003)

Josten aritzen ziren, herrian eta kanpoan. Nekazari ere ibiltzen ziren dezente. Neskato joaten ziren beste batzuk eta Hendaiara han udako denboraldia egitera. 2-3 hilabete ematen zituzten bertan eta gero herrira buelta. Mojak ere baziren baina ez aunitz. Etxean bertan segan eta belarra pikatzen ere aritzen ziren.

404. Auzolana (ARN-022/004)

Asko ibiltzen ziren ondoko auzokoen etxeetan lanean, baita haiek besteenetan ere. Auzolan handia zegoen. Artoa erein baino lehen lurra altxatzen ibiltzen ziren, landetan gorotza botaz, arto-zuritzen ere ibiltzen ziren: kafea hartu, artoa zuritu, afaldu eta kontu-kontari ibiltzen ziren.

405. Gaztainak (ARN-022/006)

Lehenago gaztaina aunitz izaten zen. Etxe bakoitzak bere gaztain alorra izaten zuen, batzuek handiagoa, besteek txikixeagoa... Iraila bukaeran bandoa jotzen zuten animaliak komunaletan sartu ahal ez izateko eta animaliak tokiz aldatu behar izaten zituzten, gaztainak jan ez zituzten. Gaztainak bildu eta "iskindegira". Harriz edo hostoz egiten zen borobil bat, gaztainak hara bota eta iratzeekin tapatu egiten ziren. Morkotxa usteltzen zenean, gaztain bereizketa egiten zen. Gaztain hoberenak herrian saltzeko ziren eta besteak animalientzako. Zor dezente ordaintzen zituzten gaztainerkin.

406. Gaztain bilketa (ARN-022/007)

Hagak erabiltzen zituzten. 3-3 mota zeuden: Gailur hagak (motzagoak) eta Zehar-hagak (luzeagoak). Horiekin morkotxak jotzen ziren behera botatzeko. Behin gaztainak erorita matxarrearekin biltzen ziren. Miauri zakua ere eramaten zuten gerrian, miauriak jasotzeko.

407. Gaztainak urte guztian konserbatzen ziren (ARN-022/008)

Igantzin bordetan sartu eta ilbeheran gatza botatzen zieten eta alde batetik bestera mugitu. Horrela ez zitzairen muskilarik ateratzen eta ez ziren lehortzen. Urtea pasa eta baerriak hartzen zirelarik zaharrak zerriei ematen zikzieten.

408. Gaztainak elikagai (ARN-022/009)

Afaltzeko patata eltzaria eta gaztainak. Baserritako umeak sakelean gaztainak eramaten zituzten zurituta, nahi zutelarik bat jateko. Herritarrek kendu nahi izaten zizkieten.

409. Auzoen arteko harremanak (ARN-022/010)

Lehen auzokoak auzokoekin ibiltzen ziren bakarrik. Orain herriko denak ibiltzen dira elkarrekin. Dantzarako ere auzoko neskekin baino ez. Beste zenbait tokietan bai baina Arantzan ez ziren behin ere harrika aritu auzoen artean. Zaharragoak joka akaso bai. Aranztarren harrikalari fama dute.

410. Gaztainetarako hagak (ARN-022/012)

Menditik ateratzen zituzten. Urritz eta gaztaina hagak izaten ziren. Adarrak moztu, etxera eraman, sua egin, bertan berotu eta oker bazeuden zuzendu egiten ziren. Heldulekutik arindu egiten ziren eskuetan hobe hartzeko. Erretzearekin pisua galtzen zuten. Ilargiari ere erreparatzen zioten egurra mozteko. Ilbeheran edo ilgoran moztu, ezberdin zen. Sua egiteko garaian igartzen zen.

411. Nola ezagutu zuhaitzak zer ilargirekin bota (ARN-022/013)

Hostoengatik jakiten omen da. Hosto koxkatuak dituzten zuhaitzak ilbeheran, eta hosto borobilekoak ilberrin. Pagoa ilbeheran, Altza otsaileko ilbeheran. Akazia hilberriarekin...

412. Haga saltzaileak (ARN-022/015)

Gaztainak bereizten ari zirenean batzuk esku batean izkutatu eta non ziren asmatu behar zuen besteak. Asmatuz geroz berarentzat: "Minttini-manttana, sobera barbara, betia". Bazen beste bat: "Zaldun kortin , pepitin kortin, zenbaten artin", eskuan zenbat gaztaina zeuden asmatu behar zuten. Jolasetan bat aukeratzeko: "Gaztaina, gora behera, txipiton txapiton fuera".

413. Zaldun-kortin eta zenbait jolas (ARN-022/017)

Gaztainak bereizten ari zirenean batzuk esku batean izkutatu eta non ziren asmatu behar zuen besteak. Asmatuz geroz berarentzat: "Minttini-manttana, sobera barbara, betia". Bazen beste bat: "Zaldun kortin , pepitin kortin, zenbaten artin", eskuan zenbat gaztaina zeuden asmatu behar zuten. Jolasetan bat aukeratzeko: "Gaztaina, gora behera, txipiton txapiton fuera".

414. Sorginak (ARN-022/019)

Oiloak etxe barruan izaten ziren eta oilarrak gaueko 12ak baino lehenago kukurruku egiten bazuen, sorginak zetozen seinale. Eskukada bat gatza botatzen zuten sutara. Tximiniatik behera sartzen omen ziren.

415. Oiloek errun behar ote zuten jakiteko zer egiten zuten (ARN-022/021)

Oiloak etxean gordetzen ziren gauez. Hatza atzetik sartzen zieten jakiteko hurrengo egunean errungo zuen edo ez. Arraultza jar zezaten gatza pixka bat jartzen zieten ipurdian eta berehala joaten zen errutera.

416. Arrautzak saltzeko (ARN-022/023)

Ez ziren etxean jaten, dendara eramaten zituzten eta han saldu. Dendan egurra ere saltzen zuten eta estraperloko ogia erosi.

417. Auritzera joaten ziren lanera (ARN-022/025)

San Ferminetako belarrak egiten zituzten eta Amabirjina bitarte Auritzera, Auritzberrira edo Arantzazura joaten ziren batzuk lanera, sos batzuk ateratzera. Bidaia oinez eta autobusez egiten zuten.

418. Mutiko eta morroi (ARN-022/027)

7-9 urterekin mutilik ez zuten etxeetara joaten ziren behin aitzinean lanera. 13 bat urterekin morroi. Aitak esan zion zein bordara (Beheko-boda) joan eta egun hura gogoratzen du. Hurrengo egunean mezara joatea egokitu zitzaaien Igantzin. Baserri bakoitzekoek ogi bat jaisten zuten. Gero, lanean lastoa botatzen ibiltzen ziren. Lastoa "bihurrekin" biltzen zuten. Belar metak egiten zituzten "last-hagen" inguruan. Artoa, Arbia... biltzen zuten. Belar txarrak kendu.

419. Artoa noiz ereiten zen (ARN-022/029)

San Isidro inguruan ereiten zen artoa. Arrazteluarekin ereiten zuten haien etxean, lurra maldan baitzuten. Gero makinekin hasi ziren landatzen. Makina horiek nolakoak ziren azaltzen du. Ilarra eta banabarra ere ereiten zuten. Lurra mailuekin jotzen zuten jorratu baino lehen lurra txukun uzteko.

420. Artoaren xurikina (ARN-022/031)

Artoaren xurikina behientzat erabiltzen zen. Zerbait ere koltxoiak egiteko. Koltxoa izaten zen zaku barruan sartzen zuten xurikina eta harrotu egiten zuten noiz behinka. Zigarroak biltzeko ere erabiltzen zuten batzuek. Errazionamenduagatik ez zen paperik (tabakoa ere gutxi).

421. Nekazariaren eguna nolakoak zen (ARN-022/032)

Urteko sasoiaren arabera, behiak goiz eta gauean jeizten zituzten eta horren arabera sasoi batzuetan, lehenago edo beranduago jaikitzen ziren, behiak jeizteko. San Juanetik Amabirjinetara soilik goizez. 5Etan esnatzen ziren. Ardiekin ere ibiltzen zen. Kafesnea gosaltzen zuten. Trapitxeren inguruan ere hitz egiten du. Gosaldu ostean jezten zituzten behiak. Animaliei bazka eman eta hamaiketakoa hartzen zuten. Landara joaten ziren orduan. Iratzeak biltzen zituzten.

422. Azpiak atera (ARN-022/033)

8 egunetan behin garbitzen zituzten animalien oheak (azpiak). Sardearekin hartu eta baztertu egiten zituzten. Igantzin borda bat izaten zuten horretarako, goroztegia. Saskiekin gorotza hartu eta buru gainean eramaten zuten. Txizaz bustita bukatzen zuten, baina bazuten dutxa, lan egiten zuten etxe hartan.

423. Morroi soldata (ARN-022/034)

20 duro irabazten zituzten hilabeteen. Ez zen soldata handia. Hasieran 3 urte egon zen morroi eta 20 duro irabazten zituen hilabeteen. Gero 30 duro hilabeteen hasi ziren ordaintzen. Jatekoa eta lanerako arropa ere (neurri batean) etxean ematen zioten, nahiz gero soldatatik deskontatzen zioten. Soldata bankuan sartzen zioten, ez zioten eskura ematen, alegia. Morroi lana bukatutakoan 1000 pezeta zituen aurreztuta. Kobratutako dirutik zerbeit uzten zen etxean. Mendian lanean zegoenean, herrira jaitsi eta amaren zorrak pagatu behar izaten zituen.

424. Orbaizetako basora lanera (ARN-023/001)

15 urterekin joan zen mendira lanera. Orbaizetara joan zen lanera, autobusean Lesakatik. Iruñean bazkaldu zuten, Otonon. Orbaizetara heldu, lo egin eta hurrengo egunean, mendira, mandoekin. Elurra kentzen ibiltzen ziren pala eta aitzurrarekin. Eguraldiarekin pasa zituzten komeriak. Mendira igo eta txabolarik ez. Ohola batzuekin egin zuten aterpea eta euria sartzen zitzairen. Biharamunean txabola egin zuten.

425. Txabola nola egin zuten (ARN-023/003)

Aitzurrarekin zati handi bat zelaitu (berdindu) egiten zuten. Urtxila batzuk jartzen zituzten zutabe gisa eta inguruan egurra. Ez zuten oholarik, makilekin eraiki behar izaten zuten. Abereendako korta ere egiten zuten, idi eta mandoendako. Kamantzak ere makilekin egiten zituzten, gainean añarra jarrita. Binaka lo egiten zuten kamantzetan.

426. Lanerako arropak (ARN-023/004)

Mendian ez zen lan egunik galtzen. Arratsalde bat galdu ezker berreskuratu egiten zuten. Nagusiak festa ematen zien zenbait egunetan eta arropa aldatzen zuten: abarkak, galtzerdiak eta bonbatxoak. Azpiko galtzak ez zituzten behin ere kentzen. Zangoan goti biltzen zuten eta sutondoan berotu. Galtzontzilorik ez zuten erabiltzen. Alkandora, jertsea eta bizkarlarrua erabiltzen zituzten ere. Bizkarlarrua zira baino hobea zen.

427. Abarkak eta bortzegiak (ARN-023/006)

Gurpilen kubiartekin egiten zituzten. Goizuetan abarka politagoak egiten zituzten. Evaristo zapatagileak (txistularia, soinularia, nekazaria... ere bazen) egur karga batzuen truke bota pare bat egin zizkion. Iltzedunak izaten ziren.

428. Garbitasuna basoan (ARN-023/007)

Igande arratsaldetan garbitzen ziren. Ordubiak arte lan egiten zuten, bazkaldu, siesta pixka bat egin eta aste guztiko arropa hartzen zuten. Errekan arropa eta gorputza garbitu eta bizarra egiten zuten. Nola garbitzen zuten azaltzen du.

429. Merendatzeko patata frijituak (ARN-023/009)

Igande bakoitzean merendua lagun ezberdinek prestatzen zituzten: patata frijituak.

430. Goilara bakoitzak berea (ARN-023/010)

Bakoitzak bere goilara izaten zuen eta zahatetik zintzilik eramaten zuten. Norbaitek zahatoa eta goilara ahazten bazuen, laguneren bati eskatzen zion mokadua emateko.

431. Festa egunetan bakailaoa (ARN-023/012)

Basoan zeudelari oso gutxitan jaten zuten bakailaoa. Egun bereziren batean soilik. Arantzako koadrila bat bazen eta esaterako festak zirenean eta herrira joatekoak ez baziren nagusiari bakailaoa enkargatzen zioten ajoarrieroa egiteko. Noizean behin artzainen bati bildotsen bat ere erosten zioten, kuadrilaka.

432. Astean zeharreko jana (ARN-023/014)

Goizean goizik gazta eta ogia jaten zuten. Babak eta ilarrak gosaltzeko. Haiketakorako ogi koxkor bat eta ardoa eta bazkaltzeko baba eta ilarrak. Merendurako ogi koxkor bat ere eta txokolatea. Tortilla edo arrautz egosiren bat ere. Afaltzeko garbantzuak jaten zituzten eta ondotik gisatua. Makailua eta patata frijituak ere jaten zituen. Eltzeak makil batean kokatuak igotzen zituzten mendira.

433. Esnea "letxeran" eramaten zuten (ARN-023/016)

Makila esnea eramateko ere erabiltzen zen, baina letxera erabiltzen zuten ontzi gisa. Marmita ere deitzen zioten batzuek. 8-10-12 litrokoak ziren. Esne asko bazen makilarekin eramaten zuten bizkarrean. Bestela eskuan.

434. Zenbat jende oihanean lanean. Lan motak (ARN-023/017)

52 lagun ziren haien kuadrilan lanean. Kontratista Donamariakoa zen, Andiarrena. Beste 18 aritzen ziren beste kuadrila batean estakista. Gero kuadrila gehiago heldu ziren eta bakoitzak bere lana zuen: mandoekin, bideak egiten, barrenatzen... Lan bakoitzean egiten zutena azaltzen du. Estakistak arbola bota eta zura eta egurra egin. Hasieran Iratin bertan egiten zuten lan hori, gero egurra Agoitzera eramaten zuten ibaitik barna zurgindegira. Kontratistak zapinu eta kalamarrua izeneko tresnak erabiltzen zituen.

435. Arbola nora bota kalkulatzea (ARN-023/018)

Arbolari berari begiratzen zioten, gainaldeari, noruntz erortzen ote zen. Inguruko zuhaitzei ere begiratzen zitzairen, pasatzen utziko ote zioten. Bota nahi zuten aldera egin behar zitzaion koxka aizkorarekin. Gero arpanarekin ebakitzen zuten enborra. Arbola bota eta adarrak kentzen zizkieten. Gero neurrika moztu egiten zen.

436. Zuhaitzen garraioa (ARN-023/020)

Zuhaitza bota eta kablea zegoen tokiraino eramateko, idiekin egiten zuten. Kontratistak zura garbitzen zuen eta barrenoarekin zuloa egiten zioten katearekin garraiatzeko. Mendian idiekin aritzen zuten eta kablera mandoekin jaisten zuten.

437. Kablea nola izaten zen (ARN-023/022)

Kablea poste batzuetan barna joaten zen. Polea handi batek mugitzen zuen kablea. Gainbeheran jarri behar izaten zen kablea. Behekaldean beste polea

bat izaten zen. Egurrari tramankulu batzuk jarri (murtxetak) eta kablean zehar garraiatzen zuten egurra. Tonelada inguru jaisten zuten karga bakoitzean.

438. Basoan ibiltzen ziren mutilek festa egiten zuten Arantzan (ARN-023/024)

Basoan ibiltzen ziren mutilek festa egiten zuten Arantzan, bueltatzen zirelarik. Kontuak egiten zituzten lehenbizi, mendian hilabetero ordaintzen baitzieten baina ez zituzten diruak hilabetero partitzen. Dirua banatu ostean bazkaria egiten zuten, kuadrilaka. Gero denak batera bazkaltzen hasi ziren. Eguberrian apaiza festa bat antolatzen hasi zen, antzerkia, bertsolariak, zozketak...eta mendiko mutilek bazkaria egiten hasi ziren elkarrekin.

439. Eguberrietako festa (ARN-023/026)

Bazkari bat antolatu zuten behin Lazkao txiki eta Koxme Lizaso bertsolariekin. Ondo joan zen eta hurrengo urtean berriz egin zuten, baita aizkolariak eramane ere. Eguberri guztietan hasi ziren halako festa antolatzen. Inauterietan ere bertsolariak eramaten zituzten. Poliki-poliki jende falta izan zuten eta festa antolatzeari utzi zioten.

440. Ikatza nola egiten zuten (ARN-023/028)

Lehenbizi plaza non egin aukeratzeko zuten. Haga batekin neurtzen zuten, besoka. Plaza erdian zulo bat egiten zuten eta horren inguruan "castillo" deitzen zutena, egurrak pilatuz goraino. Horren inguruan egurra zutik jartzen zuten. Txondorra montatu ostean iratzea edo hostoak jartzen zizkioten gainetik Ondotik lurra jartzen zuten gainetik, ahalik eta garbiena. Bukatuta zegoenean sua egin eta zuloan beheiti bota. Sua indartze zenean zuloa itxi eta egurra egosten uzten zuten. Gero gauez txondorra zaintzen ibili behar izaten zuten.

441. Zenbat denbora ematen zuten txondorra egiten (ARN-023/030)

10-15 egun kostatzen zitzairen ikatza egitea. Ikatza egina zegoenean txondorra estutu egiten zen. Egosia zegoela ikusten zutenean, dena tapatu eta 2-3 egun uzten zuten sua itzali arte. Ondoren txondorra ireki eta ikatza ateratzen hasten ziren. Sua berriz ez pizteko kontuz ibili behar izaten ziren eta hura tapatu behar izaten zuten.

442. Ikatza egiten ibiltzen zireneko txabolak eta jatekoa (ARN-024/002)

Denak izaten ziren igualak, Iratin izan edo beste nonbaiten izan. Jatekoa ere berdintsu izaten zen: zerrikia, bakailua, patata frijituak, eltzaria, sardin-zaharrak eta ardoa...

443. Ikatza nora eramaten zuten (ARN-024/003)

Bizkaian prestatzen zuten ikatza, hori Zumarragara eramaten zuten. Arantza ingurukoa Donostiako Loiolako militarreendako izaten zen. Nagusietako batek lana utzi eta langileak hasi ziren haien kabuz negoziatzen.

444. Apustuak eta harrokeriak (ARN-024/004)

Bazen herrian aulkia hortzekin altxatzen zuen gizon bat herrian. Auzo batekoak besteekin ibiltzen ziren jokoan (baita joka ere). Aizkorarekin, arpanarekin... egiten zituzten apustuak. Dirua fuerte jokatzeko zuten.

445. Aizkora apustua (ARN-024/006)

Herriko zenbait mutilek egin zuten apustu baten inguruko kontakizuna.

446. Apustua laisterka (ARN-024/007)

Herriko bi mutilek egin zuten mendian zehar bi bide ezberdinetatik, zein azkarrago heldu Goizuetara. Zelestinok irabazi zion Joxeri. Menditik joan zena Artikutzatik joan zenari hartu zion aurre. Ez ziren konforme geratu.

447. Apustua arto zakuekin (ARN-024/009)

Ehun kiloko zakuarekin etxera zein lehenago heldu apustu egin zuten herriko bik.

448. Herriko etxeko markak (ARN-024/010)

Herriko etxean izaten zen lehenago ostatua. Han egiten zuten besta. Merkatu egun batean batek aizkora erosi oihanean aritzeko eta ostatuan liskarrean hasi eta pilare baten kontra 12 aizkora kolpe eman zituen. Marka horiek badaude oraindik.

449. Bandera arboltzea eta Besta berri eguna (ARN-024/012)

25 urtez aritu da Pantaleon bandera dantzatzen. Berdin dantzatzen zen lehen eta orain. Bandera aldatu zuten eta berriarekin askoz okerrago dantzatzen da. Besta berri egunean egiten zuten bandera-arbola. Beti egun zehatz batean ospatu egiten dute, lehenago data-dantza izan baitzen, apaiza eta komunioak tarteko. Komunioa egiteko orduan nola janzen ziren: galtza luzeak, txapela...

450. Bestaberri egunean zer egiten zen (ARN-024/014)

Bandera herriko etxetik hartu eta elizara abiatzen ziren, txistulariak, bandera eta udaleko kideak. Mezan bandera atera egiten zuten aurrera kontsagrazio garaian. Gero prozesioa egiten zuten. Etxeko balkoiak ornitu eta iratzea botatzen zuten kaletik. Aldareak jartzen zituzten herriko zenbait puntutan. Bandera bukaera aldean dantzatzen zuen Pantaleonek. Bandera arbola nola egiten den azaltzen du. Herriko festetan ez dut bandera ateratzen. Norengandik ikasi zuen azaltzen du.

451. Arroparen garbiketa (ARN-024/016)

Auzo guztietan iturriak eta labaderoak zituzten. Harri gainean garbitzen zuten. "Kubelak" ere erabiltzen zituzten arropa garbitzeko, barriken modukoak. 3 hanka zituzten eta behekaldean zulotxo bat. Arropa han sartu eta errautsarekin garbitzen zituzten. Arropa hola garbitu eta iturrira eramaten zuten berriz. Txandaka ibiltzen ziren iturrian garbitzen.

452. Arkupeetako bi anilla (ARN-024/018)

Paxakan ibiltzen omen ziren eta arkupeetan 2 anilla zeuden sarea jartzeko. Baloi handi batekin aritzen ziren jokoan. Kontaketa tenisaren antzera egiten zuten. Luzean ere aritzen omen ziren, baina Pantaleonek ez zuen ezagutu.

453. Ikatza: plaza nola egiten den (ARN-025/002)

Plaza egiten da eta egur batzuk jartzen zituzten azpian. Egur baila ezberdinak egiten zituzten, goian egun motzagoekin. Orbela eta iratzeekin tapatu eta

lurra botatzen zioten gainetik txondorrari. Goitik sua sartzen zitzaion, zulo batzuk egin haizea hartu zezan txondorrak. Sua alde batera bazihoan zuloa beste aldean egin behar zitzaion. 6 lagun aritzen ziren plaza prestatzen. Lehenbizi lurra zelaitzen zuten aitzurrarekin. Egur handienak behean, txikixeagoak erdian eta egur txikiak goian. Erdian tximinia egiten zitzaion. Egurra zein motatakoa eta ze neurrikoa zen arabera, gehiago edo gutxiago kostatzen zen ikatza egostea. 15 egun handiak baziren, 7-8 txikiagoak baziren.

454. Ikatza: Pagoa edo haritza erabiltzen zen. Txondorra bildu (ARN-025/003)

Pagoa edo haritza erabiltzen zen gehien bat. Gaztaina erabiltzen zen arotzendako ere. Desberdinak ziren. Ikatzik onena pagoarekin egiten zen. Txondorreko lurra beheraino erortzen zenean jakiten zen ikatza egina zegoela. Plaza guztia garbitu eta egon zitezkeen harriak baztertu eta ikatza ateratzen zuten arrazteluarekin, pilatu eta hozten utzi. Zakuetan sartzen zen ondotik eta mandoarekin edo idiekin jaisten zen, karroetan. Orbegozo izeneko bati saltzen zioten. Burdina urtzeko erabiltzen zuen.

455. Ama ezkongabeak (ARN-025/005)

Ama ezkongabeek asko sofritzen zuten. Bere ama, ama ezkongabea izan zen eta nobioak banandu zituzten. Ahizpak ostatua zuen Lesakan eta bertan lan egin zuen. Gero aiton-amonekin bidali zuen amak Román. Ama ezkondu zen ondotik. Ama ezkongabe baten haurrak gauzez bataiatzen ziren. Beste ama batzuek haurrak inklusan utzi eta adoptatzen zituzten.

456. Ezkontza tratuak (ARN-025/007)

Ezkongaien amek lotzen zituzten tratu horiek normalki. Ezkontzen ziren eta kito! Ez ziren eskapatzen ere.

457. Gizonak ez ziren ezkontza tratuetan aritzen. Lesakan bat bai (ARN-025/009)

Normalean gizonak ez ziren holako tratuetan aritzen, emazteen kontua zen. Lesakan bazen Inazio izeneko gizon bat eta hura bai ibili zen. Neskazahar eta mutilzaharrak elkartze zituen. Arropak erostearen truke egiten zuen lan hura.

458. Sorginak trenean ibiltzen omen ziren (ARN-025/011)

Sorginak trenean ibiltzen zirela zioten zaharrek eta trenean sorginak noiz ikusiko izaten ziren txikitan.

459. Sorgina izan nahi zuen baten istorioa (ARN-025/013)

Lesakan ba omen zen atso bat sorgin fama zuena eta mutil batek esan omen zion berak ere nahi zuela sorgina izan. Egun batean atsoak mutilari esan zion erreka batera joateko eta han bi ahuntza topatuko zituela, bata beltza eta bestea zuria. Beltza adarretatik eusteko eta sorgina izan nahi zuela esateko. Akelarrera joan zen eta sorgin bilakatu. Sorgin asko erre omen zituzten inguruetan.

460. Herrian urik ez eta lamien putzutik ekarri. Lami eta sorginen esaerak (ARN-025/015)

Herrian idortea izan eta herriko batek esan zuen berak ekarriko zuela ura. Beste batek erantzun zion ezetz, lamiek ez ziotela utziko. Eske joan zen eta

ura ekartzeko ontzia tximinizulotik beheiti bota zuten lamiek. Gaez ibiltzen ziren. Lami eta sorginei esaten zieten, eguna egunezkoentzat eta gaua gaezkoentzat. Norbera bere tenorean oheratzen zen. Sorginei eta lamiei esaten zieten "Onezko bahaiz mintza hadi, gaizto bahaiz alde hadi".

461. Sorgina agertzen bazen zer egin (ARN-025/017)

Sorgina agertzen bazen atzamarrekin gurutze bat egin behar zen. Gaez kukurrukua entzuten bazen, sutara gatza bota behar izaten zen.

462. Sorginak katu beltz bilakatzen ziren (ARN-025/019)

Sorginak katu beltz bilakatu eta mahaien azpian gordetzen ziren. Beste katuak eta etxe hortakoak asaldatzen zituzten eta apaiza joan behar izaten zuen etxea bedeinkatzera, batera eta bestera. Baserritarrek oparia ematen zioten trukean. Herriko apaiz batek erabaki zuen ez zituela gehiago etxeak bedeinkatuko hori baserritarrendako galera handia baitzen oparitan.

463. Joxepantoni sorgina (ARN-025/021)

Joxepantoni sorginik famatuena zen. Behin ilobari harri batzuen azpitik katu beltz bat atera zitzaion eta kolpe handi bat eman zion makilarekin. Geroago emakumea ohean zen, izterrean kolpe bat hartu zuelako, makil batekin joa.

464. Sorgina tximiniatik behera (ARN-025/023)

Arantzako Anibarren gertatu zen. Emazte bat iruten ari eta sorgina tximiniatik hizketan hasi zitzaion "Atzo pirri-pirri eta gaur porro-porro" (?). Emakumea nazkatu eta zartaginean olioaren erretzen jarri zuen suan, eta sorgina berriz mintzatu zitzaionean olioaren bota zion. Emazteak sorginarekin topo egin eta zer pasatzen zitzaion galdetu eta "Neuri nire buru" esan zion, berak bere buruari egin ziola hori.

465. Mari Matias sorgina (ARN-025/025)

Sorginak hil ahal izateko, sorginkeria norbaiti pasatu behar izaten zioten, bestela agonian egoten baitziren, ezin hil. horregatik, norbait joaten zen, baina eskua eman beharrean sorginkeria hartzeko, oiloa jartzen zuen eta hari pasatzen zion sorginak sorginkeria.

466. Zenbat aldiz jo behar dira sorginak hiltzeko (ARN-025/026)

Sorginak behin jo behar da hiltzeko. Sorginak "jo nazak gehiago" esaten du eta, bigarren aldi batez jotzen bada, hirugarren aldi batez ere jo beharra dago, bestela bera da erasotuko zaituena.

467. Terexa sorgina (ARN-025/028)

Kontrabandoan aritzen ziren lehen eta Terexa izeneko emazte baten ataritik pasatzen ziren usu kontrabandistak gaez. Hurrengo egunean Terexak bazekien zein pasa zen.

468. Asto sorgina (ARN-025/029)

18 urterekin Romanek asto bat gurutzatu zuen bidean. Astoa hartzen saiatu eta euria bota zuen eta Roman zipatu egin zen. Uste du sorgina zela asto hura.

469. Amerikanoa eta belea (ARN-025/031)

Amerikano bat bere lagun batekin Doneztebera joan zen. Han afaldu, musean aritu eta berandu egin zitzairen. Etxerako bidean batek mendian lo pixka bat egin nahi izan zuen. Jarri zen eta bele beltz bat sartu zitzaion barrenera. Belea atera zitzaionean, esan zuen, nahikoa lo egin dut, orduan iratzarri zen.

470. Sorgin loreak (ARN-025/033)

Etxeko ateetan loreak jartzen ziren sorginek etxea ez atakatzeko. Elorria eta erramua jartzen ziren atarietan. San Juan goizean argitu baino lehenago hartzen ziren lore sortak eta ateetan jarri babes gisa.

471. Lamiak (ARN-025/034)

Lehenbiziko pertsonak omen dira lamiak. Kobazuloetan bizi ziren eta eguzkitan orrazten zuten ilea urrezko platera batekin. Arruzpiko koban ziren lamiak. Eguzkiak jotzen zuen maldara ateratzen ziren lamiak. Bere amona anis garrafon bat eramaten ari zelarik ikusi zituen lamiak orrazten mendi hartan. Ilea hori-horia omen zuten. Baziren gizon lamiak ere. Gorputza pertsonena bezalakoa zuten, zangoak ere. Aranibarren ere ba omen ziren. Etxeetara jaisten ziren lamiak.

472. Lamia haurdun (ARN-025/035)

Lami bat haurdun zen eta emaginaren etxera jaitsi zen. Laguntzeko eskatu eta erditze lana egin zion eta urrezko bandeja bat eman zioten trukean. Etxera heldu bitartean atzera ez begiratzeko eskatu zioten emaginari. Etxera sartzean atzera begiratu eta bandeja kendu zioten.

473. Animak (ARN-025/037)

Animak ere ateratzen omen ziren. Arima ateratzen omen zen mendian zen kaxa batetik. Apaiza joan zen eta ez omen zen berriz arimarik ateratzen. Romanek dio horiek lehengo kontuak direla. Apaizak miserian bizi zirela eta holako kontuekin jendea engainatu eta opariak biltzen zituztela.

474. Xixeroa (ARN-025/039)

Alkohola zuten edarien guarda zen xixeroa, udaleko langilea zen. Denuntzia jartzen zuen besteren batek alkohola bazuen. Anisarekin kontrabandoan aritzen ziren. Bere aitaren aita ur hotz-hotza zuen putzu batean sartuta (iturberrin) egon zen zenbait orduz xixeroak ez harrapatzeko, pulmonia hartu eta hil egin zen. Alkohola erosteagatik, beraz, udalari ordaindu behar zitzaion.

475. Berdabioko diru egilea (ARN-025/041)

Goizuetan, Berdabion, bazen dirua egiten zuen gizon bat. Harrobi batetik metala atera eta 5 soseko txanponak egiten zituen. Harrobia non zen galdetu eta oilarrak kukurruku kantatzen zuen tokian zela erantzun zuen. Harrobia antzeman eta kendu zioten.

476. Aranibar eta Ibarla (ARN-025/042)

Aranazko lehen bi etxeak dira. Bata bestearen beste puntan da eta jendeak zioen ez ote ziren haserretuko bertako familiak, gertuegi biziagatik.

477. Erremedioak (ARN-025/043)

Haurren hernia sendatzeko, arratseko 12ak jo eta berehala haritz bat ireki eta umea handi pasa behar zen. Katarroarendako malbabiskoa egosi eta horren ura. Sugeak ausikitzen badu, nabalakin ebaki eta zauria uretan jarri eta kredoan aldrebes jarri.

478. Ukendua ardiendako (ARN-025/044)

Amonak egiten zuen ardiendako ukendua. Irina, elurraren ura, intsusaren azala, horiek denak egosi, loditu egiten zen eta ardiei ematen zioten hura.

479. Txistea. Zenbat jaungoiko (ARN-025/046)

Emakume bat apaizarengana joan zen bazkotarako txartel bila eta apaizak zenbait jaungoiko ote ziren galdetu zion. Emakumeak 3 zirela, bat Lesakan, bestea Sunbillan eta azkena Goizuetan. Apaizak bakarra zegoela esan eta emakumeak non ote zen hura. Zeruan. Eta zeruan non? Eta apaizak ez zekiela. Emazteak bezala.

480. Txistea. Pernando Amezketarra eta bildotsa (ARN-025/047)

Pernando Amezketarrak bildotsa ebatsi nahi eta ezin leihotik pasa. Konfesatzera joan eta lapurtu nahi izan zuela baina ezin izan zuela esan zion apaizari. Apaizak hura bekatua zela berdin-berdin. Ia zer egin behar ote zuen eta apaizak berari duro bat ordaintzeko esan. Emakumeak konfesatzen ziren leihotik ordaindu nahi zion Pernandok itxita zegoen leihotik. -Hortik ez itxita dago ta! Noski, irekita izan balitz aterako bainuen bildotsa! Erantzun Pernandok.

481. Txistea. Ijitoak eta oilaskoak (ARN-025/049)

Ijitoek 2 oilasko joka ikusi, hartu etxera eraman eta jan zituzten. Apaizarengana konfesatzera joan eta honek zerbait lapurtu ote zuen galdetu eta ijitoak ezetz. Apaizari zer kontatu zion ijitoak.

482. Behien kofradia (ARN-025/050)

Behien kofradia bat bazen. Behi bakoitzagatik norberak ordaintzen zuen hainbat, behi bat hil ezkeru diru pixka bat izan ahal izateko. 43 sozio egon izan ziren, gero 20. Behiak kentzearekin kofradia desagertu egin zen.

483. Ura Arantzan. Komunak (ARN-025/052)

Romanek ez daki noiz jarri zuten ura Arantzan, baina bera jaio zenerako bazen iturria. Gero, baserrietan jarri zuten norberak pagatua. Arropa eta gorputza garbitzeko errekan garbitzen ziren, baita neguan ere. Komunik ere ez zuten, beraz, kanpoan egiten zituzten beharrak, edo kortan. Lehenengo komunka egurrezkoak izaten ziren.

484. Egurrezko paretak (ARN-025/053)

Etxean gelen arteko paretarik ez eta oholekin egiten ziren paretak. Etxean 4 gela zituzten, sukaldearekin 5. 4 paretetatik 3 egin zituzten taulekin.

485. Alarguna berriz ezkontzen bazen joareak jotzen zizkioten. Toberak... (ARN-025/054)

Alargun bat berriz ezkontzen bazen joareak jotzera joaten zitzaizkion herriko gazteak. Etxera joaten zitzaizkion kantatzera. Matrimonio berria bazen kantatzen zuten: San Martin, de la monja mojada, San Martín, Toberak jo ditzagun Amabirjinarekin...". Toberak deitzen zitzaizkion horri, ezkontza egunean izaten zen. Nobioek herriari ardoa ematen zioten ezkontza aurreko azken igandean.

486. Neskatan (ARN-025/055)

Batzuetan mutilak burua tapatuta ateratzen ziren. Hori ikusi izan du Romanek. Emazteak ezin ziren ostatuan sartu, ezin zuten dantza lotuan egin... Sueltoan aritzen ziren dantzan

487. Kontrabandoa (ARN-025/056)

Puntillak, zetazko galtzerdiak, autoen kubiartak, kobrea... Bizkarrean eramaten zituzten paketeak makil baten laguntzaz, karga bi bizkarretan banatzeko. Batek zuen besteak abisatzeko lana. 6, 7, 8, 10 lagun joaten ziren. Guardia-zibilak izaten zituzten mendian atzetik. Binaka joaten ziren normalki eta bidegurutzetean batzuk bijilatzen aritzen ziren. Guardia Zibilek tiroak botatzen zituzten airera norbaitekin gurutzatu ezker. Bati tiroa eman zioten belaunean. 3 bat orduko bidea egiten zuten. Baziren Guardiak atzematen zituzten zenbait txakur, nahiz eta batzuetan huts egiten zuten. Bidonak ziren eramateko gaiztoenak. Larruak ere pasa izan ziren gero.

488. Guardiak erosi egiten zituzten (ARN-025/058)

Baziren saltzen ziren zenbait guardia. Tratuak enkargatuek egiten zituzten. Guardiiek paketea kendu ezker, jornalik ez. Paketeak dendetan saltzen jartzen zituzten eta ez zen deus gertatzen.

489. Pernando Amezketarra eta zerria (ARN-025/060)

Pernando Amezketarrari zerria hiltzeko eskatu zion apaizak. Hil zuten eta zintzilik jarri idortzeko. Etxera joan eta hurrengo egunean apaizari txerria lapurtu ziotela eta ia Pernandok eraman ote zuen. Pernandok ezetz. Haurraren sehaskan gorde zuten zerria eta aitaren traza zuela esan zion apaizak Pernandori.

490. Pernando amezketarra eta txekorra (ARN-025/062)

Txekorra saldu nahi Fernandok eta neurtu zuen puntatik puntara. Norbaitek erosi nahi izan zion, larruarekin danborra egiteko eta isatsarekin txistua.

491. Lehengo kontuak (ARN-025/063)

Lehengo kontu eta istorio horiek zaharrek kontatzen zituzten, ez baitzen telebistarik. Tximinia bazterrean. Bueltan edozein biltzen zen kontu kontari, baita kantan ere. Lasaiago bizi ziren, ez zuten eskolarik ere...kontuak ateratzen gero ikasi zuen Romanek. Ezkondu ondoren hasi zen eskolan, gauez.

492. Juanitaren aurkezpena (ARN-029/001)

Arantzakoa da Juanita eta 66 urte ditu elkarrizketa egin zaionean. Irakaslea izan zen eta 19 urterekin ikastolan hasi zen lanean. Ikastola eta eskola fusionatu zirelarik, Arantzako eskolan segitu zuen irakasle Haur Hezkuntzan.

493. Arantzako ikastolaren sorrera (ARN-029/002)

70eko hamarkadan, Iruñeko San Fermin ikastolan aritu zen lanean, bertako irakasleen haurrak zaintzen. Gauetan ikasi egiten zuen; idazkari izateko prestatzen ari zen. Garai hartan, Arantzako apezak herrian bertan ikastola martxan paratzeko asmoa zegoela aipatu eta bertan lan egitea proposatu zion Juanitari. Herrian arazoa zuten irakasle euskalduna harrapatzeko eta erdalduna izaten zen. Hori zela eta, haur aunitzek ez zuten eskolarat joan nahi izaten. Juanitak hori ikusita, proposamena onartu zuen. Hala, 1978an, Arantzako ikastola sortu zen.

494. Bortzirietako ikastolak (ARN-029/003)

Bortzirietako lehenbiziko ikastolak Beran eta Lesakan egin ziren; Haur Hezkuntzatik hasi ziren. Gero Arantzakoa sortu zen, eta ondotik Igantzi eta Etxalarkoa; herri horietako apezek lan handia egin zuten ikastolaren sorreran. Ikastola guziek elkarrekin egin beharreko lanak prestatzen zituzten.

495. Bortzirietako ikastolen koordinazioa (ARN-029/005)

Bortzirietako ikastolen artean, elkar laguntzen zuten klaseak prestatzeko. Lesakako Kontxi Errok eta Berako Itxaro Aranibarrek Hondarribiko ikastolan lan egiten zuten, esperientzia zuten, eta klaseak prestatzen laguntzen zieten. Bortzirietako ikastoletako irakasleek ez zuten ez esperientzia, ez magisteritza ikasketarik, euskaraz zekitelako hasi ziren irakasle lanetan. Gerora, euskara titulua atera eta Bergarako UNEDen bidez magisteritza ikasi zuen Juanitak.

496. Arantzan irakasle euskaldunak beharrezkoak (ARN-029/006)

Garai hartan, Arantzako giroa euskalduna zen eta denak euskaraz solastatzen ziren. Eskola erdaraz zen eta haur aunitzek arazoak izaten zituzten hizkuntzarekin. Horregatik sortu zuten ikastola, eta sistema publikoan ere D eredua sortzearen alde lan egin zuten. Arantzara joandako irakasle erdaldunetako batzuk arazoaz ohartuta, gauzez euskara klaseak hartzen hasi ziren; Juanitak ematen zizkien klaseak. Mediki eta erizain batzuekin ere gauza bera gertatu zen.

497. Arantzako ikastolako sustatzaileak (ARN-029/007)

Arantzako apezak bulkatu zuen Arantzako ikastolaren sorrera. Nafarroako Gobernuko Urmenetak ere lagundu zuen materiala lortzen (mahaiak, aulkiak...).

498. Ikastolako haur kopurua eta egoitza (ARN-029/008)

3, 4 eta 5 urteko haurrak joaten ziren ikastolara. 38 hurreko talde bat izan zuen behin Juanitak; garai hartan ez ziren bi talde sortzen ahal, eta ahal zutena egiten zuten. Pelle Ttikin ematen zituzten klaseak.

499. Klaseetako materiala (ARN-029/009)

Lehenbiziko klaseetan, elkarbizitza lantzen zuten aunitz; haientzat garrantzitsua zen eskolarekin zuten lehen kontaktua euskaraz izatea. Klaseetarako erabiltzen zituzten fitxak irakasleek egiten zituzten; kalkoen bidez lehenbizi, txantilo gisako batzuekin ondoren eta Arantzako herriko etxeko fotokopiagailuaren bidez geroago. Eskoletan erabiltzen zuten bertzelako materiala aipatzen du Juanitak

500. Ikastolaren finantzaketa (ARN-029/010)

Ikastola finantzatzeko, Nafarroako Gobernuak diru pixka bat ematen zuen eta gurasoek ere zerbait ordaintzen zuten. Bertzetik, kantaldiak antolatzen zituzten elizan (Urko, Xabier Lete...) eta hortik ere dirua lortzen zuten.

501. Ikastolen arteko elkarlana (ARN-029/011)

Bortzirietako ikastolak hamabortz egunetik behin elkartzen ziren; harreman ona zuten eta elkarlanean aritzen ziren.

502. Herriko guraso batzuekin ika-mika (ARN-029/012)

Arantzako ikastola eta eskolaren artean, ez zegoen arazorik. Baina herriko batzuek beren seme-alabak gaztelaniaz ikastea nahi zutenez, ika-mika batzuk egon ziren. Elebitasunari buruz informatzeko Xabier Mendiguren eraman zuten herrirat.

503. D ereduaren sorrera Arantzan (ARN-029/013)

Ikastolako bigarren edo hirugarren urtean, Juanita eskolan laguntzen hasi zen eguerdian: matematika eta irakurketa pixka bat eman zien bertako hurrei. Handik gutira, Arantzako eskolako irakasleak euskaraz ikasten hasi ziren, eta horrek eragina izan zuen ikasleengan. Hala, poliki-poliki, D eredia sortu zen Arantzan.

504. Haurrak 14 urte arte Arantzan (ARN-029/014)

Eskolako irakasleak udalak izendatzen zituen, eta garai hartako udalak irakasle erdaldunak nahi izaten zituen; horrekin gatazkak izan zituzten. Bestalde, 14 urte arte Arantzako haurrek herrian ikastea lortu zuten, Berara joan behar izan gabe DBHko 1. eta 2. mailak egitera.

505. Guraso batzuen zalantzak euskaraz ikasteari buruz (ARN-029/015)

Euskaraz ikastearen kontra zeuden guraso batzuen kasuan, beraiek gaztelaniaz ez zekitelako izaten zen. Arazoak izaten zituzten medikuarengana joaten zirelarik medikuak euskaraz ez zekielako eta beraiek gaztelaniaz ez zekitelako, eta ez zuten beren seme-alabek arazo hori izaterik nahi. Beraz, nahiago zuten haiek gaztelaniaz ikastea.

506. Arantzako herri mugimendua (ARN-029/016)

Arantzako ikastolaren sorrerarekin batera, Olentzeroren ospakizuna abiatu zuten herrian. Antzerkiak ere egiten zituzten. Ekaitza elkarkez solastatzen da Juanita, kultura eta kirolari lotutako elkarkez, garai hartan sortutakoa. Denak elkarlanean aritzen ziren eta besta egun bat antolatzen zuten ikastolarentzako dirua lortzeko.

507. Antzerkia (ARN-029/020)

Ikastola sortu baino lehen ere, antzerkia egiten zen Arantzan, baina gaztelaniaz egiten zen. Gero, Ekaitza taldea sortu zelarik, bertako jendea euskarazko antzerkia egiten hasi zen. Ikastola eta eskolan ere egiten zen, euskaraz. Apezaren etxean antolatzen zituzten emanaldiak.

508. Irakasleak euskalduntzen (ARN-029/022)

Arantzara joandako irakasle erdaldunek euskararekiko jarrera ona izan zuten eta hizkuntza ikasi beharra sentitu zuten segituan.

509. Eskola eta ikastolaren elkartzeaz (ARN-029/023)

1988. urte inguruan fusionatu ziren ikastola eta eskola. Eskola euskaldundu zelarik, ikastolakoek garbi ikusi zuten ez zuela zentzurik bakoitzak bere bidea egitea, eta elkartu egin ziren.

510. Arantzako baserrietara euskara ikastera (ARN-029/026)

Euskara ikasten ari zen jendea Arantzako baserrietara joaten zen hizkuntza ikastera; Juanitaren etxera ere joaten ziren.

511. Herritar batzuen mesfidantza (ARN-029/027)

Arantzan euskararen aldeko mugimenduek (ikastolak, mediku eta irakasleen euskalduntzeak, baserrietara euskara ikastera joateak...) errezelo gisakoa sortu zuen herritar batzuen artean.

512. Tentsioak lasaitzeaz (ARN-029/028)

Errezelo eta tentsio horiek ikastola eta eskola fusionatu zirelarik lasaitu ziren. Ikastolan egiten ziren dinamikak (kanpaldiak, antzerkiak...) eskolan egiten segitu zuten.

513. Baserri vs herriko haurrak, berdintasunaren alde lanean (ARN-029/030)

Juanitak beti maite izan du euskara. Haurrek eskolan euskararen aferarekin nola sufritzen zuten ikustean, horrek euskararen alde lan egitera animatu zuen. Desberdintasun handia zegoen baserriko eta herriko haurren artean, eta Juanitak desberdintasun hori murrizteko egin zuen lan.

514. Bidea egiteke (ARN-029/031)

Egindako lanaren zailtasunez solastatzen da Juanita; bidea egiteke zegoen. Herriko gazteen babesa ere izan zuten.

515. Patxi San Juan irakasleaz (ARN-029/032)

Patxi San Juan irakasleaz solastatzen da Juanita. Arantzako eskolarat joandako Tuterako irakasle erdalduna izan zen, herrian bertan euskaraz ikasi zuena.

516. Arantzako bertze irakasle batzuk (ARN-029/033)

Patxi San Juan irakaslearen ondotik, bertze irakasle batzuk egon ziren. Horiek aipatzen ditu Juanitak.

517. Patxiren aurkezpena (ARN-030/001)

Patxi Arantzan sortua da, baina Beran bizi da. 63 urte ditu eta Lesakako fabrikan egiten du lan.

518. Trantsizio garaia eta euskararen aldeko mugimendua (ARN-030/002)

Trantsizio garaian, herri mugimenduak hasi zirelarik, Patxik 17 bat urte zituen. 1977An hasi zen fabrikan, eta bere lana izateaz aparte, aunitz ikasi zuen bertan langile-borrokaren eskutik. Geroxeago, euskararen aldeko mugimendua hasi zen; garai hartako testuinguruaz solastatzen da Patxi. Mugimendu horren baitan, euskalduntze eta alfabetatzeko beharra sortu zen; Patxi Bortzirietako euskaltegian aritu zen.

519. Bizimodua euskaltegiaren bueltan (ARN-030/003)

Euskaltegiaren proiektuaren inguruan, lagun kuadrilla bat elkartu zen (zeintzuk ziren aipatzen du Patxik), eta Mikel Legarra izan zen bertako motor nagusia. AEKren barrenean sartu eta gau-eskolak sortu zituzten Bortzirietako herri bakoitzean. Euskaltegiaren inguruan bizi ziren: asteburuetan txangoak egiten zituzten, mendi ibilaldiak, udako ikastaroak...

520. Mugimendu handia euskaltegiaren inguruan (ARN-030/004)

Nafarroako Ley del Vascuence delakoa atera zutelarik, horren kontrako manifestazioetara joaten ziren, aunitz mugitzen ziren. Harreman handia egin zuten Iruñeko eta Gasteizko euskaltegiekin; udako ikastaroetara batez ere hango ikasle eta irakasleak etortzen ziren. Barnetegietara joaten ziren ikasleen motibazioa euskara ikastea zen; egun, berriz, euskara-titulua eskuratu nahi dute. Giro ona izaten zuten barnetegietan, egunez klaseetara joaten ziren eta gaez poteatzera ateratzen ziren. Korrikaren antolaketan ere aritzen ziren euskaltegikoak.

521. Hasierako gau-eskolez (ARN-030/006)

Gau-eskolak non ematen zituzten aipatzen du Patxik. Udalari eskatzen zioten lokal bat eta hantxe ematen zituzten klaseak, garai hartan euskaltegiak ez zuen egoitza propiorik. Patxi irakasle aritu zen Arantzan eta EGAKo talde batean.

522. Klaseen prestaketa (ARN-030/008)

Patxi bere kontu alfabetatu zen, baita Lazkaon AEK-k antolatutako ikastaro batzuen bidez ere. Klaseen prestaketarako, Bortzirietako irakasleak bildu eta elkarrekin prestatzen zituzten. Ordurako bazuten euskara irakasteko materiala, errate baterako, Arturo Campion euskaltegiak prestatutakoa.

523. Matxinbeltzenea abian paratzea (ARN-030/009)

Euskaltegiak egoitza propiorik ez zuenez, barnetegiaren prestaketa nahiko konplexua izaten zen. Hala, egoitza bat izateko beharretik, Matxinbeltzenea sortu zuten; Mikel Legarra izan zen bultzatzaile nagusia. Matxinbeltzenea deskribatzen du Patxik, eta finantzatzeko modua zein izan zen aipatu: IKA, aportazio popularra, auzolana...

524. AEKren haustura, IKArek sorrera (ARN-030/011)

Bortzirietako euskaltegia hasieran AEK zen, baina AEK barrenean haustura eman zelarik, IKA izatera pasatu zen. AEKren barrenean bi ildo ziren: batetik, ezker abertzalearekin lotura izan beharra zuela pentsatzen zutenak eta, bertetik, independentzia osoa behar zela pentsatzen zutenak. Hala, AEK zatitu eta IKA sortu zen.

525. Matxinbeltzenea sortu eta gero, klaseak non (ARN-030/012)

Matxinbeltzenea sortuta ere, Bortzirietako herri bakoitzean antolatzen ziren klaseak. Halere, Arantza eta Igantzin ordurako ez zen talderik, eta Lesaka edo Berarat joaten ziren.

526. Euskara mankomunitatearen sorrera (ARN-030/013)

Garai horretan, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea sortu zen, euskarari zegozkion gaiak kudeatzeko. Mankomunitatearen sorreran ere euskaltegikoek parte hartu zuten.

527. Ikasle aunitz euskaltegian (ARN-030/014)

Ikasle aunitz izaten ziren euskaltegian, eta giro ona izaten zuten. Mugimendu handia egoten zen; astebururo ekintzaren bat izaten zuten.

528. Lesakako fabrian, euskara ikastea (ARN-030/015)

Lesakako fabrian, lan-hitzarmen baten bidez bertako langileei euskara ikasteko aukera ematen zitzaien: euskara klaseak antolatzen ziren fabrian bertan, edo matrikula ordaintzen zitzaien langileei.

529. Euskaltegiko langileak liberatuak (ARN-030/016)

Matxinbeltzenea sortu zenerako, bertako irakasle eta langile guztiak liberatuak ziren, jardunaldi osoz aritzen ziren lanean.

530. Matxinbeltzenea sortzen indar-hustu (ARN-030/017)

Lan handia egin zuten Matxinbeltzenea sortzen, eta nekagarria izan zen. Horren sorreraren ondotik, jende berria sartu zen proiektuan eta Patxik lekukoa utzi zien.

531. Bertsolaritzarekiko zaletasuna (ARN-030/018)

Herri hagitz bertsozalea izan da beti Arantza; bertsolariak eramaten zituzten edozein besta ospatzen zelarik. Madariaga anaia bertsolariak ere Arantzakoak ziren. Patxiri hortik heldu zaio bertsolaritzarekiko zaletasuna.

532. Paulo Iantzi sariketa eta Nafarroako txapelketa (ARN-030/020)

Lesakan, Paulo Iantzi sariketa antolatzen hasi ziren Antton Erkizia eta Kontxi Erro, Nafarroa eta Iparraldeko bertsolariekin. Geroago, sariketa hori Nafarroako txapelketa bihurtuko zen. 1998. urtean, Manolo Arozenak Nafarroako txapelketan parte hartu eta txapeldun-orde gelditu zen. Patxi Ttipi Ttapan ere aritzen zen, eta txapelketari buruzko monografikoa argitaratu zuten aldizkarian. Horren harira, Nafarroako Bertsolarien Elkartetik Patxiri deitu zioten Nafarroako txapelketa antolatzen laguntzeko. Hala, gai-jartzaile eta epaile aritu zen Patxi. Euskal Herriko txapelketan ere aritu izan da.

533. Bertsolaritzaren boom-a (ARN-030/021)

1993. urte inguruan, bertsolaritzak boom handia izan zuen: saio aunitz antolatzen ziren eta jende aunitz hurbiltzen zen horietara.

534. Nafarroako txapelketatik Xilabara (ARN-030/022)

Nafarroako txapelketan, lehen, Nafarroa Garaiko eta Nafarroa Behereko bertsolariek hartzen zuten parte. Iparraldean ez zuen halako indarrik bertsolaritzak; Nafarroan, aldiz, indartsu zegoen. Geroago, Iparralde mailako txapelketa antolatzen hasi ziren, Xilaba.

535. 90eko hamarkadan, euskararen aldeko mugimendu indartsua (ARN-030/023)

90eko hamarkadarako, lan pila bat egin zen: euskara batzordeak eta euskara teknikaria baziren, bertso saioak antolatzen ziren, bertso eskola martxan zen, ikastola, gau eskolak... Euskararen inguruko mugimendu indartsua zegoen Bortzirietan.

536. 90eko hamarkadaren akaberako euskararen egoera eta egungoa (ARN-030/024)

90eko hamarkada akaberarako, euskarak presentzia handiagoa zuen Beran. Patxik uste zuen lortutako guziak herria euskalduntzeko balioko zuela, baina, egun, bertze debate eta arazo batzuk sortu dira euskararen inguruan. Erabilerak beheiti egin duela aipatzen du, beraz, espektatibak ez direla bete.

537. Ttipi Ttapan kolaboratzaile (ARN-030/025)

1990. urtetik aitzinerat, Patxi Ttipi Ttapan kolaboratzen hasi zen, baina ez zen aldizkariaren sorreran aritu. Ttipi Ttaparen garapena aipatzen du: hiru hilabetekaria izatetik, hamabortzaria izatera pasa zen aldizkaria. Prozesu horretan guzian, Joxema Irigoienek protagonismo handia izan zuen. Patxik iritzi-testuen bidez kolaboratzen zuen.

538. Ttipi Ttaparen profesionalizazioa (ARN-030/026)

Ttipi Ttapa profesionalizatzeko prozesuan, aldizkaria hamabortzari bihurtu zen, eta iragarkiak sartzen hasi ziren. Geroxeago, Ttipi Ttapa telebista paratu zen martxan, baina arazo ekonomikoak zirela medio, bertan behera utzi zuten.

539. Ttipi Ttaparen garrantzia (ARN-030/027)

Gaur egun, Patxiren ustez, Ttipi Ttapa lotura bat ematen dio eskualdeari. Aldizkariak eduki egokia duela aipatzen du.

540. Euskaltegia baino lehenagoko euskararen aldeko proiektuak (ARN-030/028)

Patxi euskaltegian sartu zelarik, aitzinetik baziren martxan euskararen alde lan egiten zuten zenbait proiektu: ikastola, gau eskolak... Halere, euskaltegiaren sorreran modu nahiko autonomoan hasi zirela aipatzen du Patxik, Iruñeko AEKrekin harremanetan eta beraiek eredutzat hartuz.

541. Euskara batzordeetan, denak elkarrekin (ARN-030/029)

Herrietako euskara batzordeetan elkartzen ziren euskararen alde lan egiten zuten proiektu ezberdinak, errate baterako, ikastolakoak, bertso eskolakoak eta euskaltegikoak.

542. Euskaltegia finantzatzea (ARN-030/030)

Euskaltegia finantzatzeko, ostatua paratzen zuten herriko bestetan. Nafarroako Gobernuarekin ere beti bueltaka aritzen ziren dirulaguntza handitzeko. Euskaltegian lan egiteak beti izan du militantzia zati bat.

543. Garaiko oroitzapen onak (ARN-030/032)

Garai hartan egindakoaz oroitzapen onak ditu Patxik. Lan aunitz egin zuten, baina harremanak egiteko modua ere bazen. Egindako lanak balio izan duela aipatzen du; euskaltegiari duintasuna eman zioten, eta bertso eskolarekin gazte bertsolari aunitz sortu dira.

544. Egungo egoerarekin kezkatua (ARN-030/033)

Garai hartan, eskualdea eta Euskal Herria arrunt euskaldunduko zirela pentsatzen zuten. Baina egun, ezagutza handia izan arren, erabileran zuloa dagoela erraten du Patxik, euskararekiko kontzientzia neurri batean galdu dela.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2026-05-18

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkartea
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com